



'ERAGINEZ PIZTU': TRANTSIZIO ENERGETIKOA, DEBAGOIENETIK

Eremu hiritarrean eragin nahi duten zortzi proiektu aurkeztu
dituzte D2030 egitasmoaren barruan / 4

D2030 sarearen bultzagileek Bergaran aurkeztu zuten atzo, eguena, *Eraginez piztu* estrategia. XABIER URZELAI



Arrasateko Santa Barbarako ur-parkea asteen. AITOR AGIRIANO

Igerilekuak eta ur-parkeakbete-bete, bero larria arintzeko / 2

Mondrate Kirol Elkarteak jaso du Arrasate Kirol Sari nagusia, atzo egindako ekitaldian / 12



Deba: betetzen du
minimoa, eta
hobetu daiteke

Kattalin Miner
idazleari
elkarriketa

ORAIN, DENA EDUKITZEA ERRAZAGOA DA:
ATERA ARGAZKI BAT IRAGARKI HONI,
ZATOK GURE OPTIKARA ETA LORTU

50€

ARTEKO DESKONTUA ZURE
MÓ BETAURREKO GRADUATUETAN*

*2022/06/30era arte. 500€ edo gehiagoko erosketetan
aplikatuko da. Hontik beherakoetan, 20€-ko deskontua egingo da.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen

B.O.S. 9/1/20



SANJUANAK 2022 / 23

Oñatiko Antixena gaztetxeak hamargarren urteurrena ospatuko du asteburuan / 51

Zuzeneko diskoa grabatzeko azkeneko kontzertua emango du Garik gaur Seminarixoan / 57

SINADURAK



XABIER ARREGI
MURGIENDO / 6



ANE SANCHEZ
ZEZIAGA / 8



MIKEL
BIAIN / 64



Haurrak jolasean Arrasateko ur-txorroten parkean. AITOR AGIRIANO

Ur-txorroten parkeak, igerilekuak eta putzuak beroari aurre egiteko

Eskualdeko herri gehienetan abiatu da bainu denboraldia —eta gainerakoetan, gutxi falta da—; hots, zabaldu dituzte igerilekuak eta bestelakoak. Herritarrek ondo hartu dituzte freskatzeko guneak; batik bat, aste honetan izandako tenperaturengatik

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Egutegiz uda datorren martitzenean, ekainak 21, hasten bada ere, termometroek argi utzi dute asteen hasi dela aurtengo bainu denboraldia. Debagoiengan aukera ugari daude uraz gozatu eta freskatzeko, eta herritarrek ez dute aukerarik galdu.

Kanpoko igerilekuak, prest

Bergaran, Arrasaten eta Eskoriatzan daude kanpoko igerilekuak. Bergarari dagokionez, astelehenean ireki zituzten Agorrosingo igerilekuak. 1.000 lagun igaro ziren bertatik lehenengo egunean eta 1.300 bigarrenean. Irailaren 11ra arte egongo dira —ohiko ordutegiarekin— eta irailaren 15ean itxiko dira —ordutegiak, bergarakirola.eus-en—. Arauei eta funtzionatzeko moduei dagokionez, pandemia aurreko egoerakoak izango dira neurriak;

ohiko edukiera mugak izango ditu berdeguneak eta igerilekuak eta ez da txandarik hartu behar aurrez. Abonuak ere herritarren eskura daude. Agorrosin lortu daitezke —18 urtetik gorako norbaitek lagunduta—, edo online, aurrez izena emanda duten erabiltzaileek.

Arrasaten, berriz, bihar, zapatua, zabalduko dira Musakolako kiroldegiko igerilekuak. 09:00etatik 21:00etara egongo da bertara joateko aukera, eta irailaren 18ra arte iraungo du bainu-denboraldiak. Bergaran bezala, pandemia baino lehenagoko egoeran irekiko dituzte. Prezioei dagokionez, udako abonamendua egiteko aukera dagoela azaldu dute (kirolaonline.arrasate.eus). Bestetik, Arrasaten bertan, Udana auzoan, Uxarte jatetxearen igerilekuak ere badaude bezeroen eskura.

Eskoriatzan, haurrentzako kanpoko igerilekua uztailaren 2an irekiko dute, irailaren 4ra arte. Kasu horretan, arratsaldez bakarrik egongo da bertara joateko aukera.

Gune naturalak bailaran

Igerilekuez gain, badaude eskualdean bestelako putzu eta inguru naturalak ere, uraz gozatzeko. Oñatiko Usako da horietako bat. Zapatuan ireki zen putzua, baina momentu honetan bainua debekatuta dago, *E.coli* bakterioaren "kontzentrazio handia" antzeman dutelako ber-

EGUNERO MILA LAGUNETIK GORA IGARO DIRA AGORROSINGO IGERILEKUETATIK

tan. Osasun Publikoak egin ditu ur-analisiak eta emaitzek azaldu dute "kutsadura fekala" dagoela. Adierazi dutenez, oraindik proba gehiago egingo dituzte, eta bitartean, abisu berririk ez bada, debekatuta egongo da bainatzea. Gehitu dute ez dakitela zein den arrazioa, ez baitute kutsaduraren fokua aurkitu.

Bestetik, Deba ibaiak Bergaran dituen adarretan ere badaude bainua hartzeko putzuak. Angiozar errekan dagoen Amuski-bar presa, San Juan auzoko putzua eta Abain erreko putzua dira horietako batzuk. Gogoratu behar da horietan ez dagoela soroslerik.

Eskoriatzarrek ere badute beste txoko bat —hori ere sorosle gabe—. Leintz Gatzagara doan errepide zaharrera bitartean, Gaztainadi ur-jauzia dago.

Aramaion, berriz, Albina urtegira jo ohi dute herritarrek.

Ur-parke ugari

Txorrotez eta bestelako baliabidez osatutako ur-parkeek ere indarra hartu dute gaztetxoan artean azken urteetan, eta badira batzuk Debagoiengan; bost dira, zehatz esateko.

Aramaion, arazo teknikoak direla eta, oraindik ez da ur-parkea ireki. "Pieza bat dago apurtuta eta berria iritsi eta konpondu arte ezin izango da parkea erabilgarri egon", azaldu dute udal ordezkariak.

Antzuolan, Sagasti auzoan, irekita dago ur-txorroten parkea,

eta baita Arrasateko Villa Amparoko eta Santa Barbarako guneak ere. Oñatin ere, Ugarkalden, ur-uhinen parkea zabalik dago, irailaren 11ra arte; aurtun, baina, ohartarazi dute ez dela zaintzailerik egongo.

Debagoiengan bainatzeko txokoak

Aramaio

-Ur-txorroten parkea
-Albina urtegia

Antzuola

-Ur-jolas parkea

Arrasate

-Musakolako igerilekua
-Ur-parkeak
-Uxarteko igerilekuak

Bergara

-Agorrosingo kanpoko igerilekuak
-Deba erreko putzuak

Eskoriatza

-Castañareseko ur-jauzia
-Umeentzako igerilekua kiroldegian

Oñati

-Usako
-Ur-uhinen parkea

"Gizartean eragiteko habia goxoa da Garaia"

MIKEL ALVAREZ GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOKO LEHENDAKARIA

Duela hamabost urte egin zen urratsa Garaiaiko eraikin nagusia egiteko. Orain, atzera begira jarri eta hurrengo pausoen gainean aritu da Parke Teknologikoko lehendakaria

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

2000. urtean abiatu ziren Garaia Parke Teknologikoa egiteko lehen lanak. Duela hamabost eraiki zen gune nagusia, eta azken lau urteetan lehendakari izan den Mikel Alvarezek balioa eman die "ekosistema eraldatzailearen ekarpenei", eta etorkizuneko asmoz jardun du.

Noiz iritsi zinen zu Garaia?

2009an iritsi nintzen, baina ez parke teknologikoari zegozkion lanetara, Mondragon Taldean jardutera baizik. Azken lau urteak izan dira parkeari beren-be-regi lotuta egin ditudanak.

Zer pentsatu zenuen gune teknologikora iritsi zinenean?

Oso sentsazio positiboa izan zen. 2009an, bazeuden gauzak, baina ez askorik; enpresa gutxi zeuden. Eraikinaren %30 egongo zen beteta; agian, gutxiago: laurden bat. Baina poliki-poliki joan da osatzen –ekimen berriak, enpresa berriak..., eta oso sentsazio ona daukagu. Ekintzailetasunari lotutako iniziatiba asko kokatu dira bertan, eta horrek gazte asko ekartzea ere eragin du. Gainera, harreman ugari egin dira enpresa askoren artean. **Garaian ekosistema bat eratu dela esan ohi duzue...**

Sistema bizi bat baita. Zokoetan, mediterraneoko merkataritzan,



Mikel Alvarez. 'TULANKIDE'

gertatzen denaren antzekoa da; horrelako aspaldiko egituretan, harremanen bitartez garatzen da berrikuntza. Askotariko alo-rretako artisau edo langileen arteko loturek eta harremanek elikatzen dute zokoa, sistema, eta hemen berdina gertatzen da, baina ikuspegi teknologikotik. Ekimen eta ideia berriak jaiotzen dira elkarren arteko harremanetatik.

Horretarako lagundu egiten du Debagoienean kokatuta egoteak?

Garaia Parke Teknologikoa bere funtzioa betetzeko egoera

pribilegiatua du bailara honetan. Bi ezaugarri garrantzitsu ditu lapikoan: unibertsitatea eta industriaren pisua. Horrek enpleguaren kalitatea hobetzen du, harremanak sendotzen ditu, parkea elikatzen du...

Hortaz, parkeak ere, modu berean, ekarpena egiten dio bailarari?

Bai. Nik uste dut herri eta eskualde mailan oso interesgarria dela Garaia Parke Teknologikoa bezalako proiektua mimatzea eta bultzatzea. Kontuan izan behar da gaur egun eraikina beteta dagoela; 9.000 metro ka-

rratu inguru daude enpresa eta proiektuz beteta.

Bestetik, egia da oraindik lursail batzuk ditugula saldu gabe. Espazio teknologikoak dira, ez da lur industrialak. Halere, lur industrialak betetzeko ere badaude arazoak. Eremu asko daude Arrasate inguruan; batik bat, hutsik geratu diren eraikin industrial zaharrak.

Atzera begiratuta, sorrerara, zer datorkizu burura?

Polo edo parke teknologikoarekin amestu zuten pertsonen asmatu egin zutela. 25 urteko epea izan zuten kontuan. Orain, gure helburuak eta proiektuak epe laburrekoak izaten dira. Sarri esaten den moduan, baina, iloben etorkizunean jarri behar dugu begirada.

Nola ikusten duzue etorkizuna? Egin duzue bide-orria?

Zaila da aurreikustea zer etor daitekeen, eta azken bi urteek ondo erakutsi digute zein azkar alda daitekeen egoera. Ez dakigu non, zein merkatutan, sortu daitekeen zomorro bat edota zein lekutan botako duten bonba bat. Hori kontuan izanda, eta ikuspegi positiboa eduki nahian, hurrengo asmo batzuk zehaztu dira: zerbitzu gehiago ematea, beste eraikin bat handitzea, lursailak erakargarri egitea industria berriarentzat... Horretarako, alderdi ekonomikoari erreparatuta, dena ondo bidean, baditugu erabilgarri dauden baliabideak. Komunitatea sendotzeko balioko dute asmo horiek guztiek.

Zein da, orokorrean, zuen, Garaia-ren, helburu nagusia?

Gu habia bat gara, eta gure helburua habia goxoa izatea da. Berrikuntza sustatu, gizartea aberastu eta ekarpena egin nahi dugu hemendik.

Urteurrenaren ospakizuna Garaian

Astelehenean, hilak 13, Garaia eraikinaren 15. urteurrena ospatu zuten parke teknologikoan, hezkuntza zentroen, inguruko enpresen eta bazkide kolaboratzaileen ordezkaritza zabalarekin.

Ekitaldi nagusian, hainbat lagunek hartu zuten hitza Garaia Parke Teknologikoa azken hamabost urteetan egindako lana txalotzeko. Besteak beste, Iñigo Ucinak, Mondragon Taldeko lehendakariak; Leyre Madariagak, Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailetzaren zuzendariak; Iker Estensorok, Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusiak; eta Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak.

Ospakizuna bukatzeko, solasaldia egin zen, Mikel Alvarez lehendakariak gidatuta. Parkearen sorreraren zergatiei eta etorkizuneko helburuei buruzko gogoeta egin zuten. Berrikuntza eta lankidetzaren izan ziren jorratutako gaiak.

"GARAIA PARKEAREN PROIEKTUAREKIN AMESTU ZUTEN PERTSONEK ASMATU EGIN ZUTEN"

Debagoieneko EAJ Eguna ospatu dute asteburuan

Antzuolan eskualdeko jeltzaleak batu ziren, 'Presti!' lelopean. Parte-hartzearekin "gustura" geratu ziren

U. I. L. ANTZUOLA

Debagoieneko EAJ Eguna egin zuten domekan Antzuolan, eta bertan bailarako herri guztietako alderdikideak elkartu ziren. Ekitaldi politikoan, EGIko kide Itziar Alonso oñatiarrak, Aitor

Urrutia legebiltzarkide eskoriatzarrak eta Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek hartu zuten hitza.

Alonsok "bizikidetzaren" aldarrikatu zuen "euskal gatazkaren, LGBTIQ+ pertsonen jasaten

dituzten erasoen eta pertsona imigranteen" aurrean, eta baita "bizikidetzaren eta feminismoaren" ere. Urrutiak, berriz, eskualdearen lidergoaz jardun zuen: "Uste duguna baino bidegurutze gehiagotan gaude, eta aldaketa sakonaren aurrean erremintak behar ditugu (...) Herri honi eman ahal zaion bultzada horretan Debagoienak lidergoa izan dezake, lidergo partekatua". Bukatzeko, Egibarrek "populismoa" izan zuen hizpide: "Garai larriak bizi ditugu, eta horrek hiru ondorio



Ekitaldia. TXOMIN MADINA

izan ditzake: desberdintasunak handitzea, arrakala berriak sortzea eta noraez politikoa. Horrek ateak parez pare zabaltzen dizkio populismoari.

Egunarekin "pozik" geratu zirela azaldu zuten jeltzaleek. "Urte txarrak pasatu ostean, aukera bat ikusten genuen berriro ere elkartu eta jai-giroan indarrak hartzeko. Erantzun polita izan du, jende asko etorri da eta gustura gaude", adierazi zuen Antzuolako EAJren presidente Josu Arangurenak.



Aritz Ameztegi hizketan, egueneko ekitaldian. XABIER URTZELAI

D2030: zortzi proiektu trantsizio energetikorako

'Eraginez piztu', Debagoienerako esku-hartze proposamena aurkeztu du gizarte eraldaketa helburu duen ekimenak. Eremu hiritarreen –etxebizitzak eta eraikinak– eragitea da egitasmoaren nahia, eta 50 eragile inguru daude, denera, inplikaturak.

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Honela dio D2030 ekimenak *Eraginez piztu* aurkezterakoan: "Aldaketa klimatikoa eragiten duten faktoreen artean, nabarmena da erregai fosiletan oinarritutako eta kontsumo maila intentsiboko eredu energetikoa. Testuinguru horretan, krisi ekologikoa sortzen duten faktoreak gainditzeko dugun denbo-

ra mugatua da". Hurrengo hamarkada "gako" izango da "gure zibilizazioaren etorkizunerako". Datuak kezkarriak dira: Debagoieneko CO2 isurketa maila Europako lurraldeetan hiru garrenen parekoa da; bestalde, eskualdeak erabilitako energia-ren %5 soilik da bertan ekoiztia. Nagusiki sorkuntza berriztagarria, autokontsumoa, efizien-

tzia eta sentsibilizazioa jomuga, etxebizitza eta eraikinetan –industria eta garraioa aurreragorako utzita– eredu energetiko iraunkorra sustatzeko bi urtez garatutako prozesuaren –partekatua eta kolektiboa, herritarrekin, sektoreko erakundeekin eta udalekin elkarlanean– emaitza dira egunean Bergaran aurkeztutako zortzi proiektuak.

D2030 ekimenaren eta aurkeztutako proiektuetako bidelagunak izan ziren ekitaldian. Arrasateko alkate Maria Ubarretxe-nak adierazi zuen trantsizio energetikorako "buru-belarri" lanean dihardutela "bailarako herri guztiek". Azpimarratu zuen "denon konpromisoa" dela beharrezkoa, eta ohitura aldaketa aldarrikatu zuen. Mugikortasun arloan Udalak hartutako erabakien eraginkortasuna eta, energia berriztagarriak bultzatzeko, ordenantzetan egindako aldaketak nabarmendu zituen, Ekiola egitasmoarekin batera.

Elkarlanaren garrantzia

Bergarako alkate Gorka Artolak ere gizarte eraldaketarako herriko azken urteetako ekimenak izan zituen ahotan, eta elkarlanaren eta "erantzun publiko-komunitarioaren" garrantzia ere bai: "Administrazioa, herritarrak eta gizarte eragileak, hiruko hori da oinarria". Gogoan izan zuen "proiektu burujabeak" helburu dituen Ehundu egitasmoa, eta herrian egiten dihardutena atzo aurkeztutako enorabide berean doala baieztatu, energia komunitate bat sortzeko asmoa iragartzearekin batera.

Ekitaldira hezkuntza arloaren ordezkari –Oñatiko Urgain eskolatik– joandako Lukene Igar-tuak zioen "etorkizuneko gizarte osatuko duten pertsonak eskoletan daudela gaur egun", eta "oso garrantzitsua" dela, horregatik, "eskoletan trantsizio

energetikoa lantzea". Oñatiko eta Aretxabaletako eskolek berriki jasotako *Eskola jasangarri* izendapena ere izan zuen gogoan.

Fagor Taldeko presidente Jo-xean Alustizak adierazi zuen "etorkizuneko garapena, izatekotan, garapen iraunkorra" izan beharko dela; lankidetzak "publiko-pribatu zabala" aldarrikatu zuen, baita "komunitatearen sentsibilizazioan eta aktibazioan" eragiteko gako gisa ere.

Energiaren Euskal Erakunde-ko Inigo Ansolak, azkenik, zoriondu egin zuen Debagoiena, "proiektu zehatzak" martxan jartzeagatik eta "elkarlanagatik". Datuak ere eman zituen: 2005etik, aktibitate ekonomikoa %20 hazi dela, baina berotegi efektuko isurketak %27 jaitsi; ez lokartzeko dei egin zuen, baina, eta berriztagarriak, autokontsumoa eta efizientzia aldarrikatu.

Eraginez piztu-k 350.000 euroko inbertsioa eskatuko du: %83 jarriko du D2030ek; %14, udalek; eta %3, Garapen Agentziak. Erronkari aurre egiteko Debagoienak "osagai oso interesgarriak" dituela esanez eta eskualdea elkarlanera deituz itxi zuen ekitaldia D2030eko proiektuen koordinatzaile Aritz Ameztegik.

EEE-KO ZUZENDARIAK ZORIONDU EGIN ZUEN BAILARA, PROIEKTU ZEHATZENGATIK ETA ELKARLANAGATIK

'Eraginez piztu': zortzi proiektuak

IKASTEKE-KLIK

Proiektuaren helburua hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzak eta parte-hartze aktiboa sustatzea da, ikastetxeetan energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna lortzeko. Trantsizio energetikoaren gaia gizarteratuko litzateke, bidenabar.

TOKIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LABORATEGIA

Energia berriztagarrien arloan eskualdean dagoen ezagutza, esperientziak eta ikasketak partekatzeko esparru bat eratuko da, eta bertan modu kolaboratiboan erantzun zuzenak ager daitezkeen behar, aukera eta zailtasunei.

BIRGAITZEN

Etxebizitzetako konfort baldintzak hobetu eta CO2 emisioak murriztu daitezkeela frogatu gura du. Isolamendu soluzioa era kolektiboan eskainiko da, baina ez fatxada guztirako, etxez etxe baizik –ekonomikoki eskuragarriagoa–. Bi pilotu martxan daude, Bolun eta Antzuolan.

DEBAGOIENA ERABERRITZEN

Eraikinak eraberrituta, energia kontsumoa murriztea lortu nahi da. Herritarren, eragile ekonomikoaren eta instituzioen egoera ulertu eta eraberritze energetikoa sustatzeko estrategia bateratua definituko da.

ERREGULAZIO ERALDATZAILEA

Herri bakoitzean trantsizio energetikoa garatzeko oztipo izan daitezkeen ordenantza eta erregulazioak identifikatu eta eskualdeko udalerrirako guztien artean landu nahi dira. Izan ere, horien bidez energia jasangarriaren eta klimaren aldeko bidea erraztu eta azkartu daiteke.

DEBAGOIENA 2030 AUKERA ENERGETIKOAK

Egoera energetikoaren prospektiba egitea da helburua: energia kontsumoarena –eraikinak aztertuta– eta sorkuntza aukerarena –eskualdeko teilatu denak aztertuko dituzte, plakak jartzerik dagoen jakiteko–.

ENERGIA DENONTZAT

Inklusio soziala helburu, diagnosis egingo da –udal bakoitzaren ekintzak mapeatuta–, eta pobrezia energetikoari aurre egiteko dauden mekanismoak ikertuko –kanpoko esperientziak ere jasota–. Soluzio integratu bat diseinatuko da publiko-pribatu elkarlanean.

ENERGIA ADIERAZLEAK

Trantsizio energetikoan gako diren adierazleen identifikazioa eginda, udalen eta Udalsarearen datuetan oinarritutako adierazleen gizarteratzea eta datuen monitorizazioa egitea, ahaleginaren emaitza ezagutzea lagungarri delako.

Errekurtsoak errekurtsu, baimena du Valogreenek

Jaurlaritzak ez du onartu Bergarako Udalak jarritako errekurtsua, eta Larramendiko planta eraikitze Ingurumen Baimen Bateratua du Valogreenek enpresak. Larramendiko Arnasak erabakia salatu eta manifestazioa deitu du domekarako

Jon Irizar Aranguren BERGARA

Ekainaren 13an, astelehena, argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak hartutako erabakia: Valogreen Paper BC enpresak Larramendiko planta eraikitze behin betiko Ingurumen Baimen Bateratua eskuratu du.

Planta kudeatuko duen enpresak "bideragarritasun tekniko-ekonomikoa" probatu zuela azaldu ostean -20 milioi euroko inbertsioa egingo dutela eta 45 lanpostu sortuko dituztela adierazi zion GOIENARI proiektua kudeatuko duen Elxeke Greene enpresak-, apiril hasieran eman zion ingurumen baimena Jaurlaritzak. Bergarako Udalak, baina, gorako errekurtsua jarri zuen. Ekainaren 9an jaso zuten erantzuna, egindako eskaera onartua izan ez zela adieraziz. Ohar bidez adierazi dutenez, erabaki honekin "amaitu da bide administratiboa".

Hurrengo urratsak

Ingurumen baimena eskuratu arren, Udalaren esanetan Jaurlaritzaren erabakiak "Bergarako Udalak aho batez onartutako Plan Orokorren kontra" egiten du.

Proiektuari egindako alegazioetan adierazitako bidetik, indarrean dagoen planaren bi urratze ditu Valogreenen proiektuak, Udalaren hitzetan. Lehena, hondakinen kudeaketarako azpiegiturak erabiltzeko aukera jasotzen ez dela, eta, ondorioz, araubide horren menpe dagoen Larramendiko industrialdeko H partzelaren proiektua "onartuta ez egotea". Eta bigarrena, hondakinen kudeaketa erabilera nagusi gisa duen jarduera planarekin "bateragarri" ez izatea -erabilera osagarri gisa onartu zuen lehen proiektua Udalak,



Larramendiko Arnasak hondakinak tratatzeko plantari ezetz esan dio asteon. H.L.

LARRAMENDIKO ARNASAK DEITUTA, MANIFESTAZIOA EGINGO DA DOMEKAN, ERABAKIA SALATZEKO

baina ez erabilera nagusi bezala-. Halaber, Jaurlaritzak "hiri ordenamenduak dioenari jarraituz" egindako kontrako hirigintza bateragarritasun txostena aintzat hartu ez duela dio Udalak.

Aipatutako argudioak oinarri hartuta, Udal Gobernuak "udal planeamenduaren defentsan" egin beharreko hurrengo urratsak erabakitzen ari dela adierazi dute oharrean.

Manifestazioa domekan

Ebazpena ezagutu eta hurrengo egunean, martitzenean, prentsaurrekoa deitu zuen Larramendiko Arnasa eragileak. Jaurlaritzaren "maila demokratiko eskasa" salatu zuten San Juan Baselizan egindako agerraldian, "alegazio eta gorako errekurtsuak jaramonik ez egiteagatik". Eragileko kideen

hitzetan, Jaurlaritzak "ukatu" egin du "hondakinak kudeatzeko jarduera dela, hau da, erraustegia" dela Valogreenek Larramendin ireki nahi duen plantaren jardun nagusia.

Zenbakiak ere eman zituzten. Diotenez, baserri batetik 125 metrora, Basalgotik 440ra eta Bergarako hirigunetik kilometro batera kokatuko den plantak 155.000 tona paper hondakin tratatuko lituzke urtean; 8.000 tona hondakin arriskutsu, 552.000 ke tona, 90.000 tona ur zikin eta airera isurtzeko 10 merkurio tona sortuz. Herriar taldearen hitzetan, ingurumen baimena ematearen erabakiak "agerian uzten du herriarren osasunaren gainetik, Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna enpresa pribatuen interes ekonomikoen alde egitea dela".

"Jaurlaritzaren jarrera salatzeke", manifestazioa deitu dute domeka honetarako. San Martin Agirre Plazatik abiatuko da mobilizazioa 12:30ean. Ez da, baina, esku artean duten ekintza bakarra. Bi salaketa jarri dituzte baimena eman dutenen eta kontu hartzailletza auzitegiaren aurka.

Urte zaila baina ona izan da Goiena Taldearendako

Bart egin du batzar orokorra Arrasaten komunikazio kooperatibak; 2,8 milioi euroko aurrekontua onartu du

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

2021a ere, pandemia urtea izanagatik, ez ohikoa eta zaila izan da, "baina, era berean, ona" Goiena Komunikazio Taldearendako, Iban Arantzabal zuzendari nagusiaren esanetan. 17.875 euroko irabaziekin bukatu du urtea. 2022rako, 2,8 milioi euroko aurrekontua onartu du. Atzo egin zuen batzar orokorra Arrasaten.

Urte ona izan da, era berean, Goiena Taldeak parte-hartzea duen enpresendako ere, bereziki, Batura eta Artemanendako, baina baita Batu-banatu eta Alearendako ere. Bestetik, *Ttap* eta *Zut* argitaratzen zituen ADM enpresa itxi egin da eta bi aldizkari digital horiek Goienak kudeatzen ditu zuzenean, haren jabetzakoak izatera pasa direlarik.

18.000 euroko irabaziak

Irabazi txiki batzuekin itxi du 2021a: 17.875 euroko irabaziekin. Bereziki salmentetan, -publizitatea, zerbitzuak eta Goienakide-, %15eko hazkundea izan du. Irabaziak enpresan bertan gorde dira etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko. Azpimarragarria da Goienakide figura -*Puntua* aldizkaria etxean jaso eta beste hainbat onura eta zerbitzu jasotzearen ekarpena egiten duten norbanako eta enpresak-indartzeko egindako ahalegina. Fruituak eman ditu eta hazi egin da Goienakide kopurua iazko ekitaldian. 200.000 eurotik gorako diru-sarrerak izan ditu.

2,8 milioi euroko aurrekontua

Diru-laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako itunaren ondorioz, egonkortzera egin dute eta, horrek segurtasuna eman dio Goienari ez ezik sektore osoari. Udalen laguntzei dagokienez, eutsi zaie, nahiz eta 15 urtetan igoerarik ezta eguneratzerik ere egon ez den arren.

2022rako, 2,8 milioi euroko aurrekontua onartu du batzarrak. Kudeaketa Planean aurreikusitakoen artean, honako hauek nabarmendu ditu Iban Arantzabal zuzendari nagusiak: Publizitatearen fakturazioa %5 igotzea; Goienaren aplikazioaren erabilera sustatu eta handitzea; *Ttap* eta *Zut* aldizkariak itxura berri-tuta eta webgune eta guzti kale-ratzea; GoienaHUB abian jartzea; biktimen gaineko ikus-entzunezko zein idatzizko eduki bereziak sortzea; datu kazetaritzarekin lotutako edukiak sortzea edota telebistan inbertsioak egitea.

Errektore Kontseilua berritu

Errektore Kontseilua berritzea ere erabaki du batzarrak. Udalaren ordezkariak, Anuska Ezkurra -Arrasateko Udala- eta Iraitz Lazkano -Elgetako Udala- izango dira. Eneko Barberena, Edorta Arana, Inazio Garro eta Ihintza Orbegoza, berriak, euskara elkarteak. Lan-bazkideak, azkenik, Iñaki Iturbe, Itziar Larrañaga eta Monika Belastegi, azken hau Goienako presidentea.

111.000 euro bilarako landa-bideak hobetzeko

LandaGipuzkoa proiektuaren baitan, 2022-2023ko aldirako dirulaguntza programaren ebazpena eman du asteen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Landa-eremuan bizi diren herriarren irisgarritasuna hobetzea da ekarpenen helburu nagusia. Orotara, probintziako 53 herri-tako 68 landa-bide konpontzeko 1.299.636 euro bideratuko dira.

Debagoienean, sei herri-tako hamaika proiektu jasoko dute Aldundiaren ekarpena. 12.056 euro jasoko ditu Antzuolak Lizarraga, Pikunieta eta Untzarri inguru-erak; Erenuzketa eta Haritza baserrietarako bideak hobetuko dituzte Arrasaten 21.221 euroekin; bide bana konponduko dira Bergaran -35.000 euro-, Elgetan -3.775 euro- eta Eskoriatzan -4.794 euro-; eta, azkenik, Oñatiko Larraña, Murgia eta Urrexola auzo-erak 34.179 euro bideratuko dira.



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

Etxera bidea gertu!

Hori baita euskal presoen eskubideen alde lanean dihardugunon eta herritar gehiengoaren nahia. Izan ere, lau urte bete dira dagoeneko Espainiako Gobernuak adierazi zuela salbuespeneko espetxe-politika baztertu eta espetxe-politika arrunta ezarriko zuela. Ekainaren 18an, 48 hilabete beteko dira euskal presoen eta haien senideen artean itxaropena sortu zuten adierazpenok egin zirela eta hori betetzeko konpromisoa hartu zela.

Datuek bestelako egoera bat adierazten digute. Oraindik ere, euskal presoen %46 Espainiako eta Frantziako espetxeetan daude, egungo preso kolektiboaren ia erdia. Horri gehitu behar zaio azken bi

EUSKAL PRESOEN ETA HAIEN SENIDEEN ESKUBIDEAK URRATZEN JARRAITZEN DUTE


hilabete hauetan ez dela hurbilketa bat bera ere egin. Gradu-progresioari dagokionez, presoen ia guztiak lehen gradutik bigarrenera pasatu badira ere, bigarren gradutik

hirugarrenera pasatu direnak 21 preso besterik ez da, 60 presok horretarako baldintzak betetzen dituzten arren. Datu hauek erakusten digute euskal presoen eta haien senideen eskubideak urratzen jarraitzen dutela eta espetxe-araudia betetzea salbuespen bat dela.

Bidea egiten jarraitu behar dugu, elkarrekin, bizikidetzaren eta bakearen alde, euskal preso guztiak etxera bidean jartzearen alde. Bide horretan, ekimen ugari antolatu ditugu Saretik ate joka dugun udari begira, Izan Bidea dinamikaren baitan urratsak egiten jarraitzeko. Batetik, aurren bai, bosgarren bizikleta martxa antolatu dugu, hiru etapatan banatuta eta Euskal Herriko txoko ezberdinetatik igaroaz. Bestalde, hiriburuetako jaietan, Iruñeko, Gasteizko, Donostiako eta Bilboko kaleak hartuko ditugu. Ekimen guztien zikloari amaiera emango diogu urriaren 8an, Donostian, mobilizazio handi bat eginez. *Etxera bidea gertu* lelopean eta egun osoko egitarauaz gozatuz, gure nahia egi bihurtzeko urrats sendoak egin nahi ditugu zurekin. Izan zu zeu ere bidea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Errauskailua airea eta ura kutsatzen

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

GuraSOS elkarteak denuntziatuta, aurren aitortpena eman behar izan dute Zubietako errauskailuko arduradunek, hain zuzen ere, 2020an Arkaitzerreka errekatxora eginiko isurketagatik.

Ohikoa den moduan, justizia berandu dabil.

Aireaz gain, urak ere kutsatzen ditu errauskailuak, Arkaitzerreka erreka oso espezie batzuk desagertzearaino.

Nork bere ardura har dezala; guk, geurea: hasi gaitzen ohiturak aldatzen zero zabor lortu arte. Zaborrik ez badu erretzen, hobe denontzat.

Eskerrik asko, Bergara!

ARANTXA GARIN

ASPACE GIPUZKOAREN IZENEAN DEBAGOIENA

Aspace Gipuzkoak eskerrak eman nahi dizkie Bergarako udalerriari, bertako Udalari eta Jardun Euskara Elkarteari, garun-paralisia duten pertsonak eta haien familiek Pentekoste jaiei hasiera emateko txupinazoa udaletxeko balkoitik botatzeko gonbidapena

luzatzeagatik, Gorka Artolarekin eta Bitorianatxorekin batera. Familia asko joan ginen, garun-paralisia zuten pertsonak eta profesionalak, eta Aritz, Agustin eta Enekeri lagundu genien. Bergarak gisa, hunkitu egin ziren herriko festako protagonista izatearen ohoreagatik. Bergara beti izan da udalerri inklusiboa, eta beste behin erakutsi du. Hori da jarraitu beharreko bidea garun-paralisia duten pertsonak eskubide osoko herritarrek izan daitezen lortzeko. Eskerrik asko, Bergara, bihotz bihotzez.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otarora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),

Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,

Amaia Martinez de Arenaza,

Edurne Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,

Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,

Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otarora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otarora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otarora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Araba Euskaraz jaia Olarizura itzuliko da"

LIHER LARREA IBABE ARABAKO IKASTOLEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Larraitz Zeberio Lekuona ARAMAIO Domekan egingo dute Araba Euskaraz jaia Gasteizko Olarizu parkean. *Zortzigarren alaba* lelopean antolatu dute lurraldeko ikastola guztiek elkarrekin eta auzolanean. Arabako Ikastolen Elkarte presidentea da Liher Larrea Ibabe (Aramaio, 1973).

Nola doaz prestaketa lanak? Oinarritzkoa eginda eta aurreratu daitezkeenak aurreratzen ari gara. Gainerakoan, egunera begira gaude. Zabalik ditugu ateak etorri nahi duten guztiendako.

Trebiñun sortutako Argantzoren ikastolaren aldeko jaia izango da 2022ko Araba Euskaraz. Araban zortzi ikastola daude, eta Argantzoren 2003an sortu zen Arabako kuadrilla ez-ofizialean. Ikastolak ez du Gaztela eta Leongo Hezkuntza Saileko laguntzarik jaso inoiz, eta, urteetako arazo ekonomikoen ostean, ezinbestean, 2019an joan ziren Sagastietara, bertako Udalak lagatako etxe batera. Arabako



Liher Larrea Ibabe aramaioarra. ARABAKO IKASTOLEN ELKARTEA

ikastolarik txikiena da, baina dagoen lekuan egoteko esango nuke nahiko tamaina handikoa dela. Oraintxe matrikulatu da ikasle berri bat; beraz, 68 dira. Bestalde, hasiera batean, ikastolak

Haur Hezkuntza bakarrik eskaintzen zuen, baina 2016an hasi zen Lehen Hezkuntzako lehen gela eta ikasturte honetan irtengo da ziklo osoa hasieratik bertan egin duen lehen promozioa.

Beste eraikin bat altxatzea da asmoa, ezta?

Bai. Udalak utzitako lursail batean egitea da asmoa. Hurrengo ikasturtean egingo litzateke, 2023-2024ko ikasturterako prest egoteko.

Ze euskal giro dago?

Ingurua ez da batere euskalduna. Euskaraz dakiena, normalean, kanpotik heldutakoa da. Arabara atxikitzeo gogoia eta bestelako lanketa batzuk egiteko ikastolaren tamainak ematen duen aukera nabarmenduko nituzke. Irakasleak, bestetik, nahiko gazteak dira, eta sartu direnetik ari dira borrokan ikastola aurrera ateratzeko.

Zein da egoera Arabako gainerako ikastoletan?

Hiru ikastola handi daude: Laudion, Amurrioren eta Armentian. Arabako Errioxan Lapuebla izango da handiena, baina hor beti borrokan gaude. Lautadan, berriz, 1993an publiko egin ostean, hor ibili da kili-kolo aurrera egin nahian. Esango nuke erronka, orain, Hezkuntza Lege berriarekin datorkigula. Elkarrekin egin beharko dugu aurrera, dagoen aniztasuna errespetatuz eta ikastola bakoitzak bere inguruan duen hezkuntza komunitatearekin eta erakundeekin lan eginez.

Jaiotza-tasak izan duen eta aurreikusten zaion jaitsierarekin ez da erraza izango denek aurrera egitea. **Araba Euskaraz festak ezaugarri berriak ditu aurtan.** Olarizura itzuliko gara eta zortzi ikastolak elkarrekin antolatutako festa da. Hiru gune egongo dira eta ahalegindu gara egitarauan denetik sartzen, baina helburu nagusia da, batez ere, familiak erakartzea, gazte asko mugitzen zuen jai eredu hori pixka bat aldatzeko. Gero baloratuko dugu etorkizuneko eredu Herri Urratsen estilokoa den. Hau da, urtero leku berean eta ikastola guztiek elkarlanean egindakoa. Hain ikastola gutxi eta batzuk hain txikiak izanda, hori izan daiteke apustua.

Kantuaren hitzak Manex Agirre herrikideak egindakoak dira.

Ezagutzen du Argantzoren, eta baita ere Araban euskarak duen panorama. Bi gai horietatik tiraka osatu du. **Omenduak ere izango dira aurtan.** Auzolana eta elkarlana nabarmentzeko ikastola bakoitzak pertsona bat aukeratuko du. Aurreko urteetan Araba Euskaraz jaiko koordinatzaile Angel Olalde eta Alea aldizkaria ere omenduko dira.

ITURRI ONETIK

Arthur Nikisch lehiaketan bigarren saria

Txemi Etxebarria musikariak, Arrasaten jaio, Bergaran hezi eta egun Europa erdialdean – Belgika, Herbehereak – bizi eta lan egiten duenak, irabazi du musika banden zuzendaritzako Arthur Nikisch nazioarteko lehiaketako bigarren saria. Lehenago ere irabazitakoa da hainbat sari, eta Europako hainbat musika banda eta orkestra zuzentzen aritutakoa ere bada. Euskal Herrian, hurrengo proiektua izango da urtarreilean Donostian estreinatuko den *Bretxa* musikala.

ALBISTE IZAN ZEN

2014-06-16

Rezusta, binakako buruz buruko txapeldun

Beñat Rezustak 2014an – argazkian, Tolosan, Reyes Azkoitiarekin – irabazi zuen bigarren mailako buruz buruko txapelketa, Ibai Zabalarri finalean gailenduta; hilabete batzuk lehenago, binakakoa irabazi zuen, Erik Jakarekin batera, Gorkaren eta Merinoren aurka. Profesionaletan hasi berritan lortu zituen garaipenok. Ostean, bi bider izan da binakako txapeldun: 2017an Iker Irribarriarekin eta 2019an Danel Elezkanorekin.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Eneko Andueza, medikuak eta euskara

PSE-EEko idazkari nagusi Eneko Anduezak berriro lotu du medikurik eza eta euskara eskakizuna: "Garrantzitsuena da medikurik onenak izatea arreta onena eman ahal izateko". Erantzunak etorri dira:

@xemeinarra: Beraz gaztelania jakitea ez da eskatuko, mediku onak badira...

@Gilentx: Ba presta dadila Osakidetza mediku erdaldun guztientzako interpreteak kontratatatzeko.

@benaristi: Aurtan ezagutu dut Afganistandik errefuxiatu etorririko bikote bat. Biak medikuak. Ezin lan egin.



Juan Arzamendi Musika Etxea, atzean Udalatx duela. Eraikinaren goialdean ari dira, besteak beste, lanean. E.A.

Juan Arzamendi Musika Etxeko lanak, atzeratuta

Ekainaren 6an zegoen finkatuta bukaera epea, baina beste hilabetez luzatzea eskatu du Construcciones Moyua enpresak; udalbatzak luzapena onartu du, uztailaren 5era arte, baina oposizioa aurka azaldu da, Udal Gobernuari "kudeaketa txarra" leporatuta

Eneko Azurmendi ARRASATE

Beste behin ere, Juan Arzamendi Musika Etxea polemika iturri izan zen martitzeneko osoko bilkuran. Gobernuak aitortu zuen atzerapena izaten ari dela obra, hainbat arrazoi tarteko: "Lurgoiener porrota, pandemia, Ukrainako gerraren ondorioz lehengaien prezioak gora egin izana, garraioaren greba eta

abar". Halaber, Maria Ubarretxena alkatearen arabera, txostenek "garbi" esaten dute garraiolarien greba egon izana bakarrik nahikoa dela hilabete epea emateko. "Guk ez dugu ezer asmatu, LKSk eta gure teknikariek egindako txostentan dago hori", gaineratu zuen.

Oposizioak, ordea, ez du hala uste. "Luzatu eta luzatu ari dira

obra, eta ez dira ari betetzen enpresa eraikitzailearekin daukaten kontratua", azaldu zuen Maider Morras EH Bilduko bozeramaileak. "LKSk argi esan du atzerapen hori ez dagoela justifikatuta eta berme horiek egikaritu gabe, atzeratzeko baimena ematen ari da Gobernuak. Kontuan hartu behar dugu Construcciones Moyua enpresak 3.000

euro zor diola Udalari atzerapen egun bakoitzeko, eta Gobernuak ez da ari hori egikaritzen. Beraz, hori da exijitzen ari garena".

Podemos Arrasateko Eva Abuiñek zera gehitu zuen: "Adibidez, herritarrei pandemia garaian laguntzak epez kanpo aurkeztu izan dituztenean diru hori buelatzea eskatu die Udalak, baina enpresari ez dio eskatzen".

Amaia antzokiko alokairuaz

Bestalde, apirilean onartu zuten 2022ko ordenantza fiskalen aldaketa, behin behinean. Kepa Urteaga EH Bilduko zinegotziak orduko hartan esan zuen aldaketa behar zuela epigrafeetako batek, eragileek Amaia antzokia alokatzen dutenean %100eko hobaria izan dezaten, baina aldaketa hori egin gabe onartu zuten puntua.

Morrases azaldu zuen bere garaian ez zela Kultura batzordeetik pasatu gaia, zuzenean Gobernuak erabaki zuela, eta erabaki hori "gaizki" hartu zuela. "Hala, herriko kirol eragile batek ekitaldi bat egiteko eskara egin zuen eta diru kopuru bat ordaindu behar izan zuen. Kepa Urteaga aspalditik ari da eskatzen ordenantza aldatzea".

Gobernuak onartu zuen akatsa, eta martitzenean onartu zuten behin betiko aldaketa. Ubarretxenak zera esan zuen: "Gaiak batzordean lantzen dira eta batzordean ez zuten proposamenik egin. Gerora etorri da proposamen hori eta alde bozkatu dugu, baina eskertuko genuke lanke-tak batzordeetan egitea".

Adierazpen instituzionala

Bestalde, Arrasateko guraso bakarreko familiak egiaztatze-ri buruzko adierazpen instituzionala adostu zuen udalbatzak.



NIRE USTEZ

ANE SANCHEZ ZEZIAGA

Debaia

Gutako edozeinek gogora lezakeena baino denbora gehiago darama gure artean. Gizakiak inoiz ezagutuko ez dituen espezie ugari hazten eta hiltzen ikusi ditu. Erdi Aroko etsaien arteko gatazken lekuko izan da. Bere ertzetan *Homo Sapiens*-a finkatzea ahalbideratu du. Baimena eman digu bere baliabideak erabili gure herriak hedatzeko. Bere jariora eskaini digu inguruko industrializazioa garatzeko. Eta guk, trukean, zer egin dugu?

Kutsatu egin dugu. Kasik desagerrarazi egin dugu komeni ez zitzaigun lekuetan lurperatuz. Bere ibilgua estutu dugu. Etxe bat ematen zion bizitzatik hustu ditugu bere urak. Eta guk, konpentsatu nahian, bere bidean ur-jauzi txiki batzuk eraiki ditugu. Lapurtu dioguna erreklamatzeko erakusten duen haserre eusteko, sortu ditugun pareten gainean belarra landatu dugu. Honekin konformatuko gara? Hau al da gure erantzuna horrenbeste eman digun ibaiari?

Amestu dezagun, gure arbasoek behin egin zuten bezala, gu ere arrainez betetako errekan bainatzeko eguna iritsi dadin.

Ikasleek, askotariko proposamenak

Agenda 2030 egitasmoaren baitan, hiri eta komunitate jasangarriak landu dituzte Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako ikasleek, eta gai horri buruzko askotariko proposamenak egin dizkiete udal ordezkariari, haiek hainbat konpromiso hartzeaz gain (Informazio gehiago Goiena.eus webgunean dago).

Ikastetxe horietako 6 eta 18 urte bitarteko ikasle guztiek jardun dute aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 2030 lantzen, Udalako Ingurumen Eskolarekin elkarlanean. Besteak beste, erreka garbiketetan parte hartzeko konpromisoa hartu dute ikasleek, eta alkateak esan die urriaren 15ean egingo dutela erreka garbiketa. "Gorde ondo data. Han ikusiko dugu elkar".



Ikasleetako bat, berbetan, osoko bilkuran. E.A.

Ekainaren 27an jarriko da martxan Udaixe egitasmoa

12-17 urte arteko gazte guztiei zuzendutako Udaixe programaren egitaraua prest dute dagoeneko Arrasateko Udaleko gazte txokoek, nerabeek uda sasoiaren ere aisialdiaz gozatzeko jarraitu dezaten. Aurtengo edizioan, bi atal izango dituzte: *6ak BAIETZ!* (egun bakarreko sei plan- eta *Gaztekonkis-Elosu abentura* ([Ikus Goiena.eus](http://IkusGoiena.eus))).

Txupinazoaren aurretik, motorrak berotzera

Lau egunetan zehar denetarik egiteko aukera egongo da Arrasaten San Juan jaien bueltan, baina hemendik eta eguenera arte ere badaude ekintza kultural interesgarriak. Bestalde, zenbait ekitalditako izen-emateak zabalik daude oraindik

Hasier Larrea ARRASATE

Hamargarren aldiz egingo dute aurtun jai herrikoiei lotutako kantu afaria, eta, zenbaki boro-bila denez gero, Jose Letona plazan beharrean Herriko Plazan batuko dira gaur gauean, 21:30ean hasita. Bertan, herriko musikariz osatutako Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeak kantaldia egingo du, herriarren parte hartze prestua lagun. Horren aurretik, Goikobalu abesbatzako kantariak kalejira egingo dute erdigunean, 19:00etan hasita, eta, ordu erdi geroago, Herrixa Dantzan jarriko dute Bat Bitanek eta Patxi Monterok, Portaloik elkarteak antolatuta.

Bestalde, ekaineko baserriar azokako produktuak bihar goizean zehar egongo dira eskura Seber Altube plazan.

Badaezpada, komeni da gogoratzeari gaur amaituko dela 80 urtetik gorako herriarrek omenaldia jasotzeko izen ematea. Hain zuzen ere, San Juan egunean egingo diete aitortza, Etxaluzen,

12:30ean hasiko den ekitaldian; alkatearen agurra, lore sorten banaketa eta Abaroako abesbatzaren emanaldia izango dira plater nagusiak. Oraindik apuntatu ez dena garaiz dago, BAZeko 943 25 20 00 telefonora deitzen badu edo udal webgunean fitxategia betetzen badu.

Pare bat otordu publiko

Jadanik agortu dira ekainaren 23ko herri bazkarirako tiketak, baina oraindik ez dira itxi dragoi janaren afarian eta *Zeuk in zeuk jan* bazkarian parte hartzeko epeak. Lehenengoa ekainaren 24an egingo dute, Herriko Plazan, 20:30ean, ohi bezala, AEDk eta AEKk antolatuta. Sarrerak 12 eurotan saltzen ari

DRAGOI JANEAN, 'ZEUK IN ZEUK JAN'-EN ETA 80 URTETIK GORAKOEN AITORTZAN EMAN DAITEKE IZENA

dira Monten, Iratin, AEKn eta AEDn. Mahaikideek txuleturen eta hanburgesa begetalaren artean aukeratu ahalko dute menua. Euria eginez gero, Azoka plazara lekualdatuko dute afaria.

Eguraldi on edo txarrarekin, toki horretan izango da ekainaren 25eko *Zeuk in zeuk jan* bazkaria. Bihar itxiko dute udal webgunetik edo BAZen bitartez eman beharreko izen-ematea. Udalak dozena bat su txiki zozketatuko ditu eskatzen dutenen artean, eta, ahal dela, norberak eraman behariko ditu kozinatzeke tresneria eta mahai tresnak.

Argazki lehiaketa

Artgazki taldearen eskutik, San Juan jaien bueltako sariketa ere antolatuko dute. Gaurtik ekainaren 26ra arte ateratako argazki originalak aurkeztu ahalko dira lehiaketak@artgazki.org helbidean, ekainaren 27ko 22:00ak aurretik. Uztailaren 3an izango da sari banaketa, Kajoin.



RAOS
SPORT SHOES RESOLES

Ondo ibili sanjuanetan!

oinetako konponketak

- katu oinak
- Mendiko oinetakoak
- Trail Running oinetakoak

Doctor Bañez Kalea, 6
20500 Arrasate GIPUZKOA

www.raosresoles.es



CENTRO ECUESTRE ZABOLAIN ZALDITEGIA

Gora sanjuanak!

Gesalibar auzoa 36 • Arrasate • 627 83 15 55



GALLAS

Leiho eta pertsiana konponketak

Aurtun bai! Gora sanjuanak!

PVC eta aluminioa

Ardatz aldagarriko leihoak

Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02

gallasleiho@gmail.com



Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeko kideen 2018ko emanaldia, Jose Letona plazan; gaur, Herriko Plazan arituko dira. GOIENA



Bentzeria

B

Iturriotz 4
943 79 12 05
Arrasate

Aurtun bai!
Ondo ibili sanjuanetan!

Etxezarretarako bidea, naturari estuago lotuta

Kataide eta Elorregi arteko partzela erosi zutenetik zebilen Besaide Mendizale Elkarteak parkearen bueltan mendi ibilbide bat atundu nahian. Deba ibaiaren kontratik egin eta Kurtzetxikiko PR-arekin bateratu dute; beraz, erabilgarri dago edonorentzat

Hasier Larrea ARRASATE

Ekaineko lehen asteburuan egin zuten joan-etorri berezia Besaideko Aitor Zubiaga eta Eñaut Iturbe kideek eta hitzordura animatu ziren dozenaka herritarrek. Kulturolan hasi ziren oinez, azalpenak eman bitartean. Berehala iritsi ziren ibilbidearen berrikuntza hasten den tokira: Etxe Txikien eta Debagoieneko Mankomunitatearen artean dagoen zubira, hain zuzen. Bertan Deba ibaiaren ertzeko belarrezko plataformara jaitsi eta Mojategiraino heldu ziren, fabrika eta zubi artetik eta errearen albotik, une oro.

Espaloia saihestuta

Kilometro inguru neurtzen duen "bide goxoa" da Besaideko kideek Etxezarreta herritarrei hurbiltzeko eta errekarri bizkarra ez emateko asmoz atundu dutena. Zubiagak adierazi duenez, sarbideak eta aterabideak ere gertatu dituzte, eta, oraindik ere hobetzeko detaileak dauden arren, "atsegina" da bidea: "Gerizpea du, txoriak eta ur emaria hobeto entzuten dira eta asfaltotik zein zirkulazio eremutik ihes egiteko aukera ematen du". Hala, Etxezarretara joateko jadanik ez dira derrigorrean ospitaleko, Osiña inguruko eta



Besaidekoak eta herritarrak, txukundutako ibilbidearen hasieran. GOIENA

San Isidro elizako zebra-bideak zeharkatu beharko.

Modu horretan, Kurtzetxiki inguratzen duen PR Gi 91 Erregebidea-Bedoña izeneko ibilbidea egiten duenak herrigunera jaisten denean naturagunetik oinez segi dezake Etxezarretara iristeko. Parke horretatik Kortaburura igo eta ospitalera jaitsi edo Kurtzetxikira jarraitu dezake, era berean.

Panelak, laster prest

Hain zuzen, Debagoieneko Ospitale parean dago Erregebi-

dea-Bedoña ibilbidearen berri ematen duen panela. Orain, zaharkituta geratu denez, berria jarriko dute Besaideko kideek. Dagoeneko planoak prest dituztela aurreratu dute, eta denbora gutxi barru igoko dituzte ohiko Internet plataformetara, besteak beste, Udalaren eta Mendi Federazioaren webgunera.

Deba errearen albotik doan bide berrian ikusgai daude, bestalde, Europa osoko mendi-bide ertainetan -PRetan- homologatuta dauden marka zuri eta hori paraleloak.

Hamazortzi finalistaren artean banatuko dira literatur sariak

Arrasate Literatur Lehiaketako irabazleen berri hilaren 21ean emango dute, Kulturaren egingo duten ekitaldian

H.L. ARRASATE

Herriko gaztetxoek 383 lan aurkeztu dituzte, guztira, AED elkarteak 35. aldiz antolatu duen lehiaketara. Sari-banaketa 19:00etan hasiko da, eta Helena Azkarragaurizar izango da gonbidatu berezia. Antolatzaileen hitzetan, "aspaldiko parte hartzerik altuena" izan du aurten go lehiaketak. Horregatik adierazi dute euren zat "parte hartzaile denak" direla irabazle. Era berean, esker oneko azaldu dira gaztetxoak parte hartzera animatu dituzten senide eta ira-

kasleekin, baita epaimahai lanetan aritu direnekin ere.

Honako hauek dira hamazortzi finalistak: narrazioetan, Aimar Moreno, Jare Urrutia, Ainara Revilla eta Andoni Osinalde; ilustrazioetan, Ilargi Bengoa, Anne Sofia Daza, Ane Fernandez eta Jare Berezibar; bertso papeletan, Ane Aranzabal eta Jare Urrutia; mikroipuinetan, Oier Armendia, Nora Zeziaga, Oihane Bengoa eta Ainhize Ibabe; poesian, Alaitz Etxebarria, Alaitz Sanchez eta Ane Sologaitza; eta komikian, Nahia Davila.

1965ean jaiotakoek kintada egingo dute irailaren 24an

Adin askotariko kintoak hasiak dira aspaldiko lagunekin elkartzeko ohitura berreskuratzeko. 1965ean jaiotako arrasatearrek, esate baterako, irailaren 24rako antolatu dute topaketa. Antolatzaileek adierazi dute uztailaren 15era arte egongo dela izena emateko aukera zabalik, eta urte hartan jaio zen orori zabaldu dizkiote ekitaldian parte hartzeko ateak. Horretarako, norberaren izen-abizenak jakinaraziz erreserba egin beharko dute Laboral Kutxako kontu honetan -70 euro sartu behar dira-: ES76 3035 0055 17 0551058385.

Beste kintada batzuen berri eman nahi izanez gero, idatzi berriak@goiena.eus-era.

Musakolako kanpoko igerilekuak bihar zabalduko dituzte

Udako denboraldiari ekain hasieran eman zion hasiera Arrasateko Udalak, Villa-Amparoko eta Santa Barbarako ur-parkeak irekita. Zapatutik aurrera kanpoko igerileku publikoak ere zabalik egongo dira egunero, irailaren 18ra arte, 09:00etatik 21:00etara. Ez da txanda ez edukiera mugarik egongo, eta udako, eguneko edota hamar eguneko bonua atera ahal izango da, adinaren eta erroldaren arabera markatutako prezioetan. Informazio gehiagorako, deitu Musakolako kiroldegiko telefonora: 943 25 20 30.

Udala auzoan Uxarte jatetxeak kudeatzen duen igerileku irekia asteon zabaldu dute, bestalde.

Jose Ramon Otamendi

harategia

Aurten bai! Ondo ibili jaietan!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gora sanjuanak!!

Iturriotz 21 · Tel.: 666 387 506 · eya@telefonica.net
ARRASATE

Gipuzkoako hanburgesa onenak, bertakoak

Iker Agirreurretak jaso du lehen saria, eta Jose Ramon Otamendik bigarrena, Gipuzkoan egin den I. Hanburgesa Artisauen Lehiaketan. Azpeitian egin zuten ekitaldia, maiatzaren 28an ospatutako Hanburgesaren Nazioarteko Egunaren harira

Hasier Larrea ARRASATE

21 harakinek hartu zuten parte Azpeitiko Udalak, Ederto Gipuzkoako harakinen elkarteak eta Dendartean Gipuzkoako merkatarikariek antolatutako Gipuzkoako I. Hanburgesa Artisau Lehiaketan. Hanburgesarik onena Arrasateko Agirre-Etxe harategiko Iker Agirreurretak aurkeztutakoa izan zen; hori gutxi balitz, bigarren postua ere beste arrasatear batek lortu zuen, Otamendi harategiko Jose Ramon Otamendik.

Sukaldari batek prestatu zituen plantxan hanburgesa guztiak. Ondoren, epaimahaikideek dastatu, eta euren botoen bidez hartu zuten azken erabakia, haragien itxura, testura, kolorea, zaporea, bertakotasuna eta produktuen konbinazioa kontuan hartuta.

Zein ote sekretua?

Bi irabazleek tokiko elikagaiekin osatu zituzten produktuak, txahalaren eta txerriaren okela nahastuta. Besteak beste, "tipula, berakatza eta arrautza" gehitu zizkien Otamendik; Agirreurretak, berriz, haren jakian "gatza eta osagai gehiago" zeuzkala azaldu du: "Sukaldariek egiten duten moduan, ez da komeni sekretu guztiak kontatzea". Biek



Otamendi eta Agirreurreta, sariak eskuan, Leize-Txiki elkarteak. IMANOL BELOKI

argi esan dute oinarritzakoena kalitatezko haragia izatea dela, eta, gero, "behar bezala erabili" beharra dagoela, garbitzerakoan eta gertatzerakoan.

Lehiaketak, "aproposak"

Azpeitiko ekitaldi haren ondorioak igartzen hasiak dira bi harategietan. "Txorizoekekin lortutako sariekin bezala, jendea

kuriositateagatik etortzen da, probatzera eta baita zoriontzera ere", dio Agirreurretak. Herri-tarrei lehiaketak gustatzen zaizkiela gaineratu du Otamendik: "Normalean baino gehiago saldu ohi dugu; bereziki, lehen egunetan. Saiheski dastaketekin ere horixe bera gertatzen zaigu".

Maisuari eskerrak

Amaitzeko, eskerrak eman dizkiote euren maisu izan den Manuel Agirreurretari, Ikerren aitari, hain justu, urteetan zehar "asko" lagundu dielako.



Erreportajea ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Lagunarte koloretsua

St. Paulizaleek Beste Bat! eguna ospatu zuten zapatuan. Taldeko kideek lagunarteko futbol partidua jokatu zuten goizean Iturripen, Dribling eta Betrayer taldeetako ordezkariekin batera. Talde argazkia eta otordutxoak egin ostean, Montxon elkartearen batu ziren bazkaltzeko. Argazkian ikusten denez, giro paregabea sortu zuten denen artean.



ENKO AZURMENDI

Kids&Us
school of english

Where Natural English happens

Ingelesa urte betik aurrera
Etor zaitez gu ezaqutza!

Gozatu jaiak! Gora San Juanak!

Kids&Us Arrasate - Euzkadi Herria Plazak, 13 - T. 943 051 545 / 656740579 - arrasate@kidsandus.es

Josle
LENTZERIA & MERTZERIA

Ondo ibili!!
Gora sanjuanak!

Otarola Lizentziaduna 21 • Arrasate • Tel.: 943 79 71 30

asegi
AHOLKULARITZA

Otarola Lizentziaduna kalea 4,
solairuartea
Tel.: 943 71 25 49
www.asegim.com / asegim@asegim.com

Aurten bail Gora San Juan jaiak!

TANATORIOA

Guztion zerbitzura
24 orduz

ARRASATE HILETA
BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!
943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com



Mondrateko jokalariei eta entrenatzaileei, aurten Musakolako kiroldegian jokatuako partiduen hutsartean. GOIENA



Mondragon Unibertsitateko emakumezkoak, igoera ospatzen. GOIENA

Aipamen berezia bi talderentzat

Arrasatek Udalak bere aldetik erabakitzen duen aipamen bereziaren saria Ointxe! saskibaloiko klubeko senior mailako neskek eta Arrasate Rugby Taldeak jaso dute. Batak, lehen mailara igotzea lortu duelako, eta besteak, 50 urte bete berri dituelako.

Mondratekoak dira aurtengo kirolari onenak

Halaxe erabaki du Arrasateko Kirol Sarietan botoa eman duen gehiengoak. Kluba sortu zutenetik etengabeko hazkundera erakutsi dute Mondrateren talde nagusiko jokalariei eta arduradunek, eta 110 lagun botoengatik dira 2022ko kirolari onenak

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasate Kirol Sariak banatu zituzten atzo arratsaldean Seber Altube plazan. Herriko kirolari onenaren eta kirol ibilbidearen saria modu irekian nori eman aukeratu ahal izan dute arrasatearrek eta lehia estua egon da kirolari onenaren saria lortzeko, bi hautagaien artean, Mondrateko senior mailako gizonezkoen

taldearen eta Ointxe!-ko senior mailako emakumezkoen taldearen artean, zehazki. Saskibaloiko taldeak -92 boto- baino hamazortzi boto gehiago jaso ditu areto futbolekoak -110 boto-.

Behetik gorako ibilbidea

Ez baita makala Julen Otxandianok zuzentzen dituen mutilek lortu dutena. Hirugarren mai-

lako debutariak izanik, azken jardunaldira arte izan dute mailaz igotzeko kanporaketan sailkatzeko aukera. 2013an sortutako klubak aurrerapauso erraldoiak eman ditu urtero, eta



Kirol Sariketa ekitaldiko irudiak ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

Arrasate Kirol Sarietan parte hartu dutenek jakin dute balentria hori baloratzen.

Maria Jose Gil, beste saritua

Kirol ibilbide onenaren sarirako lehia, osteratzen, ez da horren borrokatua izan, Maria Jose Gil korrikalari beteranoak 272 boto eskuratu baititu, Karmelo Bergaretxe Besaide Mendizale Elkarteko zuzendaritzako kideak eskuratutako 101 botoen aurrean. Gil 1993an hasi zen lasterketetan parte hartzen, 62 urterekin, eta gaur egun ere lehiatzen jarraitzen du. Urte horietan ezin konta ahala garaikur, domina eta errekor lortu ditu. Aurten, urtarrean, Donostian jokatu-tako Euskadiko Masters txapelketan Espainiako 400 metroko errekorra ondu zuen 80F kategorian, bi minutu eta segundo bateko marka eginda.

Hautagaien zerrenda

Kirolari onenaren lehian

- Ander Murua pilotaria, Miren Apraiz atleta, Maria Jose Gil, Ointxeiko senior neskak, Yaman Mjahed borrokalari, Beasain futbol taldeko Mikel Aizpurua eta Igor Gordobil, Mondrate eta Malen Ruiz de Azua.

Kirol ibilbidearen lehian

- Arrasate Eskubaloiko Mariano Arrieta eta Joxean Aranburuzabala, Besaideko Karmelo Bergaretxe, Jon Basurko saskibaloiko entrenatzaileak eta Maria Jose Gil.

Gora sanjuanak!

Adara

ILE-APAINDEGIA

Tel.: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 beheak
adarailespaindegia@gmail.com
Arrasate

Aurten bai! Ondo pasa sanjuanetan!

MILAR

DICI guuk Lowi MÁSMÓV L SIMYO

01arte Kalea, 35 • 943 79 18 86 • ARRASATE

Aurten bai! Gora sanjuanak!

IRIARTE

HORTZ KLINIKA

943 79 69 45 658 19 10 72

Iturrioz, 7, 1. A 20500 Arrasate

www.clinicadentaliriararte.com

Gaztetxoak eta haurrak, oinak astintzeko prest

Kalean hiru urtez dantzatu gabe egon ostean, Dantzari Egunaz gozatuko dute domeka goizean Txikitxu Arrostitz eta Lore Gazteak taldeetako kideek. Beste herri batzuetakoak gonbidatzeko eguna izan ohi da, baina aurten herrikideak bakarrik arituko dira

Hasier Larrea ARRASATE

Sanjuanetako aurreko asteburuan ospatu ohi dute urtero 6 eta 17 urte arteko dantzari eskaintako eguna. Txikitxu Arrostitz taldeko Ana Sanchezek dioenez, aukera polita izan ohi da neska-mutilek inguruko herrietako dantzariekin harremanetzeko. Izan ere, aurreko aldietan, Arrasateko dantzariekin batera irteten ziren plazara kanpokoak, baita elkarrekin bazkaldu ere.

Aurten, baina, nahikoa izango dute Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitzekoek kalea betetzearekin. Izan ere, Arrasateko Dantzari Eguna egin ahalko zutela



Txikitxu Arrostitz taldekoak, asteen Kulturoan entseatzen. H.L.

jakin zutenetik hona ez dute beste inor gonbidatzeko "denbora askorik" eduki. Hala eta guztiz ere, partaideek esku-zabalik hartuko dute eguna, "gogor" entseatzen aritu baitira hitzordurako.

11:00etan egingo dute bat Herriko Plazan, otordutxoarekin indarrak hartu eta segituan jarriko dira erdigunean kalejira egiten. 13:00etan izango da ekitaldi nagusia, Herriko Plazan. Dantzatuko dituzten piezen artean daude aureskua, gorularia, banakoa, binakoa, kaskarota eta makil txikia, eta modu mistoan zein generotan banatuta interpretatuko dituzte. Gehienetan denek batera arituko dira, nagusienek dantzatuko duten "erritmo bereziren" bat salbu.

Arratsaldean, gehiago

Herriko Plazan jarraitu egingo du festak arratsaldean, 19:00etatik aurrera Gauargi erromeriak girotuko baitu gunea. Bikoteak kantu ezagun eta dantzagarriak eskainiko ditu, bertaratzen direnek gorputza mugitu, abestu eta pozez betetako momentuaz goza dezaten.

Kurtso amaierako kontzertua gaur Amaia antzokian

Arrasate Musikaleko kideek ikasturteari agur esateko ohiko ekitaldia egingo dute gaur, ostirala, arratsaldeko sei eta erdietan hasita. Besteak beste, 5 eta 7 urte bitarteko tailer musikaleko ikasleak, hari taldea, talde mistoak, kantuko taldea eta balleteko taldea igoko dira Amaia oholtzara. Emanaldia doakoa izango da ikusleentzat.

Bluesaren adarrekin osatutako kontzertua gaur Kulturaten

Olatz Musika Akademiakoek ere egingo dute ikasturte amaierako kontzertua. 18:00etan hasiko da, Kulturateko areto nagusian, eta bluesetik eratorritako boogie woogiea, rock&rolla, rock-and-rolla eta halako estiloak uztartuko dituzte ikasleek: "Arrasaten indarra hartzen ari dela jakinda, ikasturtean zehar sakon landu dugu bluesa".



SAN JUAN BEZPERA ZUZENEAN

PANTAILA ERRALDOIAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

18:00ETAN HASITA

MAKALAREN IGOERA, ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA, DANBORRADA

BABESLEA:



ARRASATEKO UDALA

goiena
Zu hemen zaude.

Bost minutuan azaltzeko bizipenak

Aramaioko Gazte Asanbladak film laburren lehiaketako oinarriak argitaratu ditu. '22. kilometroa' gai moduan hartuta sortu beharko dituzte ikus-entzunezko lanak, eta uztailaren 3an aurkeztu. Jaiei egitaraua datorren astean argitaratuko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO San Martin jaiei gaitzen direla kontuan hartuta, Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak jailetako film laburren lehiaketako gaia zein izango den argitaratu du. A-2620 errepedeko 22. kilometroa izango da gaia. "Esnahia du, bai. Pandemia garaian biltzen ginen lekua da, horregatik aukeratu dugu errepedeko tarte hori", dio Gazte Asanbladako kide Unai Etxenausiak.

Lanak egiteko baldintzak

Film laburrak sortzeko baldintza bi egoten dira: gaia eta iraupena. Parte-hartzaile guztiek errespetatu beharreko gaiak gain, errespetatu beharreko beste baldintza bat film laburra-
ren iraupena izango da. Bost minutuko iraupena izango duten lanak aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek.

Bakarka zein taldeka parte hartzeko aukera egongo da eta taldekideen kopuruari dagokionez ez dute mugarik jarriko. Ikus-en-

tzunezko lanak USB batean aurkeztu beharko dira, .mov edo .avi formatuetan, uztailaren 3an txosnagunean. "Norbaitek aurrez entregatu nahi badu Gazte Asanbladako jendearekin harremanetan jar dadila", nabarmendu du Etxenausiak.

Jaietako domekan

Uztailaren 1etik 4ra bitartean ospatuko dituzte San Martin jaiei Aramaion. Bada, domekan, uztailaren 3an, eskainiko dituzte film laburrak, Berbapasiaren ondoren.

Sari sinbolikoa

Oraindik zehaztu barik dagoen epaimahai bat arduratuko da sormen lanak ikusi eta balora-


IKUS-ENTZUNEZKO LANAK UZTAILAREN 3AN AURKEZTU BEHARKO DIRA TXOSNAGUNEAN

tzeaz: "Ez da sari ekonomikorik egoten, zerbait sinbolikoa ematen dugu, jai giroan". Izan ere, Etxenausiak nabarmendu du jailetako film laburren lehiaketa kuadrilla giroan egiten dela.

Jendea jailetarako gogotsu da-goela azaldu du. Gazte Asanbladako jailetako egitaraua prestatzen dabil, baina ez eurak bakarrik, bestelako eragileekin koordinatuta ari dira. "Guri dagokigunez, datorren astean argitaratuko dugu sare sozialen bitartez jailetako egitaraua. Oraindik dena zehaztu barik dagoen arren, aurreratu daiteke kaleko eskalada ekitaldi bat egingo dugula Orixol mendizale elkartearekin batera", esan du Etxenausiak.

Ekitaldiak ekitaldi, laster jakingo da zein izango den 2022ko Aramaioko San Martin jailetako egitaraua ofiziala. Herrian ondo errotuta dauden ekintzez harago berritasunek ze leku izango duten jakingo da, normaltasunak berrirori ere kaleak hartuko dituen urtean.

GORA ETA BEHERA



Behiak errepedean trafikoa oztopatzen

Behin baino gehiagotan ikusi behar izan du irudi hori irakurle batek. Kruzeta eta Legutio arteko errepedean, behiak bide erdian. "Ez dakit nondik irteten diren", dio, baina egoera arriskutsuak sor daitezkeela gaineratu du; batez ere, txirrindulariendako.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

San Juan sua eta bestelako ospakizunak Azkoaga auzoan

Eguenetik zapatura arte askotariko ekintzak egingo dituzte: umeendako jolasak, parrillada, afaria...

A.E.G. ARAMAIO

Sanjuanak ospatuko dituzte Azkoaga auzoan, urtero moduan. San Juan egunaren bezperan, ekainaren 23an, haur eta gazteendako jolasak izango dituzte, 19:00etan. Ondoren, ginkana egingo dute, eta 20:30ean, parrilladaren ordua izango da. San Juan sua 22:00etan piztuko dute, eta ekitaldia girotuko dute Sor-gin Kalejira trikitilariak.

San Juan egunean, meza esango dute, 12:00etan. 12:30ean, parrillada egingo dute, trikitilariak girotuta. Arratsaldean,

bestelako jolasak izango dituzte: 17:00etan, umeendako puzgarriak; eta 18:00etan, mus eta briska txapelketak.

Zapatuan, ekainaren 25ean, ardo dastaketa egingo dute Arteaga jatetxeko sommelier Mainer Arteagaren laguntzarekin. Hogei lagunendako lekua egongo da eta izena eman beharko da, 2 euro ordainduta. 21:00etan, auzo afaria izango dute: oilasko-izterrak edo saiheskia aukeratu beharko dira. Izena emateko, deitu 659 73 47 17 telefono zenbakira.

OHARRAK

Adineko pertsonen topaketa

Gorbeialdeko adineko pertsonen 23. topaketa egingo dute uztailaren 8an, Eltziegen.

Mintzalagunak eta gurasolagunak

Gorbeialdeko Mintza Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Izarran. 10:30ean elkartuko dira, plazan, eta askotariko ekintzak egingo dituzte.

Baso aprobetxamendua

Aramaioko Udalak Lurgorri inguruko baso aprobetxamendua besterentzea kontratazio publikora ateratu du. Kontratuaren aurrekontua 55.000 euro da, BEZ gabe.



A-2620 errepedeko 22. kilometroa da aurtengo gaia. A.G.A.



Araba mailako topaketako artxiboko irudi bat. LAS CUATRO TORRES

Arabako erretiratuek hartuko dute frontoia

Bi omenaldi egingo dituzte: batetik, Las Cuatro Torres elkarteak Aramaioko bi erretiratu omenduko ditu; bestalde, Alaiak erretiratuen elkarteak hamabi bazkide zaharrenak omenduko ditu. 16:30ean izango da opari banaketa eta zozketa

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Araba mailako pentsiodunen, erretiratuen eta alargunen elkarteak, Las Cuatro Torres, urteroko topaketa egingo du bihar. Elkarteko bazkide dira Arabako hainbat erretiratu elkarte; tartean, Aramaioko Alaiak. Bada, Araba mailako eskualdeen arteko topaketa izango da. "Badira hiru urte topaketa hau Aramaion antolatzeko lanetan gabiltzala, baina pandemia tarteko ezin izan dugu egin. Badirudi aurten egingo dugula", azaldu du Alaiak erretiratuen elkartearen presidente Migel Loitik.

Bi ospakizun edo ekitaldi batera egingo dituzte bihar: batetik, La Cuatro Torres elkartearen topaketa; eta, bestetik, Alaiak erretiratuen elkartearen bazkideen eguna.

300 lagunendako bazkaria

Araba osotik etorriko diren autobusak 11:00etan iritsiko dira; 11:30ean, ongietorria egingo diete, trikitilariekin. Ondoren,

meza izango dute, 12:00etan, eta frontoira itzuliko dira bazkaltera. 300 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko eta menuaz Sarayola *catering*-a arduratuko da. 16:30ean, opari banaketa eta zozketa izango dute; eta ondoren, dantzaldia.

"Bi omenaldi izango ditugu: batetik, Las Cuatro Torres elkarteak bi pertsona omenduko ditu. Aurten, Aramaioko bi lagun izango dira: emakume bat eta gizon bat. Oraindik ezin dugu izenik esan. Elkartearen alde egindako lanaren eskertza izango da. Bestalde, Alaiak erretiratuen elkarteak lau bazkide zaharrenak omentzen ditu urtero, buztinezko oroigarri bat emanda. Bada, azkeneko bi ur-

teetan ez dugunez horrelakorik egin, aurten hamabi lagun omenduko ditugu", azaldu du Loitik.

Aramaio ezagutzeko aukera

Alaiak elkartearen presidentea: "Arabako gainerako herriekin alderatuta ezberdina da Aramaio. Uste dut aukera ona izango dela adineko pertsonen Aramaio ezagutu dezaten. Herri alaia da, paisaia ezberdina duena, ez du industriarik...". Udaleko Gizarte Ongizate Saileko batzordeburu Cristina Etxenausia: "Oso pozik gaude Arabako jubilatuek Aramaion hartzearekin". Horrelako ekitaldiak antolatzea interesgarria dela gaineratu du.

Erretiratuen egunerokoaz galdetuta, Loitik dio oraindik ere ez dutela lortu pandemia aurreko egoerara itzultzea: "Lehen, beldurra zen, baina, bi urteren ostean, bakardadera ohitu eta harreman sozialak alde batera utzi ditugula uste dut. Gainera, zahartu ere egin gara, eta arazoak gehitu".

ARABATIK ETORRIKO DIREN ERRETIRATUEK ARAMAIO EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUTE

Bertsolaritzaz gozatzeko beste bi aukera gaur eta bihar

Gaur, Aramaioko III. Kopla Txapelketa jokatu dute Dukienan; eta bihar, eskolarteko finala lurretan

A.E.G. ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketa biharamun gozoaren ostean, bertsolaritzak jarraipena izango du oraingo aste bukaeran. Bi ekitaldi egongo dira. Euskal Herriko Eskolarteko Bat-bateko Bertsolari Txapelketako finala jokatu da bihar, zapatua, Iurretan (Bizkaia). Hamabi bertsolari lehiatu dira; tartean, Danel Herrarte aramaiarra.

11:30ean hasiko da saioa; sarrera doan izango da, baina gonbidapenak eskuratu beharko dira *bertsosarrerak.eus* atarian.

Iurretako bertso saioaz gain, Aramaion beste saio bat izango dute aste bukaeran. Gaur, bariakua, Aramaioko III. Kopla Txapelketa izango dute. Bi finalerdi egingo dituzte: lehenengoa 18:30ean parkean izango da eta bigarrena 19:30ean plazan. Finalerako sailkatzen direnek Dukienan jatetxean kantatu beharko dute. Finala 21:00etako afariaren ondoren izango da. Hamalau bertsolari lehiatu dira Kopla Txapelketan; besteak beste, Paula Amilburu eta Danel Herrarte aramaiarrak izango dira.

Organo kontzertua egingo dute gaur San Martin elizan

Ekaineko musika jaialdiaren azkeneko emanaldia egingo dute gaur. Arabako 36. Organo Jaialdiarekin bat egingo du Aramaioko jaialdiak; hala, organo kontzertua egingo dute gaur, 19:00etan, elizan. Santiago Banda organo-jotzailea eta Enrique Abello tronpetajotzailea izango dira musikariak. Aurtengo zikloa amaituko dute gaurkoarekin.

Langabeendako ikastaroa ekainaren 27an hasiko da

Gorbeialdeko Kuadrillak langabeei zuzendutako ikastaroa antolatu du: eginkizun askotariko langilea. 100 orduko ikastaroa izango da eta Legutition egingo dute, ekainaren 27tik uztailaren 20ra, astelehenetik barikura, 09:00etatik 14:30era. Ikastaroa doan izango da. Informazio gehiago eta izen-ematea: 945 43 01 67 telefono zenbakian.



ALEX MENDIKUTE

Eskultura berria Tastañachuetan

Aramaio Herri Eskolako Ostadar taldeko umeek eskultura bat egin eta margotu dute Migel Angel Burgiren laguntzarekin. Eskola ondoan dagoen lur eremuan ipini dute eskultura berria, hango toponimian oinarrituta. Tastañachueta du izena lekuak; hala, eskulturaren bertan ere *Tastañachueta* izena jarri dute, letra larritz.

Santakurtz kaleko zati batzuk zabaltzear daude

Lehen bi faseetako lan gehienak bukatuta daude, eta astelehenean ibilgailuendako irekiko dute Iparragirre kalearen hasieraren eta kuartelaren aurrealdeko erdi-biribilgunearen arteko tartea, Amets tabernaren albotik gorantz sartuta

Mirari Altube ARETXABALETA

Urtarrilean hasi zituzten Santakurtz kalea berrurbanizatzeko lanak aurrera doaz. Erremate batzuk falta badira ere lehen bi faseetako obra gehienak bukatuta daudela jakinarazi dute Udaletik, eta astelehenean, ekainaren 20an, zabalduko dute ibilgailuendako Iparragirre kalearen hasieraren –iparraldea– eta kuartelaren ondoko erdi-biribilgunearen arteko bidea.

Amets taberna dagoen kaletik izango du sarbidea. Zati horretan, zirkulazioaren noranzkoa goranzkoa izango da, Otalora kaletik sartuta, bizilagunen "mugikortasuna ahalbidezteko" eta aparkatzeko aukera izateko.

Hirugarren fasea hastear da

Hornidura eta Saneamendu Plan Bereziaren barruko lanak dira, eta orain, hirugarren faseari ekingo diote: Iparragirre kaletik –iparraldea– Sarasate-raino –hegoaldea–. Zati hori itxita izango da, baina Sarasate hegoaldetik, Expres taberna albotik, beheko zirkulazioaren noranzkoa mantenduko da –Kurtzebarri eskolako eraikinetik Otalora kalera joateko–. Hirugarren faseko lan horiek udazken arte iraungo dute, eta orduan ekingo diete hurrengoari. Laugarrenean helduko diote Expres tabernatik Otalora kale arteko tarteari, eta bosgarrenean, Kurtzebarri eskolako eraikinarene bueltari.

Saneamendu sareak ordezkatu

Santakurtz kaleko lanen ardurak Sasoi Eraikuntzak enpresak du; Aretxabaleako Udalak hari esleitu zizkion, 2.042.500 eurotan. Berrurbanizatzeko duten tartea osoa Kurtzebarri eskolako eraikinetik herriko sarreraren dagoen erdi-biribilguneraino doa –baita Santakurtz alboko kaleak ere– eta bost fasetan banatuta egitea eraba-

ki zuten bizilagunei traba gehiegi ez sortzeko.

Lanon helburu nagusia da hornidura eta saneamendu sareak ordezkatzeko, eta horrekin batera kalea berritzea: argiteria sareak eguneratuko dira led argi

berriak jarrita, telekomunikazio instalazioak aldatu eta hiri-altzari berriak jarri. Espaloiek gutxienez bi metroko zabalera izango dute eta bidegorriak bere ibilbidea jarraituko du erdi-biribilguneraino.



Amets taberna alboko zatia Otaloratik Santakurtzera joateko zabalduko da. UDALA

Ibarrako belarra aldatzeko lanak

Futbol zelaiko belar artifiziala berritzeko lanak uztailaren lehen astean hasiko dituzte. Mondo Iberica enpresa arduratuko da, eta Udalak 188.050 euroko inbertsioa egingo du. Gaur egungo ezaugarriak eutsita, berdegunearen zoladura 6.400 metro koadrotan aldatuko dute. Orain dagoen belarrak hamar urteko bizitza erabilgarria gaintitu du eta segurtasuna bermatzeko aldatu beharra dagoela dio Koldo Zubillaga, Kirol zinegotziak. Lau aste eta erdian lanak bukatzea aurreikusi dute eta denboraldi berrirako gertu izatea futbol zelaia.

Aurretik, ekainaren 23tik 30era bitartean, kirol instalazioaren ureztatze sistema ordezkatzeko dute; jokaleku osora iritsiko diren irismen luzeko sei kanoi berri jarriko dituzte. Riesgo del Norte enpresari esleitu dizkio lanak Udalak, 18.700 eurotan.



Ibarra futbol zelaia. MIRARI ALTUBE

Dantzak, sua eta tantaia San Juan bezpera ospatzeko

Plaza dantzarekin hasiko da ospakizuna eta 2004an jaiotakoek altxatuko duten tantaia-rekin bukatu

M.A. ARETXABALETA

Udako solstizioari ondoetorria egiteko ekitaldiak berreskuratuko dituzte egunean, San Juan bezpera. Leizarra musika eskolako kideek Plaza dantza eskainiko diete bertako dantzariari, gurasoei eta gainerako herritarrei (18:00). Ondoren, kalejiran irtengo dira buruhandiak eta erraldoiak, txistulariek lagun eginda (19:15), eta gero, erromeriari ekingo diote Herriko Plazan, Gabezin taldearekin (20:45).

Gau parteko ekitaldiak dantzariak abiaraziko dituzte; Mitarte kaletik iritsiko dira plaza-kalejiran (22:15), eta sanjuarenetako zortzikoa dantzatzeko dute, eta sua isiotu gero. Itzali-takoan, zezensuzkoa irtengo da.

Tantaia, 2004an jaiotakoek

Bestetik, 2004an jaiotako neska-mutilak –90 inguru, guztira–



Dantzariak suarekin, 2019an. M.A.

goizean goiz joango dira tantaia bila. Eguerdia parterako eroango dute Durana kalera, eta hori zuritu. Sua itzali ostean hasiko dira altxatze lanetan, eta, behin igota, ohitura den legez, gazta eta ardoa banatuko diete elkartutako herritarrei.

Euskaraldiaren berri emango dute eguaztenean

Korrikak Euskaraldiari eman dio lekukoa, eta azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo den dinamika gertatzeko lanetan dagoeneko hasi da batzorde bat. Euskaraldiaren nondik norakoen berri emateko aurkezpen ekitaldia egingo dute eguaztenean, hilaren 22an, Durana kalean (19:00), eta herritarrek bertara zera gonbidatu dituzte.

Aurretik, ekainaren 20an, astelehena, ohiko batzar orokorra egingo du Loramendi euskara elkarteak, udaletxe zaharrean; lehenengo deialdia 18:00etan izango da eta bigarrena, 18:30ean. 2021eko diru-kontuak onartuko dituzte eta egindako proiektuak azaldu, eta ondoren, 2022ko aurreikuspen bat egingo dute, elkartetik adierazi dutenez, diru-kontuak zein egitasmoak aurkeztuta. Bazkide guztiak daude gonbidatuta bertatik bertara jarraitzera.

Kaleak kulturaz betetzeko ekitaldiak aurrera doaz

7x7 kultura kalean ekimenari esker hainbat kontzertu eta ikuskizun izan dira egunotan –argazkian Hutsun + Ortzi konpainia–. Gaur, Leizarra musika eskolako bandaren emanaldia izango da komentuko lorategian, eta eguaztenean, *Grimm anaien parkea* antzezlan eskainiko du Erre Produzioak Kurtzebarriko kantxan; biak, 19:00etan.



Urbasa ikuskizunaren une bat. M.A.

Aretxabaletak ere izango du mendi lasterketa

'Ikazkin trail' izena jarri diote, 21 kilometroko luzera eta 1.130 metroko aldapa izango ditu eta irailaren 10ean jokatu da, Kurtzebarri inguruko parajeetan; UDA dabil antolaketa lanetan, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea

Mirari Altube ARETXABALETAK

Aretxabaleta kirol elkartearen 75. urteurrenarekin batera dator herriko lehenengo mendi lasterketa, eta UDAko zuzendaritza batzordeko hainbat kidek—Julen Ezeiza, Iñaki Ibarrondo, Dorleta Ezeiza eta Ainara Muga—buru-belarri dihardute hori antolatzen azken asteetan.

"Lasterketa hori antolatzeko gogo urteurrenaren aurrekoa da, baina hori hartu dugu aitzakia abian jartzeko", adierazi du Julen Ezeizak, eta gaineratu: "Kurtzebarri mendiak eskaintzen dituen aukerak jakinik, horiek aprobetxatu gura ditugu; izan ere, oso mendi berezia da".



Mikel Alberdi, Ainara Muga, Julen eta Dorleta Ezeiza eta Iñaki Ibarrondo. M. ALTUBE

Ibilbide "polita"

Ikazkin trail izenarekin lanbide hori ekarri gura izan dute gogora: "Ikazkin mordoak egiten zuen sasoi baten ikatza Kurtzebarri inguruko basoetan, eta, ibilbidea paraje horietatik pasatuko denez, istorio horiek bistaratzea da asmoa, eta haien lana goraiatzea".

Zehaztu duten ibilbideak 21 kilometro ditu, eta 1.130 metroko desnibela. "Herriaren bihotzean emango diogu hasiera, oraindik ez dugu zehaztu Durana kalean edo Herriko Plazan". Handik Areantza auzora joango

dira bidegorritik eta Kurtzebarri igo mendi ertzetik; Eloreko Haitzetik pasatu, Kargalekutik Degurixara eta Andarto mendiaren atzealdetik berriro Kurtzebarriko ertzerantz itzuliko dira, handik Urkulura jaisteko eta Aretxabaletan bukatu. "Ibilbideak paraje benetan politak ditu: mendi ertzetik izugarritzko bistak daude bai Urkulura, bai Eskoriatza alde... Eta gero, pagadi berezi batetik pasatuko dira. Degurixak ere badu bere enkantua. Hortaz, kontraste handiko ibilbidea eta zoragarria".

Izena ematen hasita

Irailaren 10ean jokatu da eta izen-emate epea zabaldu berri dute; 300 mendi lasterkarik izango dute tokia. Dagoeneko 30 bat lagunek eman dute izena, eta hamarretik gora direla aretxabaletarrak adierazi dute: "Zaletasuna badago eta hori da garrantzitsua guretzat". Horregatik, lasterketatan ibili ez diren herritarrek ere "probatzera" animatu dituzte.

Urteko bigarren seihilekoaren alde egin dute data aukeratzeko, lasterketa gutxiago da goelakoan: "Abuztu arte mordo

Lasterketaren ezaugarriak

Eguna

• Irailak 10, zapatua.

Luzera eta desnibela

• 21 kilometro.
• 1.130 metro.

Ibilbidea

• Aretxabaleta-Areantza-Kurtzebarri (aristatik)-Elorretako Haitza-Kargaleku-Degurixa-Andarto-Kurtzebarri-Urkulu-Aretxabaleta.

Izen-ematea


• <https://web.rockthesport.com>
• 25 euro.

daude, egutegia beteta dago, eta aukera ikusi genuen irailean egiteko. Bestetik, eguraldiari dagokionez, nahiko segurua izaten da udazkenaren atarian". Izena emateko epea irailaren 3an itxiko dute.

Geratzeko datorren lasterketa

Geratzeko datorren lasterketa da: "Ikusi egin behar zer ematen duen lehenengo honek baina ondo hausnartu dugu, eta jarraipena eman gura diogu", dio Ezeizak, eta gaineratu du: "UDAREN helburua kirola egitea da eta horretarako, zenbat eta aukera gehiago eskaini hobeto. Badakigu zenbat lan eskatzen duen horrek, baina gertu gaude aurre egiteko. Gainera, laguntza handia jasotzen dugu herritarren aldetik, eta oraingoan ere konfiantza dugu haiengan".

Zer deritzozu herrian antolatzeari?



AINARA URRUTIA
MENDI LASTERKARIA

"Pozgarria da herrian bertan antolatzea, Debagoienean zaletasun handia dago eta. Kurtzebarri proposa da, baita Muru ere, eta ni inguru horietan ibiltzen naiz. Irailean ez dakit non egongo naizen, hainbat lasterketa daudelako".



IGOR OLALDE
MENDI LASTERKARIA

"Ibilbidea ondo ezagutzen dut eta oso polita da; ezagutzen ez dutenak izugarritzko bistak topatuko dituzte. Hasten dabilzanendako proposa dela uste dut. Neuk ere nahiko nuke parte hartu, baina ikusi egin behar; ea geratzeko datorren".

Nerabeen aisialdirako hainbat aukera: 'Pool party' eta Udaero

Puzgarriak eta DJ emanaldia izango dituzte 12 eta 16 urte artekoek gaur, Ibarra kiroldegiko igerilekuan

M.A. ARETXABALETAK

Bixi egitasmoak hainbat ekintza eskaini die nerabeei ikasturtean zehar, eta gaur, egubakoitza, agur esango diote horri *Pool party* festarekin. Ibarra kiroldegiko igerilekuan egingo dute,

19:00etatik 21:30era, eta sarrera debalde da; 12 eta 16 urte bitartekoek puzgarriak izango dituzte eta Nemux DJak girotuko du. Nerabeei aisialdiaz modu osasungarrian gozatzeko aukerak eskaintzea du helburu Aretxa-

baletako eta Eskoriatzako udalek antolatutako *Bixi* programak.

Udaero uztailean

Bestetik, Atxagazte gaztelekuak Udaero programa antolatu du uztaileko. Lau irteera iragarri dituzte: Urdaibaira, Mutrikura, Usakora eta mendira. Eta txapelketak ere izango dira: mahai-jolasak eta Gaztekonkis. Izena emateko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 688 84 38 15. Horretarako azken eguna ekainaren 26a da.

Jou Díaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAK

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

Bueltan da Neallta Fola, sarraskirako dei eginaz

Neallta Fola taldeak zuzenekoak alde batera utzita zituen arren, zenbait kontzertu eskaini ditu azkenaldian, eta punk-zaleak zorutzen daude. Bi tabernatan emanaldiak egin ondoren, azkenengo kontzertua Ekinez jaialdian izan zuten, Bergaran

Imanol Beloki ARETXABALETA

Gorka Uriarte *Kanutillo*-k, Karlos Lopez *Karlote*-k eta Gorka Iturbek sortu zuten Neallta Fola Aretxabaletako musika taldea 2005ean. Urte batzuen ostean, bateria-jotzailea aldatu zuten, Gorka Iturbek taldea utzita, eta Ander Moreno *Morenito* batu zen Nealltara. Gaelikoz *nealta* hitzak *lainoa* esan nahi du, eta *fol*a hitzak, berriz, *odola*, baina hitzak elkartuta *sarraski deia* esan nahi du, eta, lozorroan zortzi urte egon ostean, berriro hasi dira eszenatokian garrasi egiten eta punk doinuak uztartuz nortasun propioa duten kantak eskaintzen. Gogoz daude, eta bueltatu direnetik eskaini dituzten hiru emanaldiekin ilusioz daude; batez ere, zaleen erantzuna zein den ikusi ostean.

Bueltatzeko arrazoia

Musika talde guztien moduan hasi zutela beraien ibilbidea adierazi du Neallta Fola taldeko Karlos Lopez musikariak: "Ezinegon bat genuen, eta hirukote formatuan lokalean ordu mordo sartzen hasi ginen, kantuak ateratzen... 2008an grabatu genuen *Iraultza*, gure lehenengo diskoa, eta ordurako zenbait kontzertu genituen eskainita. 2010. urtera arte aritu zen gurekin Gorka Iturbe, bateria jotzen, eta gero, haren ordeztatu zen *Morenito* taldera. Hala ere, 2014. urtearen hasieran, taldea geratu genuen, eta, zortzi urteren ostean, aurten, bueltatzeko pisuzko arrazoi bat aurrean jarrita, berriz hasi gara. Zoritzarrez, Josu Azkarate Ostiada Oi! taldeko musikari elgetarra auto istripu batean hil zen, eta irailean Elgetan bertan egingo den omenaldi kontzertuan parte hartzeko animatu gara, taldea utzi genuen unera bueltatu eta berrekinez. Hori horrela, egunerako prestatuta egoteko zenbait emanaldi eskaini ditugu".



Kanutillo, Karlote eta Morenito Aretxabaletako kuartelean. BEÑAT ABASOLO

IRAILAREN 3AN ELGETAN EGINGO DEN KONTZERTU-OMENALDIRAKO BUELTATU DA TALDEA

Itzulera hobe zina

Irailearen 3an Elgetan egingo den ekitaldia ondo prestatzeko asmoz, Bergarako Arrano tabernan eta Aretxabaletako Kixkor tabernan sorpresaz eskaini dituzte kontzertuak. "Eszenatikietara itzulera modu horretan egin nahi genuen, pixka bat isilpean, publikoarekin berriro elkartzeko, apurka-apurka. Tabernetako eszenatokietatikietako sentsazioa lortu nahi genuen, eta abisatu barik egin genituen kontzertu horiek. Sekulako emanaldiak izan dira, eta horren ostean etorri da Bergarako Ekinez jaialdia. Azken honetan, Bergarako Agorrosin futbol zelaian jarritako oholtzan jotzea izugarria izan zen. Jendetza batu zen, eta bertaratu zirenak gure abestiak kantatzen ikustea eta entzutea bezalakorik ez dago, sekulakoa izan da".

Hori horrela, Neallta Fola taldearen itzulerak hautsak harrotu ditu, eta, beraien musikaren zaleez gain, taldekideak ere ilusioz daude: "Oso gustura gaude izan dugun harrerarekin, gogotsu gaude, eta urte askoren ostean proiektu hau berriro hartzea ilusioz hartu dugu. Gainera, jendearen erantzuna halakoa izanda, ezin dugu gehiagorik eskatu".

Errepertorio aparta

Zinez ezagunak dira Neallta Fola taldearen jarraitzaileen artean *Itxaropen arnasa*, *Putakumea*, *Guda*, *Barneko itzalak* eta *Hunters in Medellin* abestiak, eta diskoko kantuak, bertsioren bat eta kantu berriren bat edo beste eskaini dituztela adierazi du Lopezek: "Aurtengo uda zuzutzea da gure asmoa. Ekainean eta uztaillean kontzertuak ditugu, irailean ere baditugu zenbait emanaldi, eta, urrian bi emanaldi eskaini ostean, geratu egingo dugu udako bira. Hortik aurrera ez dugu asmo zehatzik, baina, aurten lotuta ditugun emanaldiez gain, ez ditugu kontzertu gehiago lotuko. Ikusiko dugu...".

Debarroko pilota txapelketa domekan Iturrigorri frontoian

Gazte mailako Lazpiur eta Barandiaran Aloña Mendiko Etxegaraien eta Regueioren aurka arituko dira

I.B. ARETXABALETA

Domeka honetan, ekainaren 19an, 11:30ean hasita, 73. Debarroko Pilota Txapelketako partidua jokatuko dira Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Kadeteak, gazteak eta nagusiak arituko dira bertan, eta, kategoria horien artean, gazteen sailean izango dira UDA Aretxabaletako pilotariak jokatzeko. Hain zuzen ere, Lazpiur eta Barandiaran izango dira Aretxabaletako pilotari bakarrak; kasu honetan, oñatiarren aurka jokatuco dutenak.

Honako hauek izango dira partidua, mailaz maila: kadeteetan, Soraluzeko Pilota Eskolako Ibarra eta Caramanzana pilotariak Bergarako Ormaetxearen eta Alberdiren aurka arituko dira; gazteen kategorian, aldiz, Oñatiko Aloña-Mendiko taldeko Etxegarai eta Regueiro UDA Aretxabaleta taldeko Lazpiurren eta Barandiaranen aurka; eta, azkenik, Soraluzeko Pilota Eskolako Atxotegi eta Balendi pilotariak, Bergara Pilota Taldeko Etxezarretaren eta Oterminen kontra.

Crespo oroitzuz, Bizir Eguna antolatu dute zapaturako

Mendi irteera, bazkaria eta kontzertuak programatu dituzte haren senideek, lagunak eta gertukoak

I.B. ESKORIATZA

Zapatu honetan, Mikel Crespo-oren omenez antolatutako Bizir Eguna ospatuko da Aretxabaletan. "Aurtengoa bosgarren edizioa izango da, eta, bi urtetan hala moduz antolatu ostean, hasierako modura bueltatu eta berezia izango da zapaturako eguna", adierazi dute Crespo-oren lagunak.

2017ko abuztuan Pirinioetako Balaitus mendian hil zen Mikel Crespo, eta, mendia haren zaletasun handia zenez, hala egingo diote egunari haren senideek,

lagunek eta gertukoak; hau da, mendira igotzen. 09:00etan, Kurtebarrira igoko dira, Mendiola gora. 11:00etan, hamaiketako, Elizabarrin. 13:00etan, triki-potea egingo dute, Urbaltzen hasita, eta 90 lagun inguru batuko dira Taberna-Berrin bazkaltzeko. 18:00etan, elektrotzaranga eskainiko du Upeidek, eta ordu pare batez erdiko kalea giroten arituko dira. 22:00etan, berriz, bertako taldeen apustua eginaz, Tabu, Banana Shake eta Jasan taldeen kontzertuak izango dira Arlutzeko kantxan.

Irati Guenetxea eskalatzaileak zilarra lortu du Espainiakoan

Zailtasun Eskaladako Espainiako Koparen baitan, *Indorwall Torrejon de Ardoz* izeneko lehen proba jokatu zen joan den asteburuan, aipatutako Madrilgo herri horretan, Torrejon de Ardozen. 183 atletak parte hartu zuten txapelketan eta Debagoieneko bi eskalatzaile nabarmendu ziren, bata arrasatearra eta bestea aretxabaletarra: 20 urtez

azpikoen artean Haizea Oses arrasatearra irabazi zuen eta 18 urtez azpikoen taldean Irati Guenetxea aretxabaletarra bigarren postua eskuratu zuen.

Txapelketaren bigarren proba, Indoorwall Vilanova i la Geltru, irailearen 17an eta 18an jokatuco da, eta erabakigarria izango da sailkapenean gora egiteko edo postuari eusteko. Zailtasun Eskaladako Espainiako Kopako azken proba, osterara, urrian izango da, 8an eta 9an, hain zuzen ere, Getafen.



Colectiva Cerezakoein bideokonferentzia. IMANOL BELOKI



Haurrentzako piñatak plazan. I. ROMARETAZABALA

Asteke ekintzen ostean, zapatuan egun handia

Aste Zapatista Eskoriatzan antolatzen den 22. aldia da aurtengoa. Hasierako helburu berak jarraituz egituratu dute aurtengo programa, eta kontzientziak esnatzea, ondo pasatzea eta aniztasunean elkartuz elkar ezagutzea dira zutabe nagusiak

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Astelehenean hasi zituzten EskoZap elkarteko kideek aurtengo Aste Zapatistako ekintzak. Hala ere, egun bat lehenago apaindu zituzten, urtero moduan, herriguneko bazterrak, eta askotariko mezuekin egindako pankartak jarri zituzten hainbat eraikin eta balkoitan, herriarrak kontzientziatzeko asmoz.

Hori horrela, egitarauari hasiera emateko, Xebe Diezen *Euskara, jatorrizko hizkuntza eta sorkuntzaren soinu* izenpean hitzaldia izan zuten. Jende dezente batu zen bertan, eta solasaldi ederra izan zutela adierazi du Iurre Romaretazabalak, EskoZap elkarteko kideak: "Hitzaldia oso interesgarria izan zen. Hamabost lagun inguru batu ginen bertan, eta gauza askoren baitan ikasteko tartea izan genuen. Martitzenean, berriz, bero handia egin zuen, eta ezin izan genituen Jose Arana zaharren egoitzako egoiliarak

paseatzera atera, baina Fernando Eskoriatza plazara eta Gernika plazara joan ziren. Haurrentzako piñatak izan genituen eta Dorleta Kortazar eskoriatzarrak ipuin kontaketa ederra eskaini zuen".

Bideokonferentzia Mexikorekin Asteke ekintzen artean, azpimarratzekoa eguaztenean Zaldibar antzokian egin zuten bideokonferentzia izan zen. "Chiapasko Colectiva Cerezako kideekin bideo-deia egin genuen, bertako errealitatearen gainean gehiago jakiteko asmoz. Colectiva Cerezako kideek kartzelan dauden emakumeekin egiten dute lan; hainbat arrazoiengatik, askotan bidegabeki, espetxean dauden

OIHU TALDEAREN KONTZERTUA IZANGO DA GAUR, INKERNUN, ETA BIHAR JAI EGUN HANDIA IZANGO DUTE

edo egon diren emakumeei laguntzen diete. Kasu askotan, laguntza jaso duten emakume horiek, beraiek ere laguntzen amaitu dutela ere azpimarratu zuten testigantzak eskaini zituztenek. Guztira, 126 emakume atera dituzte kartzelatik, eta ekintza horren gainekoak izan genituen entzungai".

Astebururako gogoz

Gaurko eta zapatuak ere programa bete dute antolatuta. *Beste mundu bat posible* delako urteroko saioa eskainiko du Iurre Romaretazabalak Luis Ezeizan. Horrekin batera, Gaztetxek lehiaketa eta Andoni Altube EskoZap elkarteko kidearen omenez egingo duten aldea izango dira, heriotzaren tabuari aurre egiteko. Gero, Oihu taldearen kontzertua izango da Inkernun, eta zapatuan, bigarren eskuko azoka, bazkari mexikarra, Rosa Sanchezekin poteo musikatua, magia eta tonbola, besteak beste.

2005ean jaiotako eskoriatzarrek piztuko dute San Juan sua

Ekainaren 23an, 22:00etan, tantaia altxatu ostean piztuko dute sua, Fernando Eskoriatza plazan

I.B. ESKORIATZA

Datorren egunean, San Juan bezperan, ekintza ugari izango dira Eskoriatzan. 18:00etan, *Txorimaloaren bila* hitzorduarekin hasiko dira. Plazan elkartu eta txorimaloaren bila joango dira bertaratzen direnak, datorren urterako lore-sendorra prestatzeko. 19:30ean, berriz, buruhandiak aterako dira, haurren gozamenerako.

22:00etan, tantaia jasoko dute 2005ean jaiotako eskoriatzarrek, eta, azken urteotan egin den moduan, Eskoriatzako brigada-

ko udal langileen eta garabiaren laguntza izango dute horretarako. "2005ean jaiotakoak 40 lagun gara, baina tantaia altxatzen 35 pertsona batuko gara. Hala, Bolibarko pinudi batean botako dugu zuhaitza eta azala kenduko diogu, hala, San Juan bezperan, herrira jaisteko", adierazi du Martin Bercibarrek, 2005ean jaiotako eskoriatzarrak. Behin tantaia altxatu ostean, haiek izango dira aurtengo San Juan sua piztuko dutenak. Ondoren, Eskoriatzako txistulariekin erromeria izango da.

Udaero programan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Ekainaren 19an, Eskoriatzako gaztelekuak ateak itxiko ditu irailera arte, baina uztailan, Udaero aisialdi programa eskainiko du. DBH-1eko eta DBH-4ko ikasleei -12-16 urte- zuzendutako ekintzek osatzen dute Udaero udako aisialdi eskaintza, eta, beste edizio batzuetan moduan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarrekin antolatu dute. 12 eta 16 urte artean dituzten guztiek eman ahal dute izena, ekintza bakarrean, bitan edo guztietan.

Izen-ematea zabalik dago ekainaren 26ra arte, eta horretarako bideak honako hauek dira: gaztelekura joanda, edo 688 84 38 21 telefonora deituta.

OHARRAK

Kontzejupe txapelketa

Ekainaren 25ean jokatu da Kontzejupe eskupilota txapelketa. Hori horrela, izena emateko azken eguna ekainaren 22a izango da. Horretarako, Inkernun eskuorria bete beharko da.

Eskoriatzako rallya

Uztailaren 16an Eskoriatzan egingo den rallysprintean komisario lanak egiteko laguntzaile bila ari dira Esko Motor taldekoak. Interesdunek bikotea osatu eta 680 63 86 41 telefono zenbakira deitu edo idatzi dezakete. Izen-abizenak, harremanetarako kontaktua eta nortasun agiri zenbakia eman behar dira.





2006an, Iñurrategi anaiek senitartekoekin egindako azken txondorraren irudi bat. JOSE LUIS GAMARRA



1997an, Jausoro baserrikoak txondorra egiten. JOSE LUIS GAMARRA

Ikus-entzunezkoan jasota

1997an, duela 25 urte, egin zuten azkenengoz txondorra Bolibarko Jausoro baserrikoek. Iñurrategi anaiek diotenez, "txondorra egiten zekiten senitartekoekin". Irudia da txondorraren prozesua jasota dagoen bi orduko ikus-entzunezkoaren fotograma bat.

Txondorra egiteko asmoz, garai batean egiten zirenak gogoan

Miren Diaz de Gereñu eskoriatzarrak, Bolibarren txondor-zulo ugari zeudela jabetuta, ikerketa jarri du martxan. Besteak beste, duela 25 urte jausorotarrek egindako txondor baten prozesua azaltzen duen ikus-entzunezkoarekin egin du topo

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Udal artxiboak, dokumentuak eta bestelakoak batuta, txondorra egiteko proposamenarekin jo du Miren Diaz de Gereñuk Eskoriatzako Udalera, baina eskaera ez dela aurrera atera adierazi du eskoriatzarrak: "Bolibar elizateko zenbait lagunekin elkartu nintzen: Antonio Izurrategirekin, Ataiuena, Karoi eta Jausoro baserrikoekin... eta haiekin hainbat bilera eta haika solasaldi egin nituen. Haiek eta Leintz Gatzagako zenbait lagunek txondor bat egiteko babesa adierazi zidaten, baina egitasmoak ez zuen indarrik izan, nahiz eta txondorra egiteko lekua zehaztuta genuen. Gainera, txondor bat egiteak ordu asko eskatzen ditu, zaindu egin behar da... Hala ere, horren bueltan, Iñaki Iñurrategik esan zidan haren aitak eta familiakoek

1997an egin zuten txondorraren bi orduko ikus-entzunezko bat zuela. Irudiek ez dute kalitate onik, baina txondor bat egiteko prozesu guztia agertzen da. Interesgarria izan da orduko irudiak eta argazkiak ikustea, eta, are gehiago, garai hartako istorioak entzutea...".

Jakintza, ezinbestekoa

Jausorotarrek diotenez, 1997an egin zuten azken txondorra. Hala ere, 2006an beste saiakera bat egin zuten. "Nire osaba eta aita falta ziren 2006an, eta, nahi-ko ondo atera zitzaigun arren,

TXONDORRAK EGITEKO BI MODU ZEUDEN: BASERRITARRENA ETA KANPOTIK ETORRITAKOENA

ofizialki, behar den moduan haiekin batera egin genuen, duela 25 urte. Txondorra egur sendoeekin hasten da egiten, horiek pilatuz, eta amaieran, egur meheekin ondo ixten da. Zenbat eta egur txiki gehiago jarri, hobeto. Gero, lurrarekin tapatzen da, haizerik ez sartzeko, eta tximinia uzten da goian, su emateko. Sekretua sua ondo piztea da, eta ondo mantentzea. Gu laguntzen aritzen ginen, eta gaur egun ez dakit txondor bat egiteko gai izango ginen. Hala ere, gustura ikusiko nuke bat, eta, laguntzeko ere gertu egongo nintzateke", esan du Luis Iñurrategik, Jausoro baserrikoak.

Txondor motak

Diaz de Gereñuk dioenez, duela urte asko, bi mota zeuden txondorrek egiteko: "Basoak ustiatzeko bi modu zeudela kontura-



Iñaki Iñurrategi, Jose Ramon Gamarra eta Luis Iñurrategi. I. BELOKI

Tresneria, ondo gordeta

Txondorra egiteko erabiltzen ziren tresnak ere gordeta dituzte Iñurrategi anaiek. Egurra pilatu eta eramatekoa, atakatzekoa –sua txondorraren barrenearaino sartzekoa– belaukia –txondorrean lurra jartzekoa– eta isuzkia –lurra lisatzeko erratza–, besteak beste.

tu naiz. Batetik, baserritarren modua, urtean behin egiten zutena, eta, bestetik, kanpotik etorritakoek, lanbide gisa, urte osoan horretan jarduten zuten modua. Azken hauei soilik ezin zaie erru guztia bota, baina XVIII. mendean etengabe mozten ziren enborrak: sutondorako, etxeak egiteko... Alegia, deskalabru hutsa izaten ari zen, ia baso gabe geratu ginen eta. Hala, arautu egin zen, eta pago-motz teknika erabiltzen hasi zen: al- tuera batera mozten ziren pagoak, hortik adarrak irteteko".

Jausorotarrak izan ziren hemengo baserritarren erara txondorra egiten zuten azkenak, eta Emilia Some eta Florencio Garcia izan ziren, kanpotik etorritak, familia moduan, lursailak beste modu batean esplotatzen zituztenak. Gero, industrializazioarekin, txondorra egiteko ohitura desagertzen joan zen. Hala ere, Eskoriatza ingurueta-ko ikatza Cerrajerara eta Aju-riara eramaten zituzten. Ajuria Araiako galdaketa handi bat izan zen, oraindik aztarnak ikus daitezke bertan".



Gorka Elkorobarrutia jauzia egiten. ARGAZKIAK: GORKA ELKOROBARRUTIA



Podiumean, ezkerrean, Elkorobarrutia.

Espainiakoan eta Euskal Herrikoan zilarra

Kadete mailan, enduroko Espainiako Kopan eta Euskal Herriko DH Txapelketan, bietan, hurrenez hurren, zilarrezko domina eskuratu du Gorka Elkorobarrutiak, 15 urteko 'ryder'-ak. Lorpen horiekin "pozik", erronka berriei begira dago

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Gorka Elkorobarrutia *ryder* eskoriatzarrak denboraldi aparta egin du; izan ere, enduroko Espainiako Kopako sailkapen orokorrean bigarren postuan sailkatu da, kadete mailan, eta postu bera lortu du Euskal Herriko DH Txapelketan. "Oso pozik nago lortutako emaitzarekin. Espainiakoan lau lasterketa izan dira eta Euskal Herrikoan, berriz, bi proba ziren arren, bietako bat bertan behera geratu zen, eta bakarrean erabaki da. Bi txapelketetan zilarra lortu dut, eta, nire lehenengo urtea izanda, erronka berriei aurre egiteko indarra eman didate lorpen hauek".

Azken proban arazoak Espainiako Txapelketan lau lasterketa izan ditu aurretik Elkorobarrutiak. Lehenengo lasterketa Ciudad Realen izan zen, Cabezarubias del Puerto herrian; bigarrena, Galizian, Moaña herrian; hirugarrena ere Galizian, Mugardos herrian; eta azkena eta laugarrena, joan den asteburuan izan zena, Huescan, Castejon de Sos herrian. Lehenengo hiru lasterketetan podiumera igo zen eskoriatzar gaztea, baina azkenengo lasterketan, berriz, bizikletaren balaztaren heldulekua apurtu, eta ezin izan zuen lasterketa bukatu. Hala ere, sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu

tuta pozik agertu da Elkorobarrutia. Euskal Herrikoan, aldiz, Barakaldon egindako proban ere lan ona egin zuen duela bi asteko lasterketan.

Erronka berriak "Duela urte eta erdi hasi nintzen bizikletarekin lehiatzen, eta ahal dudana txapelketa guztietan ari-tuko naiz. Batetik, Bucardo Enduro Bike txapelketa hasiko da uztailan, eta azarora arte iraungo du. Horrekin batera, urrian Espainiako Txapelketa jokatu da La Adradan (Avila), eta bi horietara joateko asmoz nago. Gero, ikusiko dugu... Ea bietan lan ona egiten dudana eta podiumera igotzen naizen".

Brontzea Espainiakoan

Senior mailako Espainiako MMA (arte martzial mistoen diziplina) txapelketa jokatu zen hilaren 11n Madrilen, eta Leire Rato Atama Eskoriatza Taldeko borrokalaria hirugarren sailkatu zen. Emaitza aparta lortzeaz gain, Atamako bi borrokalariren babesa ere izan zuen; izan ere, Juan Antonio Garcia eta Ion Garcia taldekideak ezustean agertu ziren bertan.



JUAN ANTONIO GARCIA

LEINTZ GATZAGA 21



Iaz gatzagarrek egindako San Juan sua. GARAZI OROBENGOA

Bola-joko txapelketan berotu ostean piztuko dute sua

San Juan bezperan, Toki-ederrekoek antolatzen duten bola-joko txapelketaren hirugarren edizioa izango da

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA San Juan bezperan, sua piztuko dute gatzagarrek, 22:30ean, San Migel plazan, baina horren aurretik ere izango dituzte zenbait ekintza. Hasteko, III. bola-joko txapelketa jokatu dute, 17:30ean, bolatokian. Toki-eder erretiratuaren elkartekoak arduratu dira antolaketa lanez, eta 30 lagun inguru batuko direla aurreikusten dute: "Pandemia urtean kale egin arren, San Juan bezpera egunean bi urtetan egin dugu bola-joko txapelketa eta aurten ere animatu gara antolatzerara. Hiru kategoria izango dira: haurrak, erretiratuak eta gainontzekoak", adierazi du Eusebio Villarek, Toki-eder elkarteko kidea. "Gipuzkoako bola-joko txapelketa maiatzaren 10an jokatu zen, eta, beraz, ordutik prest dugu bolatokia. Asteon bertan izan gara, eta ez dugu eremua txukundu beharrik izan.

Ea jendea animatzen den parte hartzera...".

Bola-jokoa amaitzean, Leire Moñux bergararrak kontzertu akustikoa egingo du, 19:30ean, plazan. "Indai taldeko kidea da Leire Moñux, eta egon izan da taldean kontzertua ematen. Hala ere, oraingoan, hura bakarrik ari-tuko da, era akustikoan, bertsioak egiten", adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak. Emanaldia amaitzean, mokadutxoak izango da, 21:00etan, eta 22:30ean piztuko dute San Juan sua.

Sua pizteko egurra gertu dago San Juan sua pizteko erdigunean atonduko dute txokoa eta, egurrak gertu dituztela adierazi du Agirreurretak: "Xabi Jausorok zuhaitzak kimatzean batutako adarrak eta adaxkak gordeta ditugu, eta horiek erabiliko ditugu San Juan sua pizteko".

Eskaera bakarra Gaztainuzketa mendi-etxeak alokatzeko

Gatzagako Udalaren Gaztainuzketa apartamentu turistikoaren ustiapenerako lizitazio deialdia ekainaren 7an amaitu zen. Aurreikuspen onak zituzten hasieran; izan ere, mendi-etxeak alokatzeko baldintzetan zenbait aldaketa egin zituzten eta interesdunak hurbildu zitzaizkiela adierazi zuten udal ordezkariak. Hala ere, epearen

barruan, proposamen bakarra aurkeztu dutela adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Mendi zinegotziak: "Pertsona bakarrak aurkeztu digu alokatzeko proposamena, eta aurkeztu digun dokumentazio guztia aztertzen ari gara. Hori horrela, ekainaren 23an osoko bilkura egingo dugu udal ordezkariok, eta bertan erabakiko dugu hari esleituko diogun ala ez. Dena ondo bidean, pertsona berri bat izango dugu mendi-etxeen zerbitzua kudeatzen".



Katzalin elkarteko kideak Antzuolako Eguneko Zentroko egoiliarrekin. BEATRIZ GUEL BENZU

Katxalinekoen bisita Eguneko Zentroan

Minbizia izan eta gairitu dutenen istorioak ezagutzeko aukera bertatik bertara izan dute Antzuolako Eguneko Zentroko egoiliarrek. Modu oso natural eta aberasgarrian bizi izan dutela diote. Udal ordekarri gisa Beñardo Kortabarria alkatea egon da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Katzalin elkarteko kideak Antzuolako Eguneko Zentroko egoiliarrekin izan berri dira. Zentroko zuzendari Bea Guelbenzuek bisita zoragarria izan zela aitortu du. "Elkarteko kideak primerakoak dira. Bizi izandako egoera latza ikuspegi objektibo batetik kontatzen dute, oso modu naturalean, positiboan zein errealean. Bizitasuna transmititu diete eguneko zentroko egoiliarrei eta bertan lan egiten dugun guztioi. Egia esan, itzela izan da euren bizipenak bertatik bertara jasotzea", gaineratu du Guelbenzuek.

Istoria propioak

Bea Guelbenzuek kontatu du egoiliarren artean ere badirela minbizia gairitu dutenak, eta bizipenak partekatu dituztela. "Oso hunkigarria izan da ikustea nola partekatu dituzten euren istorio pertsonalak. Gaixotasuna gairitu izana eta egunerokoa nola bizi duten gaur

egun, hori modu oso naturalean kontatu dute; oso polita izan da. Min bortitz hori eta bizipena nola kanalizatu duten ikustea ikaragarria izan da; babes taldea zentroan topatu dutela ere badioten egoiliarrek".

Opari eta guzti

Katzalin elkartekoak ez dira, gainera, esku hutsik etorri. Hala, eurek jositako eta egindako zorrotoak oparitu dizkietela kontatu du zuzendariak: "Aulkian eskegita jartzeko zorrotoak ekarri dizkiete. Hala, zorroto horietan betaurrekoak zein karpeta bat ere sartzeko aukera dute esertzerakoan. Egoiliar bakoitzari bana eman diote opari; asko gustatu zaie, oso prak-

GAIXOTASUNA GAINDITU IZANA ETA EGUNEROKOA NOLA BIZI DUTEN KONTATU DUTE KATXALINEKOEK

tikoa da-eta. Horrez gain, bihotz formako bi kuxin ere ekarri dizkigute. Kuxin horiek, zehazki, haiek erabiltzen dituzte besapean jartzeko eta besoa bularraldetik babesteko. Helburua da errehabilitazioa egiten ari direnean bularra eta besoa bantzea. Guretzako oso baliagarria da, gainera, euskarri gisa ere erabiltzen dute-eta egoiliarrek".

Formazio saioa

Era berean, Katxalineko minbiaren diagnosi bat haurrei nola kontatu behar zaien jasotzen duen ipuin bat ere badauka egin; eta Eguneko Zentroaren asmoa da, hain justu ere, ipuin hori egoiliarren artean partekatea laster. "Katxalinekoak etorririko dira berriro, eta ipuin hori kontatuko digute; hala, egoiliarren baten alaba edo tarte bati gertutik tokatuz gero, egoerari aurre egiteko baliabideak izango lituzke, bereziki haurrak dauden familietan".

OHARRAK

Anelkarren elkartasuna

Anelkarrek Kalebarrengo jaietan elkartasun ekimena egingo du 19:30ean. Hala, ekainaren 24rako, herritarrei tortilla gertatzeko eta festan parte hartzeko dei egin die. Batzen den dirua Afrikako proiektuetara bideratuko dute.

San Juan bezpera

Ekainaren 23an, eguna, ekitaldia egingo dute Herriko Plazan, iluntzean. Hain zuzen, arbola jaso eta sua piztuko dute. Era berean, kanpotik etorri direnei harrera egingo diete eta afaltzeko mahaiak jarriko dituzte plazan bertan.

Corpusak Ondarren

Domekan, Corpusak Ondarre auzoan. 11:45ean, meza; ondoren, prozesioa, dantzariak eta salda.

Landatxope

Balmasedako irteeran izena emateko aukera hilaren 21ean eta 22an dute erretiratuek -16:00etik 18:00etara-. Baita botikak ordaintzeko dirulaguntza fitxak egiteko aukera ere.

Asteburuan hainbat kaletako zirkulazioa moztu egingo dute

Asteburuan bi txirrindulari-proba egingo dira Antzuolan, eta horrek eragina izango du herriko zirkulazioan. Hala, bihar, alebin eta infantil mailetak lasterketak egingo dira, Aiausti taldeak antolatuta, 15:45etik 17:30era, eta, hain zuzen, plaza, Buztinzuri, Sagasti osoa eta Kalebarren itxita egongo dira ibilgailuentzat. Abisu horrekin

batera, Antzuolako Udalak herritarrei eskatu nahi die autoak garajeetan sartzeko; modu horretan, kanpotik datozen taldeendako aparkatzeko tokia egon dadin.

Domekan, Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketa egingo dute Bergarako San Antonio auzoan. Ondorioz, Bergarako San Antonio eta Antzuolako Zupideko biribilgunearen arteko bidea guztiz itxita egongo da ibilgailu guztientzat 16:50etik 18:10era.

GORA ETA BEHERA



Arrapalako argiteria-sistema eten dute

Ez da hilabete bete hilerri ingurua eta Torresorua lotzen duen egurrezko pasabidean argia jarri zutela. Baita arrapala argiztatzeko argiteria-sistema martxan ipini zela ere. Baina asteon, norbaitek kableari tira egin eta argiteria-sistema eten egin du. Horrelako jarrerak kaltetzen dituztela salatu dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07



SANJUANAK 2022



**Dantzak, sua
eta parranda,
gaurik luzeenean**



Goiena eta ETB elkarlanean San Juan bezperako ekitaldietan · Jantzi berriak umeen danborradan

· Su Ta Gar eta Anari, askotariko musika eskaintzaren artean · Entzierroa ere bueltan da · Izpi laruz dator eguzkia

IMANOL SORIANO



**Aurten bai!
Ondo ibili jaietan!**



Arrasate Pasealekua, 15
20500 Arrasate
943 79 95 60
www.adurklinika.com

EGUBAKOITZA, 17

19:00 Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako KONTZERTUA.

19:00 Goikobalurekin KALE KANTUA erdiguneko kaleetan zehar.

19:30 HERRIXA DANTZAN Bat Bitan eta Patxi Monterorekin Biteri plazan Portaloi elkarteak antolatuta.

21:30 EUSKAL KANTUEN GAUA Herriko Plazan SEI PISTOLS ETA TRABUKO BAT taldearekin.

ZAPATUA 18

09:00 Seber Altube plazan hileroko III. larunbateko baseritarren azoka.

19:00 HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta. Ibilbidea: Biteri plaza, Zerkaosteta, Garibai etorbidea, Maalako Errabala, Erdiko kalea, Herriko Plaza.

DOMEKA 19

ARRASATEKO DANTZARI EGUNA

11:00 HERRIKO PLAZAN batuko dira haurrak.

11:30 Herriko hainbat txokotan KALEJIRA.

13:00 Haur guztien dantza emanaldia HERRIKO PLAZAN.

19:00 Herriko Plazan DANTZALDIA GAUARGIrekin.

MARTITZENA 21

19:00 Kultureteko areto nagusian 35. Arrasate Literatur Lehiaketan sari banaketa ekitaldia, AEDK antolatuta.

JAIETAKO EGITARAUA

EGUENA 23

SAN JUAN BEZPERA

SAN JUAN JAIK VII. ARGAZKI LEHIAKETA jaietan zehar. Artgazki elkarteak antolatuta. Oinarriak: www.artgazki.org.

12:00 Txosna Batzordeak antolatuta, TXUPINAZOA. Ondoren, triki-poteoa.

14:30 Herri BAZKARIA Uarkape pilotalekuan. Txosna Batzordeak antolatuta.

16:30 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik.

17:00 Seber Altube plazan ZIRIKA ZIRKUS taldearen AURKITU GABEKO ALT XORRA izeneko haurrentzako emanaldia.

17:00 TXOPO-POTEOA IZENBARIKUAK txarangaren laguntzarekin.

18:00 Herriko Plazan MAKALA jasotzea.

19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren SALBE SOLEMNEA.

21:00 ERREMENTARI DANTZA: Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

23:00 KONTZERTUA txosnagunean Las Clitorixxx, Añube eta Banana Shake taldeekin.

23:15 Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA, SUDCek antolatuta.



Musakolako danbor konpainia 2019ko sanjuanetako danborradan. I.S.

00:00 Autodefensa feministaz armatuta gaude lelopean, MANIFESTAZIOA TXOSNAGUNEAN hasita.

EGUBAKOITZA 24

SAN JUAN EGUNA

08:00 SOKASALTO GAUPASERUA, Txosna Batzordeak antolatuta.

08:30 DIANA, ARRASATEKO GAITEROEKIN.

08:30 Karro-poteoa, Txosna Batzordeak antolatuta.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Jose Maria Arizmendiari plaza. Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko Erraldioen eta

Oharrak

- Zeuk eñ zeuk jan bazkarirako izen ematea 18ra arte egin daiteke, Arrasateko Udalaren webgunean: www. arrasate.eus.
- Jose Maria Arizmendiari plaza kokatuko den zezen-plazaren edukiera 1.400 lagunekoa da.
- Zezen ikuskizunei buruzko araudia onartzen duen 183/2008 dekretuaren arabera, 16 urte baino gutxiagoko adingabekoek ezingo dute tradiziozko toreo ikuskizunetan parte hartu, soilik ikusle gisa joan ahal izango dira.

Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA. 11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsarekin eta gaiteroekin.

12:15 Herriko Plazan ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa.

12:30 Etxaluzen (Abaroa) OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN.

Egitaraua:

- Bultza ta bultza. J.R. Vitoria
- Europa Mars. R. Allmend
- La italiana en Argel. G. Rossinni
- Flashing winds. Jan Van Der Roost
- Ezpata Dantza Amaya. J. Guridi
- Arrasate Musikal Ereserkia. J. Arzamendi
- Frank Sinatra Medley. Arr. N.Iwail

Zuzendaria: Mikel Markiegi.

17:00 AZOKA txosnagunean.

19:30 ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA zezen-plazan.

19:30 KALEJIRA erdiguneko kaleetan zehar GARIN BAND taldearekin.

20:00 Seber Altube plazan TRAPU ZAHARRA taldearen *POR HACER UN FAVOR* antzezlan.

20:00 Bea Egizabalen *Magma mia* BAKARRIZKETA txosnagunean, Emakume Txokoak antolatuta.

20:30 Herriko plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

21:00 Txosnagunean kontzertua: NHIL.



San Andres Auzoa 10-D
Tel.: 943 77 30 10

Ondo pasau
jaiak!



0 KM-ko aukera
aproposa!



Makala eroaten 2019ko sanjuanen hasieran. AIMANOL SORIANO

23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIALAK, Vulcano pirotekniaren eskutik.

23:50 Monterron parkean NEOMAK taldearen KONTZERTUA.

23:15 Herriko Plazan OXABlrekin ERROMERIA.

01:00 DJ TA\$AUND SYSTEM txosnagunean.

ZAPATUA 25

HAURREN ETA GAZTETXOEN EGUNA

08:30 DIANA Arrasateko gaitariekin.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea; gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

11:00 JOLAS PARKEAK Biteri plazan eta Monterronen.

12:00 KARAOKEA Biterin.

12:00 Azokan *Zeuk iñ zeuk jan* BAZKARIAren prestaketa.

12:30 BERTSO JAIALDIA Seber Altube plazan, AEDk antolatuta. Partaideak: Ane Zuazubiskar, Jone Uria, Xabi Igoa eta Xabat Ilarregi. Gai jartzaileak; Olatz Zuazubiskar eta Maria Oses.

12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolarekin KALEJIRA.

12:30 EGUZKILARUren ongietorria eta makal txikiaren igoera Biteri plazan.

13:00 APAR FESTA Biterin.

13:00 HERRI KALEJIRA txistulariekin.

13:00 MARIANITUA *pintxada kolektibuarekin* txosnagunean.

14:30 *Zeuk iñ zeuk jan* kuadrillen arteko HERRI BAZKARIA Azoka plazan. Udalak kupel bat sagardo jarriko du parte hartzaileentzat.

16:30 GAZTELARU jolas parkea eta ekintzak 12-16 urte bitartekoentzako Biteri plazan.

17:00 Txosna Batzordeak antolatuta poteo girotua.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA –8-15 urte–, eta ondoren, gaztetxo guztientzako zezentxoak eta poneyak. Antolatzailea: Bergarako Zezenak.

19:00 PIRITIX, PORROTX eta MARIMOTOTSen *Kuikui* ikuskizuna Monterronen.

20:00 Kalejira MEXICO LINDO, SI SEÑOR taldearekin.

22:00 KONTZERTUA txosnagunean: Etxepe&Fane, Tatta&Mutiko&Denso, Merina Gris eta Su Ta Gar.

22:30 Herriko Plazan MEXICO LINDO, SI SEÑOR taldearen KONTZERTUA.

DOMEKA 26

08:00 Txosna Batzordeak antolatuta, SOKASALTO GAUPASERUA.

08:30 DIANA Arrasateko gaitariekin.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea; gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

11:00 Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

12:00 Herriko Plazan EUSKO LABELEKO PRODUKTUAK DASTATZEA Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA –8-15 urte–, eta ondoren, gaztetxo guztientzako zezentxoak eta poneyak. Antolatzailea: Bergarako Zezenak.

19:00 Seber Altube plazan Lore Gazteak taldearen DANTZA EMANALDIA.

20:00 KONTZERTUA Herriko Plazan: ANARI.



Argazkian, Nhil taldea. Egubakoitzean, 24an, txosnagunean izango dira. I.S.

Txosna Batzordearen egitaraua

Arrasateko Bilgune Feminista, Ikasle Abertzaleak, AEDko Ttak! gazte taldea, Euskal Herrian Euskaraz, Gazte Koordinadora Sozialista eta Askapena daude Arrasateko Txosna Batzordean.

- EGUENA 23**
- **12:00** TZUPINAZOA txosnagunean.
 - **12:30** TRIKI-POTEOA.
 - **14:30** HERRI BAZKARIA. Tikitak salgai Iratin, Taupan, Jaizalen eta Osoriken, ekainaren 3tik aurrera.
 - **17:00** TXOPO-POTEOA Izenbarikuak txarangarekin.
 - **18:00** MAKALAREN IGOERA plazan.
 - **23:00** KONTZERTUAK txosnagunean: Las Klitorixx, Añube eta Banana Shake.
 - **24:00** MANIFESTAZIOA, txosnagunetik abiatuta. Leloa: *Autodefentsa transfeministaz armatuta gaude*.

- EGUBAKOITZA 24**
- **08:00** SOKASALTO Gaupasera.
 - **08:30** KARRO-POTEOA.
 - **17:30** AZOKA.
 - **19:00** Azken ostirala dela eta, MANIFESTAZIOA, Sarek deituta, txosnagunetik abiatuta. Leloa: *Izan etxerako bidea*.

- **20:00** BAKARRIZKETA, Bea Egizabalen eskutik: *Magma mia*. Emakume Txokoarekin elkarlanean.
- **21:00** KONTZERTUA txosnagunean: Nhil.
- **01:00** DJ Tasaund System.

- ZAPATUA 25**
- **12:30** BERTSO SAIOA Seber Altuben. Bertsolariak: Ane Zuazubiskar, Xabi Igoa, Jone Uria eta Xabat Ilarregi. Gai jartzaileak: Maria Oses eta Olatz Zuazubiskar. AEDk antolatuta.
 - **13:00** MARIANITOA *pintxada kolektiboarekin*.
 - **14:00** ZEUK IN ZEUK JAN.
 - **17:30** POTEIO girotua.
 - **22:00** KONTZERTUAK txosnagunean: Etxepare & Fane, Tatta & Mutiko & Denso, Merina Gris eta Su Ta Gar.

- DOMEKA 26**
- **08:00** SOKASALTO Gaupasera.
 - **08:30** Izenbarikuak TXARANGA.

Jai herrikoi,
parte hartzaile eta
parekideen alde

GOZATU
SANJUANAK!



Beñat Alberdi Igartua ARRASATE

Hasi, 2019ko urrian hasi ziren danborradarako janzkera berriak prestatzen. Nekez aurreikus zitekeen orduan pandemiak astinduko zuela gizartea. Bi urte igaro eta gero, bihar, arratsaldeko zazpitan, kalera aterako dituzte Amaia Albes diseinatzaileraren eta Natalia Garcíaren lanak. Helduak ere antzeko ez daude gora begira jaietarako astebete faltan.

"Trajeek 30 urte baino gehiago dituzte, eta horiek berriitu beharra zegoen", esan zion Amaia Albesei GOIENARI 2020an lana bukatu berrikan egindako elkarriketan. Telak jasandako desgastea ez ezik, estiloa ere kontuan hartzekoa zen. Izan ere, modak hamaika aldaketa izan ditu azken hiru hamarkadetan. "Danborrada eguneratu egin behar zela ikusten zen, eta diseinua egokitu gaurko beharretara". Antzeko mintzatu da Mari Carmen Alves SUDCeko kidea jantziak aurkezteko astean egindako prentsaurrekoan: "Argi geneukan irizpideek izan behar zutela Arrasateko identitatea kontuan eduki, generoa ere bai, eta danborradaren gaurkotasuna; lehengoa polita zen, baina orain da gurea, gaurkoa".

Erronka finkatu eta elkarte gastronomikoen elkartearekin hasi zuen traje berriak diseinatzeko bidea, duela hiru urteko urrian, Udalaren dirulaguntza bidelagun. "Arrasatear gehienok



Mari Carmen Albes eta Juan Luis Arkauz –SUDCeko kideak– eta Maria Ubarretxena alkatea aurkezpenean. ARRASATEKO UDALA

Danbor soinuak, jantzi berriekin

Azkenean, estreinatuko dituzte haurren danborradan jantzi berriak, bi urte atzeratu eta gero. Helduen danborradakoak azken prestaketetan dabilta datorren asterako

parte hartu dute inoiz danborradan. Baita nik ere. Hortaz, bi aldeen ilusio horrekin jokatu dugu diseinuak egiteko orduan".

Berrikuntzak, ordea, jantzi berriak izatera mugatu behar zuen; hau da, danborradaren esentzia mantendu behar zuten. "Berritu egin ditugu, baina kanoa mantenduz". Horretarako, antolatzaileen laguntza beharrezkoa izan zela nabarmendu zuen diseinatzailerak. SUDCekoentzat garrantzitsua izan dela zehaztu du Juan Luis Arkauzek, elkarte zuzendariak. "Zahartuta zeuden, berriak behar ziren".

Genero diferentziak jomugan

Oihal urdin, berde, beltz eta moreak erabili dituzte txaketak egiteko. Prakak zuriak izango dira. Berrikuntzetako bat da haur danborradako kide guztiek prakak erabiliko dituztela eta gonak kenduko dituztela. Mutilen eta nesken jantzien artean diferentziarik ez egotea izan da erabaki horren ardatza. Zaldian doazen neskek gona daramatela begiz jo zuten, esaterako, eta sortzen duen ezerosotasuna kontuan hartu zuten.

Diseinu egin eta gero, umeentzako behar bezalakoak prestatu behar izan dituzte eta Natalia García jostuna aritu da lan horretan. "Prototipoak egin genituen, hezur-haragizko modelo izan genituen, neurriak ondo zehaztu ahal izateko. Umeei probatu genizkien trajeak, aha-

HITZEZ GOZATU JAIK, EUSKARAREN GARAIAN.



arrasate
euskaldun
dezagun

txatxilipurdi





Julissa Payanara, aurtengo haur danborradako parte hartzailea, traje berria jantzita. SUDC

lik eta erosoan sentitzeko. Eder-to pasa genuen".

Hilabeteetako lanaren emaitza

Haur danborradan parte hartzen duten bi konpainiarendako egingo dituzte arropak. Guztira, 58 traje: 26na konpainia bakoitzarendako, zuzendariendako bana eta zaldi gainean doazenendako beste lau. Oraindik ez dute traje berriekin bukatu, dena den, konpainiaka jantziak berritzen joateko asmoa dutela esan du Maria Ubarretxena alkateak prentsaurrekoan.

Bada denbora esku artean dauzkatela diseinuok etxeko txikiek. Ia-ia hegan egin zutela argitu du SUDCeko zuzendariak: "Lehenengo apuntatu zirenek eraman zituzten. Jada ez dago trajerik libre". Bi konpainiatan banatuko dira, eta nork bere jantzia eramango du; berdea bata eta urdina besteak. Konpainietako zuzendariak SUDCen logoa daraman kapela eramango dute, eta kapitainek jantzi beltz dotorea.

Aurreko urteetan ez bezala, 20 euroko fidantza jarri diote

jantziaren erabilerari. Erabakiak harrera ona jaso duela gaineratu du Arkauz lehendakariak. "Jendeak lehen ez zituen itzultzen. Ez dakit zergatik. Baina aldatu beharra zegoen". Jantzi berriekin ez bada ere, hamaika haur prestatuta daude danborradan parte hartzeko; zazpi izango dira, guztira. Askok euren traje eta danborrak eramango dituzte.

Gurasoei danborradan laguntzeko eskaera egin diete elkartetik, zaintza lanak egin ditzaten iraun bitartean; besteak beste,

gozokiak botatzen dituztenean bila behar ez duten tokira sartu ez daitezen.

Nagusien danborrada

Helduen danborradari begira jarritz, kalean egongo den edo ez hamaika pertsonak galdetu diotela argitu du Arkauzek, eta poztasuna nabaritu dela baiezeko erantzunarekin.

Bederatzi konpainiak hartuko dute parte: Montxon, Beti Gazte, Beti Alai, Txalaparta, Musakola, Santa Maña, Eskozesak, Tanborrerruak eta Herri Eskolakoak. 150 pertsona inguruk danborra jotzen aritzea espero dutela esan du lehendakariak.

Musakolak egin zuen azkeneko kale, baina aurten itzuli egingo dira. Beste kontu bat da Udalpeko konpainiarena. Izan ere, 2022an 65. urteurrena du elkarateak. Hala ere, ez dute behar beste pertsona lortzerik izan. "Penaz hartu dugu", zehaztu du elkarateen elkarteko zuzendariak. "Ea hurrengo urterako animatzen diren".

Konpainiak mantentzeko zailtasunak ere izan ditu mintzagai Arkauzek. Hamabi urte inguru daramatza danborrarekin zara-

HAUR DANBORRADAN KIDE GUZTIEK PRAKAK ERABILIKO DITUZTE ETA GONAK KENTZEA ERABAKI DUTE

taka Txalapartako kide. Kuadrillan jarri zuten martxan taldea, trajeak egin eta guzti, baina zenbait jubilatutako egin dira. Ordezkoak bilatzen aritu dira, dena den, eta bermatu dute beste hemezortzi gazte inguru batuko zaizkiela. "Beharrezkoa da erreleboa eta jende gehiago behar da. Nik uste dut jende guztiak hartuko balu lana, gehiago izango ginatekeela".

Arrasateko banda konpromiso guztietara iritsi ezin denez, Eskoriatzakoak hartuko du musika jartzeko haren lekukoa.

Entseguen gorabeherak

150 pertsona inguruk joko dute danborra San Juan bezperan; oraindik entseguen zenbaki osorik ematen uzten ez dute, baina. Batetik bestera aurpegi berriak ikusten direla eta jendea aldatzen dela adierazi du lehendakariak.

Kontua aldatzea espero du, ordea, datorren eguaztenean, azken entsegua izango dute eta. Plazan ikasiko dute konpainia bakoitzak non kokatu behar duen eta horrelakoak. Behar beste material prestatzeko parte hartzaile zenbakia baliagarria izango zaiela azaldu du Arkauzek.

Danborra jotzeko jende berria aipatu du lehen, baina jaia prestatzeko laguntzen duten pertsonak ere aipatu ditu, danborradak badu-eta bere lana. "Beti aurkitzen dugu laguntza, eta beharrezkoak dira. Eurak gabe, ezingo genuke".



Makala, dantzak eta sua prest

Inoiz baino jende gehiagok ikusiko ditu San Juan bezperako ekitaldiak; zuzenean emango dituzte, elkarlanean, Goiena Komunikazio Taldeak eta ETBk



Errementari dantzaren paseoa 2019an. IMANOL SORIANO

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE Salmenta ireki eta bi orduan agortu dira aurten San Juan bezperako herri bazkarirako txartelak. "Jendea gogotsu dagoela dirudi", azaldu du txosnaguneko ordezkari Gorka Etxabek. Gauzak horrela, 400 lagun elkartuko dira mahaiaren bueltan eta makala igotzea izango da gazteen hurrengo egitekoa. "Makala moztuta eta zurituta dago, eta 16:30ean utziko dute Uarkapen. Herri bazkarian egin ohi da zerrenda bat plazara iritsitakoan nortzuek altxatuko duten

zehazteko. Denen artean eramango dugu bertaraino".

Berdez jantziko da plaza aurten makalaren igoerarako; izan ere, kolore horretakoak dira herriko gazteek San Juan bezperan jantziko dituzten kamisetak. Pregoia prestatzeko lanarekin batera, Euskal Herrian Euskaraz taldeari egokitu zaio kamisetak egitea, eta euskararen aldeko leloekin diseinatu dituzte, bereziki.

Herritarrek ez ezik, txosnaguneko arduradunak ere gogotsu daude 2022ko jaiari hasiera emateko.

"Iaz ere jarri genuen txosnagunea, baina modu oso berezian; aulkiekin eta eserita egon behar zen. Egia esan, desiratzen gaude atzera ere San Juan jaiak normal ospatzeko", adierazi du Etxabek.

Errementari dantza

Urtean behin hartzen dituzten kaleak errementari dantzak. Lau piezak osatzen dute: kalez kale egiten den aurreko paseoak eta plazan egiten diren alkate dantzak, ingurutxoak eta polkak. Ehun dantzari ari dira errementari

dantza prestatzen; 25 bikote jarriko ditu Lore Gazteak dantza taldeak eta beste 25 Txiki-txu-Arrostaitz taldeak. "Badira aste batzuk entseguekin hasi garela", azaldu du Lore Gazteak taldeko Xeli Arregik. "Ez da erraza denak batera elkartzea, eta orain artekoak taldeka egin ditugu. Entsegu orokorra zapatuan egingo dugu, eguerdian, Jokin Zaitegi plazan".

Urtero moduan, gaiteroak, txistulariak, trikitilariak, Arrasate Musikaleko musikariak eta dantza taldeak izango dira erre-

mentari dantzan parte hartzen. Koordinazio-lan handia dago, beraz, ekitaldi horren atzean. 21:00etan hasiko da errementari dantza. Ilundutakoan piztuko du San Juan sua dragoiak. 22:30ak bueltan izango da hori. Maria Ubarretxena alkateak egingo du alkate dantza eta amaitutakoan San Juan sutara botako dituzte alpargatak. Ondoren, dantzarien txanda izango da berriz.

Aldaketa, aurten, pare bat dantza bikote bi emakumek osatuko dutela. "Pena da, baina mutil falta dago. Egoerari buel-

ALDEDI Aurten bai! Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu



Herriko gazteak, bazkalostean, makala igotzen. IMANOL SORIANO

ta ematea gustatuko litzaiguke. Konturatu beharko lukete plaza galtzen ari direla".

Zuzeneko emanaldiak aurten

Inoiz baino jende gehiagok ikusiko du errementari dantza aurten. Bertaratzen direnek plaza-ko pantaila handian ikusteko aukera izango dute. 18.00etan piztuko da pantaila makalaren igoera ikusteko. Ondoren, dantzariak Arrasateko kaleetan zehar egingo dituzten dantzak plazan bertan ikusteko aukera izango da. San Juan suaren bueltan

Herriko Plazan egingo diren ekitaldi guztiak ere –San Juan sua, alkate dantza, ingurutxo eta polka– ikusiko dira. Danborrada amaitutakoan itzaliko da pantaila.

Goiena telebistak ere programazio berezia eskainiko du San Juan bezperan. 18:00etan, *Hemen Debagoiena* saioa Herriko Plazatik zuzenean egingo da, eta makalaren igoera eskaini. Ondoren, 22:15ean, ETBrekin elkarlanean, San Juan gauari eskainitako saio berezia izango da, Goiatz Aranak eta Imanol Artolak aurkeztuta.

Bi komunikazio taldeen arteko elkarlanaren emaitza da; ordu berean ikusi ahal izango da zuzeneko emankizuna Goiena telebistan eta ETB1en.

Goiena telebistaren ekoizpen hauek *Goiena.eus* ataritik eta *Goiena* aplikaziotik ere jarraitu ahal izango dira.

Beste saio bereziak

Ekainaren 24an, egubakoitza, Goienak zuzenean eskainiko ditu 09:00etako entzierroa eta ondorengo bigantxak zezen-plazatik –Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en ikusgai–. Arratsaldean, berriz, jaien inguruko saio berezia izango da.

Sanjuanetako *Jaiak* saio berezia ere ekoiztuko du Goienak, Aitor Agirianok aurkeztuta. Hilaren 28an, martitzena, izango da ikusgai, 21:00etan eta 23:00etan.

ARRASATEN OHITURA DENEZ BEHIN ILUNDUTAKOAN PIZTUKO DU SAN JUAN SUA DRAGOIAK

Goiena eta ETB elkarlanean



UNAI IPARRAGIRRE TORRES
ETBKO ZUZENDARIA

"Elkarlanak edukia asko aberasten du"

"Elkarlanean jardungo dugu ETBk eta Goienak San Juan bezperan Arrasatekin. Elkarlanak edukia asko aberasten du eta, gainera, ikus-entzulea ateratzen da irabazten. Euskal Herriari zor diogu hau", adierazi du ETBko zuzendariak. Arrasatearra 2021eko otsailetik da euskal irrati eta telebista publikoko zuzendaria, eta bi erakundeek emanaldi bateratua egingo dute Arrasateko plazatik. Goienaren zein ETBren ikus-entzunezko hedabideetan izango da ikusgai.



IBAN ARANTZABAL ARRIETA
GOIENAKO ZUZENDARIA

"Hitzei edukia jartzeko momentuan gaude"

"Goienak urteetan sinatu du kolaborazio hitzarmena EITBrekin, Maite Iturbe zuzendari zenetik. Iñaki Aldekoak ere aliantzen premia azaleratu du plan estrategikoan. Orain, hitzei edukia jartzeko momentuan gaude, eta emankizun bateratu hau horren adibide da. Hasiera ona, jarraipena izatea nahi genukeena. Erraztu du emanaldi hau egiteko Oihane Agirrek eta Unai Iparragirrek egindako lanak. Arrasateko San Juan bezpera inoiz baino jende gehiagok ikusiko du".



San Juan jai
zoriontsuak!!



Johanna Sanchez –Berdintasun zinegotzia– eta Amets Beltran de Gebara –Berdintasun teknikaria–. HASIER LARREA

Indarkeria matxistarik gabeko jaien aldarria

Jaiak emakumezkoendako espazio seguruak izateko, baliabideak jarri ditu Udalak Emakume Txokoarekin elkarlanean. 24 orduz arreta emango dute 688 80 91 37 telefonoan, eta indarkeria matxistari aurre egiteko gunea jarriko dute Arbolapetan

Maidar Arregi ARRASATE

Indarkeria matxistarik gabeko jaiak aldarrikatu dituzte Arrasateko Udalak eta Emakume Txokoak. Hala, aurtengo sanjuanetan ere indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak jarri dituzte. "Herriarrek jaietan gertatzen den edozein eraso sexistaren aurrean, informazioa, aholkularitza eta aurrez aurreko arreta eta laguntza izango dituzte", dio Johanna Sanchezek, Berdintasuneko zinegotziak. Horrez gain, 24 orduz egongo den telefono zenbakira ere deitu daiteke: 688 80 91 37.

Indarkeria sexistarik gabe

Gainera, indarkeria sexistarik gabeko gunea jarriko dute Arbolapetan. Emakumeek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzeaz gain, babes eta elkartasun gunea bat izan dezaten. "Bertan, indarkeria sexistan eta autodefentsa feministan adituak diren emakumeak izango dira".

Hala, ekainaren 23an, 24an eta 25ean, 20:00etatik 01:00etara izango da gunea zabalik. Eta ekainaren 26an, 18:00etatik

21:00etara. Gainontzeko eguntan ohiko telefonoetara deitu daiteke: Emakume Txokoa (943 79 41 39), Gizarte Zerbitzuak (943 25 20 07), Larrialdiak (112), Udaltzaingoa (943 25 20 10) eta EAEko 24 orduko telefono arreta zerbitzua (900 84 01 11). Emakume Txokoko baliabideak bestelako zerbitzu eta protokoloekin koordinatuta egongo dira, hala nola Udaltzaingoarekin eta Gizarte Zerbitzuekin.

Erasorik bada, zer?

Ingurukoek egin beharreko ariketa zein den azaldu du Amets Beltran de Gebarak, Berdintasun teknikariak: "Erasoa jasan duen emakumearen bizipena zalantzan ez jartzea, haren erabakia errespetatzea eta izan ditzakeen beharrak zeintzuk diren identifikatzea da ingurukoek egin dezaketena".

Nesken ahalduntzea indartzea eta mutilen jarrera matxista eta sexista prebenitzea dela helburua gaineratu du zinegotziak. "Jaiak emakumezkoendako espazio seguruak izan behar dute; alkoholak eta drogak jarrerak desinhibitu arren, ez dituzte erasoak justifikatzen".



"Feminismoa edozein arlotan dago presente"

BEATRIZ EGIZABAL UMORISTA

Emakume Txokoak antolatuta, 'Magma mia' bakarriketa saioa egingo du Egizabalek txosnagunean, San Juan egunean, hilaren 24an, 20:00etan hasita

Maidar Arregi ARRASATE

Kontzientzia feminista eta lana batera bizi ditu paralelo Egizabal umoristak; eta dio egunerokoan modu naturalean patriarkatua identifikatzea kosta egiten dela. **Umorea eta feminismoa uztartuta.** Nire ibilbidean oso paralelo joan dira bai umorea eta baita feminismoa ere. Lanean hasi aurretik jada emakume taldean banukan feminismoarekiko harra. Baina lanaren bitartez, feminismoarekiko harreman estuagoa izan dut. Clown ibilbidea Oihulari eta Virginia Imazekin egin nuen, eta oso garrantzitsua izan da, zeren parte hartu izan ditugun hitzaldi eta jardunaldi asko



Beatriz Egizabal. B.E.

feminismoaren bueltakoak izan dira. Eta hor ikusi nuen feminismoa uste baino zabalagoa dela eta gure bizitzako edozein arlo harrapatzen duela. Horregatik esan dizut oso paralelo joan direla kontzientzia feminista eta lana.

Nola ikusten duzu gaur egun mugimendua?

Feminismoa iritsi da leku askotara eta ospatzekoa da. Mugimendu guztietan gertatzen den bezala, korronte ezberdinak daude, baina jendea haserretu egin da. Feminista ez dena eta patriarkatuarekin erosoan dauden gorputzak haserretuta daude eta hori feminismoari esker da. Orokorrean, ordea, garai gogorak datoz. Erreakzionarioak ere haserre daude, eta, noski, feminismoarekin ez daude gustura, feminismoa dena hankaz gora jartzera baitator. Gatazkatsua izango da, eta, momentu batzuetan, gatazka batzuek min handiagoa emango digute. Baina hemen gatazka batzuek bizitza osoa daramate... eta eskuina hor dago burua aterata. Denok kolokatu behar dugu, baina ez da bata edo bestea... eta fronte

asko aterako dira, eta hori da feminismoak daukan indarra. **Gatazka horiek umoretik hobeto ulertzen dira?**

Bai, baina umorea ez da neutroa. Pare pareko umorean sentitzen naiz erosoan neure buruari barre eginez. Behetik gora egiten baduzu, ordea, boterea duena haserretuko da. Beraz, nire kontraesanak eta nire buruhaustak –gizarte zati handi baten berdinak dienak– taularatzen ditut eta, nolabait, zeure burua islatuta ikusten duzu... Eta nik bide hori erabiltzen dut.

Magma mia ikuskizunean hori izango duzu ardatz.

Egunerokotasunean patriarkatuak eragina duela kontatzen dut. Saiatzen naiz helarazten patriarkatuaz ari garenean nola zeharkatzen gaituen egunerokoan eta baita ere arreta jarritz gero modu kontzientean, patriarkatua identifikatzen, alegia. Izan ere, ez dugu patriarkatua identifikatzen, eta hor dugu arazoa. Gauzak normalak eta naturalak direla iruditzen zaigu, eta ez da horrela. Nola azaltzen duzu emakumea ez dela jaiotzen, egin egiten dela?

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodlak Seat Arona

Aurten bai! Gora sanjuanak!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

Erraldoien konpartsa, itzulerarako gogotsu

Bi jai pasatu dira azkenekoz erraldoiek eta kilikiek Arrasateko kaleak ibili zituztenetik. Aurtengo 'ohiko' festetan berreskuratuko dituzte zitak, eta gogorik ez dute falta. Entsegetarako lokal faltak berritasunik ez du bideratu; betikoa itzuliko da, baina

Beñat Alberdi Igartua ARRASATE

Iaz, dantzariak, bandak eta erraldoiek prestatu zuten ikuskizuna, koronabirusak festak mugatu bazituen ere, kultura presente egon zedin. Aurtengo sanjuanak bestelakoak izango dira, maskara garaia atzean utzita, aurretiazko egitaraua itzuliko dela. Tartean sartzen da Erraldoien eta Kilikien Konpartsa. Bizitu egingo dituzte berriro ere Arrasateko kaleak.

"Aurkakoa espero zitekeen, baina normal-normalak izango direla dirudi", esan du Joxerra Perezek, konpartsako lehendakariak. Kalea jardun eremu izateak ere sortzen zituen ozto-



Erraldoiak eta kilikiak kalean barrena 2015ean. GOIENA

poak. Ez espazio muga, ez jende kopuru, erraldoientzako ere beste festa batzuk izango dira.

Zer eskaini izateko, hala ere, non entseatu behar izaten da, eta hor agertu zaie osasunaz gaindiko muga. Izan ere, berri-tzen daukate euren lokala. Obrak bukatu bitartean, utzi zieten beste eremu bat, baina, aretoa-ren erabilerarako beste behar batzuk medio, azken hilabetera arte ez dute non jardun izan.

Ikuskizunerako entseatzan

Horrek ez du esan nahi, ordea, ez dutela ezer prestatu, berritasunak atontzeko denborarik ez dutela eduki baizik. "Bi urte hauetan pandemiagatik bakarrik ez, lokalagatik ere ezin izan gara gauza berriekekin jarri", nabarmendu du lehendakariak. Aurtengo begi onez ikusi dute berritasunekin nahastu baino gehiago, sanjuanetan eskaini ohi zutena ganoraz prestatzea.

San Juan bezperan, errementari dantzan parte hartuko dute. 24an, berriz, kalejira izango da goizeko eskaintza, 11:00etan, eta bandarekin eta gaiteroekin elkartuko dira Seber Altube plazan.

Festetan ohiko den bezala, *La dominguera* dantzatzeko dute bandak jotako musikarekin. Dimekan eskainiko dute azken zita, goizeko hamaiketako kalejira.

Bi urte ez da denbora gutxi; are gutxiago, konpartsako gartetxoentzako. Zenbait zahartu egin dira azken jaietatik igarotako denboran, baina, kezka puntu bat izan den arren, positibo agertu da Joxerra Perez; azken alditik batzuek errepikatuko ez badute ere, jende berria sartu denez gero, ordezkioak aurkitu dituztelako.

Gainera, 35. urteurrena pandemia garaian pasa zitzaien eta ez zuten ospakizunetarako tartarik izan. Kasu horretan ere, nahiago izan dute presaka ibili orde, behin jaiak pasatuta egitaraua antolatzen hastea.

Txantxetan dio konpartsako lehendakariak gogorra izango zaiela itzulera bi urte "ezer" egin gabe egon eta gero. "Ez, ez, gustura ibiltzen gara eta gustura itzuliko gara". Konpartsarentzako ere aberasgarria izango da berriro jaiak normaltasunez bizitzea, eta gogotsu daude Arrasateko kaleak alaitzeko.



Gora Arrasate!!



epele
Calderería



Arrasateko bandak iaz, dantzariekin eta erraldoiekin elkarlanean, egindako ikuskizunaren irudiak. ARRASATE MUSIKAL

Jaiak eta urteurrena girotuko ditu bandak

Jaietako beste data aldaezin bat izaten da ekainaren 24ko Arrasate Musikalaren kontzertua. Iaz osatu zuten ikuskizuna dantzari eta erraldoiekin. Aurten ohiko kontzertura itzuliko dira, baina hurrengo urteko urteurrena daukate begiz jota

Beñat Alberdi ARRASATE

Arrasateko bandak hiru data jakin dauzka jaietan: 18an haur danborrada, 23an errementari dantza, eta 24an kontzertua Monterronen. Aurten ere ez daukate huts egiteko inongo asmorik. Joko duten erreperitorioan egongo dira aldaketak, dena den; hurrengo urtean beteko dituzten 50. urteurrena tarteko, besteak beste.

Ohi bezala, kalejirarekin hasiko dute eguna, Monterronera bertaratu arte, eta 13:00etan abiatuko dute kontzertua.

Garbi dauka Mikel Markiegi bandaren zuzendariak eman beharreko kontzertuak arina izan behar duela. "Jaiak dira eta ezin dira jo jendearen arreta handia eskatzen dituzten abestiak", jakinarazi du. Lehenengo kantuak, hala ere, badauka arreta-gune izateko behar dena. Izan ere, Arrasateko Rugby Taldearen ereserkia joko dute lehen aldiz. Jose Ramon Vitoria arrasatearrak konposatu du, Arrasate Musikaleko irakasle ohiak.

Allmenden *Europa Mars*, Ros-sinniren *La italiana en Argel* eta Van der Roosten *Flashing*

winds etorriko dira jarraiki, giroa animatuta mantentzeko asmoz. Munduko hainbat tokitako doinuak sartzen saiatzen dela nabarmendu du zuzendariak.

Euskal konpositoreei begira

Ezin munduari begira jarri, dena den, bertakoak ahaztuta. Guri-diren *Ezpata Dantza Amaya*-k emango dio jarraipena kontzertuari, baina momentu berezia izango da Arzamendik konposatutako *Arrasate Musikal Ereserkia*. Azken urteetan ez bezala, modu originalean joko dute, hasierako partituretan dagoen gisan.

Hurrengo urteko urteurrenari begira egingo den keinua izango da hori, kantu aukeraketa bezala. Ez da goitik beherrako aldaketa bat, baina irailetik aurrera egingo dituzten ikuskizunen eta ekintzen aurrekari gisa balioko du. Izan ere, irailean bertan aurkeztuko dute 50. urteurrenaren egitaraua eta ekainera arte iraungo du.

Kanpoko musikarien bila jo gabe, herriko beste artista batzuekin elkarlanean plana osatzeko asmoa daukate.



Learning from reality



BERRITZAILEA

Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea.



PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, «learning by doing» ez da slogana, geure DNAn txertatuta dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.



HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonistak.



KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura.

Zezen-plaza ere bueltan da

Bihar ekingo diote 1.500 pertsonarendako lekua duen zezen-plaza jartzeari. Eguaztenerako guztiz prest egotea aurreikusten dute arduradunek

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE Arrasateko San Juan jaietan zezen-plazak jende asko erakartzen du, eta aurten ere Jose Maria Arizmendiarieta plazan jarriko dute. Bergarako Zezenak ganadutegiko lagunek kudeatuko dute espazioa, eta Bergarako Pentekoste jaiek emandakoa ikusita aurreikusten dute bete egingo direla emanaldi guztiak. Hiru entzierro –ondorengo bigantxa saioekin–, erreorte erakustaldi bat eta neska-mutikoei zuzendutako bi saio egongo dira. Azken horiek 8-15 urte

artekoendako izango dira; lehenengo erreorte eskola izango da eta bigarrena erreorte gaztetxoek txapelketa.

Hiru entzierro

Zezen-plazarekin lotutako ikuskizunak San Juan egunean hasiko dira. Hiru egunez jarraian entzierroa egongo da, Erdiko kaletik 09:00etan abiatuta. Ohiko ibilbidea egingo dute zezenek eta korrikalariak: Kanpantorpea eta Zerkaosteta zeharkatu ostean, zezen-plazara helduko dira. Amaitutakoan, bigantxen txan-

da izango da, eta zezen-plazan adore erakustaldia egiteko aukera izango dute 16 urtetik gorakoek. "Beste herri batzuetan kontua nola joan den ikusita, pentsatzen dut sarrerak agortu egingo direla, batez ere, lehenengo egunetan", azaldu du Bergarako Zezenak ganadutegiko Iñigo Almortzak. "Jendeak festarako gogoia du".

Goiinak zuzenean emango du jaietako lehenengo entzierroa. Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian ikusteko aukera izango da.



Erreortadorea erakustaldia egiten 2019ko jaietan. GOIENA



Entzierro osteko bigantxak zezen-plazan, 2019an. GOIENA



Artuak eta garixak gorde subiak eta zapuak erre!!





EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
 Araba ibilbidea
 20550 Aretxabaleta
 Tfnoa: 943 791 844
 E-mail: info@eguzkigraf.com





Errekortadoreak egubakoitzean San Juan egunean, 19:30ean, errekortadore erakustaldia izango da ikusgai zezen-plazan. "Hamabi errekortadore arituko dira. Ez dira profesionalak, inor ez delako honetatik bizi, baina beteranoak dira, eta maila handikoak", azaldu du Almortzak. Bergaran jokaturako errekortadore txapelketan parte hartutako guztiak izango dira Arrasateko plazan. Esaterako, Unai Arana *Xurra*, Anartz Almortza, Sergio Zapatero eta Ander Gallastegi. Bi izango dira arrasatearrak: Blas Cruz eta Aitor Murgiondo. Herriki-deen aurrean luzitzen saiatuko dira.

8 eta 15 urte artekoendako, bi Zapatu eta domeka arratsaldean gaztetxoendako izango da Arrasateko zezen-plaza. Errekortadore eskolako saioa egingo dute zapatuan, 18:30ean. "Bi urteko geldialdiaren ostean, zapatuko saioak balioko du ikusteko zenbat ume dagoen eta zer-nolako maila duten. Mundu honetan bi urteko etena oso gorrak da. Jarduera honetan

Sanjuanetan zezen-plazan

Ekainak 24, barikua

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak.
- **19:30** Errekorte saioa.

Ekainak 25, zapatua

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak.
- **19:30** Errekortadore eskola. Ondoren, poneyak.

Ekainak 26, domeka

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak.
- **18:30** Errekortadore gaztetxoaren txapelketa (8-15 urte). Ondoren poneyak.

GOIENAK ZUZENEAN EMANGO DU SAN JUAN EGUNEKO ENTZIERROA

arlo psikologikoak garrantzi handia du, eta ume bat ezin da mota honetako animalia baten aurrean jarri gutxienezko ziurtasun bat ez badauka. Arrasaten tradizio handia dago, eta duela pare bat urte bazeuden oraindik txikiak izanda ere oso onak ziren bizpahiru mutiko. Honezkero izango dituzte 12 bat urte. Desiratzen gaude ikusteko zer-nolako maila duten. Gure asmoa da zapatuko saioan aukeraketa moduko bat egitea domekan jokatzekoa den txapelketan parte hartuko duten gaztetxoak zeintzuk izan daitzekoen erabakitzeko", azaldu du Almortzak. "Baionako errekortadore eskolarekin harreman estua dugu, eta ia ziur dakigu pare bat mutiko etortzekoak direla Arrasateko txapelketara. Konplexua da mota honetako txapelketa bat antolatzea. Taldeak egin behar dira umeen gaitasunak eta adina kontuan hartuta, erabaki behar da zein animalia bota... Ezagutzen dugu jendea, baina bi urteko etenaldiaren ostean ikusi behar dugu egoera zein den eta horren arabera jokatu".

"Zezen-plazan sartu eta gozatzeko desiratzen dago jendea"

ÍÑIGO ALMORTZA BERGARAKO ZEZENAK GANADUTEGIA

Bergarako Pentekoste jaietan bete egin da zezen-plaza, eta Arrasaten gauza bera gertatzea aurreikusten du Almortzak.

Gustura Bergarako jaietan izandako harrerarekin?

Bergaran topera ibili gara. Urteetako lana dago hor, harrobiko jende asko. Bergara da Euskal Herrian errekortadore gehien dituen herria. Kuadrillen jokoetan sei talde topatu ezinik ibiltzen ginen duela hamabi urte, eta aurten, hamasei talde aurkeztu dira. Oso-oso ondo ibili gara.

Zezenak ere prest Arrasaterako?

Noski, baina zezenei ere guri moduan gertatzen zaie: erritmoa berreskuratu behar dute. Jendeak ezin du imajinatu ere egin: urtero jaiotzen dira animaliak, urtero kentzen dira, eta etenaldi hau



GOIENA

ikaragarria izan da. Alde batetik, galera ekonomiko handia izan da bi urtean hainbeste animalia mantentzea, baina hori baino garrantzitsuagoa da erritmoa galdu izana.

Gomendio bat jaiotarako? Disfrutatzeko.

Eta kolpeekin kontuz, ala?

Bai, kolpeekin kontuz ibili behar da, baina batzuk egon egin behar dira. Horrek ematen dio emozio pixka bat asuntuari, nire ustez. Noski, ez dezala inork min handirik hartu!

VITALDENT

Gora San Juan jaiak!

ARRASATE
Otalora Lizentziaduna kalea 1

943 06 03 22

Osasun-erregistroa: 20 C.2.5.14042. RPS 46-20





Egitarauen aurkezpenarako egindako argazkia. TXATXILIPURDI

Bi urte ilunen ostean, izpi laruz dator eguzkia

Eguzkilaru Eguna eta Gaztelaru Eguna antolatu ditu Txatxilipurdik ekainaren 25erako. Txiki-txikietatik hasi eta 16 urte arteko neska-mutikoendako ekintzak izango dira, hainbat gunetan banatuta. Nagusienendako eskaintza indartu nahian jarraitzen dute

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE "Egun berezia" izango da hurrengo zapatua txatxilipurdientzat, "haur eta nerabeekin batera" Eguzkilaru Eguna eta Gaztelaru Eguna ospatuko dituzte eta; hala aitortu dute elkartekoek eurek, prestatutako egitarauak aurkezterakoan. Izan ere, bueltan da, bi urteren ostean, haur eta gaztetxoentzako Txatxilipurdiren eskaintza.

Eguzkilaru Egunari dagokionez, bi gune izango dira: Monterron parkea eta Biteri plaza, hain zuzen ere. 11:00etatik 13:30era, jolas-gunea egongo da, alde batetik, Monterronen: zuhaitz margolaria, tirolina, oihaletatik zintzilik, 0-4 gunea, ur bideak, lokatz gunea eta eskalada; 19:00etan, berriz, *Kui-Kui* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek.

Biterin ere jolas-gunea egongo da, alde batetik, Monterrongoaren ordutegi berarekin: aurpegi margoketa, oreka pasabideak, puzgarria, ohe elastikoak, karrakea, kutxa dorrea eta sormen txokoa.

12:45ean, Eguzkilaruri ongietorria egingo diote, eta makala

igoko dute. 13:30ean, azkenik, apar festa izango da.

Gaztetxoentzako ekintzak

Txikientzat bakarrik ez, 12 urtetik aurrerakoentzako ekintzak ere izango dira hurrengo zapatuan –Biteri plazan, horiek ere–. "COVIDaren aurretik hasi ginen 12-15 urtekoentzako egitaraua indartzen, eta aurten ere gauza bera egin nahi izan dugu. Eurentzako aproposak izan daitezkeen ekintzak eta txokoak antolatu ditugu", adierazi du Txatxilipurdiren Kultura arloko arduradun Itsaso Garaik.

17:00ak eta 19:00ak artean, *henna* tatuaiak egiteko aukera, txapen tailerra eta freskagarri eta zukuen gunea izango dituzte, batetik. 18:00etan, *Bat ira-bazteko* proba-jolasa egingo dute, eta 18:30ean apar-festa; eta dena, musikak girotuta.

"Bi urteko geldialdiaren ostean, indarrez hartu dugu itzulera, nahiz eta pixka bat kosta, mar-txa hartu arte. Baina gogotsu hartu dugu lana, eta, antolatutako egitarauarekin, arrakasta izango dugulakoan gaude", dio Garaik.



CITROËN C5 AIRCROSS
HIBRIDO ENTXUFAGARRIA, GASOLINA
EDO DIESELA

Berritua!



CITROËN C5 X
HIBRIDO ENTXUFAGARRIA
EDO GASOLINA

Berria!



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

Gora sanjuanak!

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE



Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE

Azken urteetan bezala, Seber Altube plazan egingo da aurten ere sanjuanetarako AEDk antolatzen duen bertso saioa, jaietako azkenaurreko egunean, 12:30ean. Etxeko bertsolari bat –Ane Zuazubiskar, Osinalde sariketako aurtengo irabazlea–, aramaioar bat –Xabi Igoa, Arabako finalean kantatu berria–, bizkaitar bat –Jone Uria, Algorakoa– eta nafar bat –Xabat Illarregi, Leitzakoa– ariko dira kantuan, eta bi arrasatear gaiak ematen ere, Olatz Zuazubiskar eta Maria Oses –gai-jartzaile bakarria beharrean, bi izango direla da aurtengo saioko nobedadea, baina horrek ez duela saioa ezaugarrituko adierazi dute, ohikoa izango dela–.

AEDko Itxaro Artolaren arabera, "jende gazteari begira" antolatzen dute, bereziki, saioa, nahiz eta, noski, publiko mota oro izango den plazan ongi-erria: "Hain bertsozale izan ez eta areto batera propio bertsok entzutera joango ez litzatekeen jendea ere erakarri nahi dugu kalean eginda, bertsolaritza ezagut dezaten".

Bi gai-jartzaile eta lau bertsolari gazte oholtzan

Jaietako zapatuan, hilaren 25ean, izango da AEDk antolatutako bertso saioa, Ane Zuazubiskar, Xabi Igoa, Jone Uria eta Xabat Illarregi kantuan direla. Olatz Zuazubiskar eta Maria Oses ariko dira, berriz, gaiak jartzen. Seber Altuben izango da ekitaldia



Sanjuanetako iazko saioa. IMANOL SORIANO

Zenbait irizpide

Gai-jartzaileek eurek izan dute bertsotan jardungo duen laukotea aukeratzeko ardura ere, AEDk dituen zenbait irizpideri jarraikiz, betiere: "Gazteak izan daitezkeen nahi izaten dugu, eta saiatzen gara herrikoak edota bailarakoak ere egon daitezkeen, horrek ere zenbait jende erakarrir dezakeelakoan, eta gertuan dugunari balioa emateko".

Gai-jartzaileei dagokienez, bi gazte arrasatear –herrian bertso eskolan eta AEDren gazte taldean aritutakoak– izango dira lan horretan, Olatz Zuazubiskar eta Maria Oses. Bertso giroan jarduten duten bi lagun dira, gai-jartzaile eta Gasteizen –han ari dira ikasten–, batez ere. Sanjuanetako saioan lehen aldiz jarriko dituzte gaiak. "Eurek egin ziguten proposamena, jaietako saioan gaiak emateko gertu zedela eta. Gazteak horrela animatzeak eta prestutasuna agertzeak asko pozten gaitu, eta 'aurrera!' esan genien", dio Itxaro Artolak.

Bertsozaleek, horrenbestez, zapatuz dute urteroko hitzordua sanjuanetan.

aldaketarako prest?

ulfit
Etorkizuneko ultrasoinu
aurreak

Aurpegi eta gorputzerako
tratamendu perfektuak

Aurpegia
tenkatzeko eta
gorputza
birmoldatzeko
behin betiko
tratamendua.



onda
Coolwaves™ shin inaultzaileak

Esan agur zelulitisari
Coolwaves uhinekin

- Gorputza birmoldatzea
- Koipe lokalizatua
- Zelulitisa
- Larruazala tenkatzea
- Berrespena

**ESKAINITZA BEREZIA
5 SAIO + 1 DOAN**

**2022
San Juan jai
zoriontsuak!**

LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17
www.lirainarrasate.com

RPS 124/20 Ez da osasun zentroa.



1987an sortutako Su Ta Gar, plater nagusietako bat. ARGAZKIAK: GOIENA ETA MUSIKA TALDEAK



Rap jaialdia ere aurten; argazkian, Tatta.

Gose bereziena asetzeko menua

Ohiko jaiekin bueltan dator musika eskaintza oparoa, eta Herriko Plaza, txosnak eta Monterron izango dira gune nagusiak. Izen propioen artean, Su Ta Gar, Merina Gris eta Anari daude; ekainaren 25eko txosnaguneko rap jaialdian ere jende asko espero dute

Jokin Bereziartua ARRASATE

Ohiko jaien itzulerarekin, bueltan dator gustu guztiak asetzeko musika eskaintza. Herriko Plaza, txosnagunea eta Monterron parkea izango dira, bereziki, musika menu osatuaren topaleku. On egin!

LAS CLITORIXX

Txosnagunea / Ekainak 23 / 23:00

Punk doinuak eta jarrera nagusi. Oso kontzertu gutxi eman dituzte; Arrasaten eman zuten azkenetakoa 2017ko Elkartasun Egunean eman zuten. Hori bai, ez dute inor axolagabe utziko.

BANANA SHAKE

Txosnagunea / Ekainak 23 / 00:00

25 eta 27 urte inguruko lagun talde baten "konfinamenduko asperduratik" sortutako taldea. Askotariko bertsioak eskainiko ditu zazpikoteak. Rocketik edaten duen errepertorioa taularatu dute, beraz, baina haize-instrumentuen indarrarekin.

AÑUBE

Txosnagunea / Ekainak 23 / 01:00

Abesti nahiko lasaiak jota ere zuzeneko oso biziak egiten dituen

taldeak berriro joko du etxean. Udaberri ero baten ostean honako hau izango da udan emango duten lehen kontzertua; parranda giroa, bermatuta.

ARRASATE MUSIKALEKO BANDA

Monterron / Ekainak 24 / 13:00

Konpartsarekin eta gaiteroekin kalejiran irten ostean, 13:00etan, Monterron parkeko oholtzatik emango dute sanjuanetako klasiko bat izan ohi den kontzertua.

NHIL

Txosnagunea / Ekainak 24 / 21:00

Aramaio, Eskoriatza, Arrasate eta Aretxabaletako musikariek osatutako seikotea *Bizi bagina bezala* diskoarekin dator; pop eta funk doinuak beteko dute txosnagunea San Juan egunean.

NEOMAK

Monterron / Ekainak 24 / 23:15

Neomak, edo grezieraz *Ilargi berria*, San Juan egunean igoko da Monterron parkeko oholtzara. Panderoa eta trikitia molde berrietatik aurkeztera dator eta berezia izango da emanaldia, besteak beste, taldeko kide arrasatearrek –Irati Gutierrez, Amets



**ION
ZERBITZUAK**

☎ 658 995 912

✉ ionelektrizitatea@hotmail.com

ion ELEKTRIZITATEA



**Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak**

*Aurten bai!
Ondo pasa jaiak!*

Deitu!!!



**Gure nahia?
Elkarrekin gozatzea**

GORA SAN JUAN!





Neomak taldeko zazpikotea, tartean hiru arrasatear, promozio-argazkian.

Zigor Martinez, iazko *Itzulera* kontzertuan.

Agertokitian 25 urte egin ditu Anarik; bandarekin joko du jaietako azken ekitaldian.

Ormaetxea eta Leire Etchezarreta- etxean *jokatuko* dutelako.

OXABI

Herriko Plaza / Ekainak 24 / 23:15

Ez dago jaiak ulertzerik ohiko erronomia talde barik, eta aurtengo sanjuanetan Galdakaoko Oxabi taldea izan da aukeratua.

RAP JAIALDIA: ETXEPE, FANA, TATTA, MUTIKO ETA DENSÓ

Txosnagunea / Ekainak 25 / 22:00

Musika urbanoak bizi duen loraldia ez da oharkabea pasatu-

ko; bertako artistak protagonista izango dituen rap jaialdia antolatu dute hilaren 25erako.

MERINA GRIS

Txosnagunea / Ekainak 25 / 23:00

Donostiako Sara, Julen eta Paskalek osatzen dute Merina Gris, baina ez dute informazio gehiagorik eman nahi; elkarrizketetan aurpegia estalita agertzen dira. Elektro-pop bortitza egiten dute eta taldearen bereizgarrien artean daude bideoak; irudi aldetik lanketa handiko bideoak

egin dituzte, besteak beste, bideo-klip horietan Izaro eta Eneko Sagardoi ezagunak protagonista dituztela.

SU TA GAR

Txosnagunea / Ekainak 25 / 00:30

Hirugarren eguneko jaialdia borobiltzeko, Su Ta Gar igoko da txosnaguneko oholtzara. 35 urteko ibilbidearekin aurkezpenik behar ez duen taldea, ziur heavy eta rock gogorraren euskal erreferente handienek ez dutela hutsik egingo.

MEXICO LINDO, SI SEÑOR

Herriko Plaza / Ekainak 25 / 22:30

Bereziki adineko ikusleen aurrean gozamina eragiten duten mariatxiak ere ez dira faltako musika menuan. Jatorri mexikarra duten musikariz osatuta, dagoeneko ereserki bihurtu diren abesti mexikar ezagunenak joko dituzte.

ANARI

Herriko Plaza / Ekainak 26 / 20:00

Pandemia aurreko urteetan jaietako egitaraua ixteko kon-

tzertu indartsu bat eskaintzeko ohiturari jarraituz, aurtan Anari gonbidatu dute Herriko Plazara. Oñatiko Bilgune Feministan eman berri duen kontzertuan argi geratu zen sasoi-ko dagoela 1997a ezkerro agertoki agertoki dabilen azkoitiarra. Bakarlari zein taldearekin, arrasto handia utzi du musikari azkoitiarrak Euskal Herriko rockaren eta post-rockaren panoraman; ez da modu hoberik izango 2022ko sanjuanak agurtzeko.



Ojanburen
funeraria - ehorztetxea



Debagoiendar guztiondako zerbitzua

Ondo pasa sanjuanak!

943 79 16 82  Ignacio Zuloaga 2. • Arrasate

"Zenbait abestirekin adiskidetu naiz berriro"

ANARI ALBERDI MUSIKARIA

San Juan jaietako azken egunean, ekainaren 26an, kontzertua emango du Anari musikariak, eskarmentu handiko banda lagun duela, Herriko Plazan, 20:00etan

Maidar Arregi ARRASATE

Abeslari eta konpositore azkoi-tiarrak bere ibilbidearen 25. urteurrena bizi du aurten. Musikariak, ordea, ez dio aparteko garrantzirik eman nahi data esanguratsu horri, eta ez direla ari modu kontzientean ospatzen aitortu du. Kantu hunkigarri zein patxadatsuez betetako ibilbide emankor hori, hain justu ere, sanjuanetako azken egunean izango dute herritarrek gozagarri plazan, 20:00etan hasita.

Zure musika ibilbidearen 25. urteurrena ospatzen diharduzu; nola bizi duzu urte berezi hau?

Ez nuke esango kontzienteki ospatzen ari naizenik. Besteek borobiltzen dituzten datak dira, baina ni ez naiz batere horrelakoa, egia esan. Ikusten dut denbora daramagula jotzen, eta gauza ederrak gertatu eta egin ditugula, eta bide horretan sentitzen naiz ni. Egia da justu aipatze hutsak jarri gaituela errepertorioan atzera begira eta aurreko diskoetatik ateratako kantuekin emanaldiak egiten dihardugula. Baina, oro har, ez naiz batere horrelako data esanguratsuen bueltan dabilena.

Nolako emanaldia izango da sanjuanetan egingo duzuen?

Taldea zuzenekoetan oso momentu onean eta ederrean dago.



Anari Alberdi musikaria eta konpositorea. BIDEHUTS

Ari gara lehengo abestiak eta azkenengoak formatu zabal honetara berriro ekartzen. Abesti zaharren berrirakurketa egiten ari gara, eta azkenengo urteetako abestiekin osatuta musika ibilbidea jasotzen duen emanaldi historikoa izango da, nolabait esateko.

Alboan dituzun musikariak, gainera, ez dira edonolakoak!

Hala da, bai. Batzuk nirekin hasiera-hasieratik daude, eta, niretzako, haiekin bidea egitea, denbora partekatzea eta elkarrekin jotzea, horixe da ederre-

na. Bai gure lekua musikan, baita ere musikaren lekua gure ustetan dena, edota musikaren lekua munduan zein den elkarbanatu ditugu hasieratik. Esango nuke aldaketak izan ditugula, bai, eta bizi izan ditudala bereziki nirekin hasieratik izan diren Mikel Abrego bateria jolearekin eta *Drake* baxu jolearekin. Gerora etorri da Ander Mujika gitarra jolea; eta azkena Xabi Etxeberri biola jolea dugu. Biek ala biek ere asko eman diote taldeari, zalantzarik gabe. Emanaldietatik oso gustura ir-

teten naiz. Taldekideak mila daude, baina nireak horiek dira. Oholtzan gustura egotea ere transmititzen da, gainera. Nahiz eta ni bakarlarria izan, zuzenean banda bat ikusten da eta banda bat gara.

Eta orain, belaunaldi berria zuen kontzertuez gozatzen ikusten duzu.

Hala da; azken urteetan, gure zuzenekoetan gertatu den gauzetako bat izan da oso-oso jende gaztea gerturatzen zaigula, hain zuzen ere. Adibidez, nahiko kurioso da bakarrik jotzen dudaneke unea, zeren jende horrek ez nau-eta inoiz bakarrik ikusi. Orain dela 25 urtetik jarraitzen nautenek badakite bakarrik hasi nintzela eta bakarrik ere kontzertuak eman izan ditudala, baina belaunaldi gazteak ez daki hori. Errepertorioari dagokionez, zenbait abesti zaharrekin berriro adiskidetu nau; bestela, agian, orain ez nituzke joko, ez bainaiz aspaldiko zenbait abestiren moldean sartzen. Baina belaunaldi gazteak eskertzen ditu kanta horiek, inoiz ez baitu zuzenean entzuteko aukerarik izan. Era berean, aldiz, sentitzen dut distantzia bat. Musika egiteko erarekin, diskoa produzitzeko moduarekin, autogestioarekin... mundu batekin lotuta nator, eta gazte horiek ez dute ezagutzen mundu hori. Denok dakargu geure historia propioa, eta ez da izan abestiak egitea soilik. Guk autokoiztu egin dugu eta Bidehuts-en bitartez kaleratu dugu diskoa; guretzako hori izan da musikaren parte handi bat, eta horrek ere horrelako arrakala bat sentiarazten dit.

Badira jada zazpi bat urte Zure aurrekari penalak diskoa argitaratu zenuela Bidehutsen elkarlanean; tartean, EPak eta singleak ere izan dira. Noizko, ordea, Anariren lan luze berri bat?

Ezingo nizuke esan data zehatz bat; baina buruari bueltaka bagabiltza eta ikusten dugu disko berri bat aurrerago. Soilik esan bagabiltzala horretan ere.

Gure PJ Harvey zarela edota Nick Cave; zenbatetan entzungo ote zenuen horien isla zarela euskal rock panoraman.

Niri PJ Harvey izugarri gustatzen zait, bereziki lehen diskoak, baina Nick Cave gehiago entzun eta jarraitu dut. PJ Harveyren hasierako diskoak asko gustatzen zaizkit, baita haren diskoak produzitzeko modua ere. Nick Cave soinu aldetik, instrumentazioa... zalantzarik gabe, nire erreferentea da. Horrek asko zabaltzen du espektra; izan ere, PJ Harveyrekin soilik lotzean ematen du emakumeak emakumeekin bakarrik lotu daitezkeela, eta hor badago sinplekeriarako joera bat. PJ Harvey edo Patty Smith. Askok komentatu didate Smithekiko antzekotasuna ere, baina, diskoren bat edo beste izan dudan arren, ez dut askorik jarraitu, egia esan. Gehiago jo dut Nick Cave, Leonard Cohen edo Bob Dylan-en musikarengana.

Oñatin Bilgune Feministaren 20. urteurrenean izateko aukera ere izan duzu.

Bai, eta niretzako ederra izan da kontzertu hori antolatuta izana Bilgune Feministak Oñatin. Nire kantuak ere borroka feministatik oso gertu egon dira urte hauetan guztietan.

"NAHIZ ETA BAKARLARIA IZAN, ZUZENEAN BANDA BAT IKUSTEN DA ETA BANDA BAT GARA"



Euskal Herria 3, behea

Arrasate

Tel.: 943 79 44 22

www.udalaitz.com

inform@cmudalaitz.com

Espezialitate medikuak

Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048

Diagnosi-probak

COVID-19aren probak

Ondo ibili jaietan!!

SANJUANAK GOIENAN



MAKALAREN IGOERA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

EKAINAREN 23AN, 18:00ETAN

ARRASATEKO HERRIKO PLAZATIK 'HEMEN DEBAGOIENA'
SAIO BEREZIA

ZUZENEKOA




SAN JUAN GAUA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

EKAINAREN 23AN, 22:15EAN

GOIATZ ARANA ETA IMANOL ARTOLA KAZETARIEK
GIDATUTAKO SAIOA
ETB-REKIN ELKARLANEAN

ZUZENEKOA



ENTZIERROA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN

EKAINAREN 24AN, 09:00ETAN

ONDOREN BIGANTXAK ZEZEN PLAZATIK

ZUZENEKOA



'JAIK' SAIO BEREZIA

ARRASATEKO SANJUANAK

EKAINAREN 28AN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTAKO SAIOA

BABESLEA:

LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA

goiena

Zu hemen zaude.

Etxe-Lan



Zerbitzu tekniko ofiziala.

Etxetresna elektrikoen
KONPONKETAK

943 79 89 97

FAGOR 

 **Whirlpool**

 **COINTRA**

 **ferrol**

 **sime**

 **RED sareteknika**



Ostalaritzako, garbitegiko
eta hotz industrialeko
SOLUZIO INTEGRALAK

FAGOR 
PROFESSIONAL

943 79 12 30

www.etxe-lan.com

Aurten bai! Ondo pasa San Juanak!

Giro bikainean joan dira Beheko kaleko jaiak

Bereziak izan dira jaiak aurten. Bi urteko etenaren ostean bazegoen elkartu eta festa giroan gozatzeko premia. Horrekin batera, jai batzordeak antolatutako ekintzak ez dira nolanahikoak izan, eta, behingoagatik, eguraldiak lagundu egin du

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

"Beheko kaleko jaietako batzordeak eskerrak eman gura dizkiegu modu batera edo bestera auzoko jaiak aurrera ateratzen lagundu duten guztiei. Eguraldia lagun, giro ederra sortu da auzoan. Mila esker!". Beheko kaleko jai batzordeak helarazitako mezua da, behin jaiak amaituta.

Bi eguneko jaiak izan dituzte Torrealdean, eta bi urteko etenaren ostean argi ikusi da elgetarrek ere badutela parrandarako gogo. Alegia, ez dituztela umore ona eta festarako grina galdu.

Auzotarrak aritu dira lanean festak antolatzeko, eta aurten nobedadeak ere izan dira. Nagusia, Atracciones Sanz-en birtarte ekarritako txirrista erraldoia. Neska-mutikoak ibili ziren, gehienbat. Egon zen txirristatik kanpo ere busti zenik.

Bits festarekin jarraitu zuen egitarauak. Halakoak ere aspal-di ikusi gabeak ziren Elgetan.



Bizikleta lasterketako sari banaketa, barikuan. IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

140 lagun auzo-afarian

Barikuan jarraitu zuen festak. Bizikleta kriteriuma, entzierroa –hau ere zezen erraldoiekin–, buruhandiak, Amaia DJren disko-festa eta Unai Cantabranaren kontzertua izan ziren, besteak

beste. Auzo-afarian, berriz, 140 elkartu ziren; 70 bat neska-mutiko eta beste 70 bat heldu.

Gauargi taldearen erromeria eta Beheko kaleko jaietan hasieratik ohitura den Mojito gaua ere arrakastatsuak izan ziren.



Txirristan behera, Beheko kaleko jaietako lehen egunean. L.Z.L.

50 metroko txirrista freskagarria

Eguenean hasi ziren Beheko kaleko jaiak eta eguraldi onarekin joan dira aurten. Eskerrak, izan ere txirrista erraldoia eta bits festa zeuden iragarrita. 75 metroko txirrista ekarri zuten Elgetara. Torrealdeko aldaparen ezaugarriak kontuan hartuta 50 metrokoa jarri zuten, azkenean. Gustura ibili ziren neska-mutikoak.

Hurrengo, Ferixa Nagusiko jaiak

Hilaren 30ean izango da Mozorro jaitsiera eta horrekin hasiko dira 2022ko Ferixa Nagusiko jaiak. Salgai daude dagoeneko herri bazkarirako txartelak –5 euro–, saihekirako txartelak –3 euro–, haurren bazkarirako txartelak –5 euro– eta erretiratu bazkarirako txartelak –12 euro–. Karraju dendan daude eskuragarri. Domekan Baiko enpresak antolatuta egingo den pilota jaialdirako sarrerak ere salgai daude Bolatokian eta *baikopilota.eus* atarian.

Larrain dantza errepasatzeko saioak ere badaude aurten. Herriar talde batek antolatuta elkartzen dira interesatuak egunetan, 19:00etan, frontoi zaharrean. Hiru saio egingo dira, guztira.



IRATXE BRAVO

Fronteniseko txapeldunak

Elgetako frontenis txapelketak baditu irabazleak. Emakumezkoetan, Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua 25-17 nagusitu dira Imaz-Arruabarrena bikotearen aurrean. Gizonezkoetan, Enrike Elkorok eta Eñaut Arantzetak jantzi dute txapela, Belamendia-Bikuña bikoteari 25-19 irabazita. Parte-hartzaileei, herritarrei eta babesleei eskerrak eman dizkiete antolatzaileak.

Erretiratuek irteera antolatu dute uztailaren 6rako

San Fermin egun bezperan Gipuzkoako kostaldera egingo dute Xalbadorpe elkarteko erretiratuek. Hondarribia izango dute helmuga eta bertako batzokian egingo dute bazkaria. Aurretik, Jaizkibel ingurua ikusi nahi dute, eta Guadalupen egingo dute eguneko lehen geldialdia hamarretakoa egiteko.

Hurrengo domekan, hilaren 26an, zabalduko dute izena emateko aukera. Ozkarbi elkartean izango dira zuzendaritza batzordeko kideak, 11:00etatik 12:30era, zeregin horretarako. Prezioa 30 euro da.

Horrekin batera, urteko kuota ere kobratuko dute. Kuota hori 10 euro da.

OHARRAK

Mendi irteera domekan

Puttarrira antolatu du irteera Kantsatzeke mendi taldeak. Taldea 08:00etan abiatuko da.

Podologoa erretiratuendako

Ekaineko kontsulta astelehenean izango da. Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 telefonora (Maite Elkorok).

Udako ordutegia liburutegian

Astelehenean aldatuko da zerbitzuak duen ordutegia. Irailaren 11ra bitartean astelehenetan 14:30etik 20:00etara egongo da zabalik eta martitzenetatik barikuetara 10:00etatik 13:00etara.

San Juan bezpera

Maala guraso elkarteak jakinarazi du ekainaren 23an Xaibor DJ izango dela Elgetan, 18:30etik 20:00etara. Ondoren, ogitartekoak banatuko dituzte borondate truke. San Juan sua ere piztuko da. Ilundutakoan izango da hori.

Gaztekonkis lehiaketa hilaren 25ean

Izena emateko aukera dago oraindik ere. DBH3ko gazteei ere zabalik da ekimena.



Ainhoa Lete, Markel Olano eta Gorka Artola udaletzeko osoko bilkuren aretoan, asteon. JOKIN BEREZIARTUA

Elkarlana eta lankidetzaz, "etorkizuna eraikitzeke"

Diputazioaren Etorkizuna Eraikiz egitasmoa kapsulan 96 bergararrek egin zuten ekarpena eta haien arabera mugikortasunari (%18,7), gizarte politikari (%16,5), azpiegiturari (%13,2) eta ingurumenari (%12,1) lotutakoak dira kezka nagusiak

Jokin Bereziartua BERGARA

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano Bergaran izan da asteon, Bergarako proiektu nagusiei buruzko ikuspuntuak partekatu, martxan jarritako ekimenen berri eman eta Etorkizuna Eraikiz kapsularen bidez jasotako proposamen nagusiak aztertzeke. 2021ko urriaren 20an

jarri zuten kapsula San Martin plazan eta 96 proposamen jaso ziren; bergararren kezka nagusiak mugikortasunari (%18,7), gizarte politikari (%16,5), azpiegiturari (%13,2) eta ingurumenari (%12,1) lotutakoak dira. Hainbat eskaera zehatzen artean, honako hauek egin zituzten bergararrek: autobideak doan

jartzea; kanpoko igerilekuak handiagoak egin eta instalazioak hobetzea; alokairurako etxebizitza merkeagoak; gazteentzat aukera gehiago...

2040ko Gipuzkoari begira

Gipuzkoak "pertsona guztiei babesa, lana eta etorkizuna" eskainiko dien herrialdea izan

nahian, erakundeen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu zuen Olanok, herritarren egungo eta etorkizuneko beharrei "modu integralagoan eta koordinatuagoan" erantzuteke: "Alde batetik, horrek esan nahi du erakundeen arteko lankidetzaz eta harreman-ildoak estutzea, eta, bestetik, herritarren proposamenak eta iritziak jasotzeko bideak indartzea". Kapsula Bergarara ekarrita, 2040an Gipuzkoak zer balio mantendu beharko lituzkeen galdetzen zitzairen, besteak beste, herritarrei. Diputatu nagusiaren arabera, ekimen hau "tresna eraginkorra" izaten ari da eta dagoeneko 23 herri eta hirigunetan egon da, eta baita lau unibertsitate campusetan ere. Gipuzkoako gizartearen 3.000 ekarpen baino gehiago jaso dituzte, eta "ekarpen guztiak" kontuan hartuko dira foru erakundearen aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan.

"Gobernantza eredu berria"

Etorkizuna Eraikiz egitasmoa 2016an sortu zenetik, Olanoren arabera, herritarren 125 proiekturi eman diete laguntza, 32 proiektu esperimental jarri dituzte abian, eta "erreferentziako" bederatzi zentro garatu dituzte lurraldearen erronka sozial eta ekonomiko nagusietan eragiteko. Ahalegin horretan guztian "funtsezkoa" izan da udalerrien eta herritarren parte-hartzea: "Gainerako erakunde, enpresa,

gizarte-eragile eta, oro har, herritarren parte-hartzeak indar handia ematen dio gobernantza-eredu berri honi. Guztion ekarpena eta konpromisoa ezinbestekoa da Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzeke".

Eredu "ezaguna" herrian

Gorka Artola alkatearen arabera, "positiboa" da herritarrek ekarpenak egin izana: "Horretan arituak gara bergararrak, izan ere, ari gara dagoeneko herritarrekin gure etorkizunak nolakoa izan behar duen diseinatzen, partekatutako gobernantza ereduarekin lanean. Hala egin dugu *Bergara 2030 Egin herrixa* plan estrategikoan. Bestetik, Etorkizuna Eraikiz barruan ere, Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala proiektua lantzen ari gara. Herritarrek erdigunean jarritako lan egiten dugu, eta horretarako ezinbestekoa da haiek entzutea eta bidea elkarrekin egitea, pertsonen artean elkar entzutea baita herritarrek dituzten beharrei egoki erantzuteko modurik aproposena. Oraingoan Gipuzkoak dituen erronken inguruan ere egin ditugu ekarpenak, Bergaratik".

2040KO GIPUZKOARI BEGIRA, HERRITARRAK ERAKUNDEEKIN GEHIAGO INPLIKATZEA DA NAHIETAKO BAT



JUSTINA ELEXPURI

Aitortza Larreari, San Antonion

San Antonioko jaien barruan, ekainaren 12an, txistulari bandaren kontzertua izan zuten. "Kontzertu ederraren ostean, Valentin Larrea musikagile ezaguna omendu genuen. Haren bilobak izan ziren, eta oso hunkituta jaso zuten aitortza", dio Patxi Uribealgok. Larreak txistulari

bandarentzat konposatutako pieza onenaren saria jaso zuen 1905ean Bergaran. Omenaldiaren ostean 50 bat lagun elkartu ziren bazkaltzeko; azken ekitaldia domekan izango dute, hilak 19; Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketa, kadete mailan (17:00).



OIHANA ELORZA

Ikasturte amaiera Angiozarren

Angiozarko trikiti eta pandero eskolako ikasleek eguazten arratsaldean egin zuten ikasturte amaierako emanaldia, San Migel parrokiako arkupeetan. Manex Torrealdei irakaslearen gidaritzapean, Antzuolako, Bergarako eta Angiozarko ikasleek hainbat pieza interpretatu zituzten; abestien artean, Huntza taldea izan zen protagonistetako bat.

Udako zientzia tailerrek badute lekua oraindik

Laboratorium museoak ume eta gaztetxoei zuzendutako doako sei tailer antolatu ditu, besteak beste, saguzarren deiak ultrasoinuz entzutekoa edota urpeko indusketa arkeologikoa egitekoa; izena emateko lehenbailehen deitu behar da: 943 76 90 03

Jokin Bereziartua BERGARA

Askotariko udalekuen artean bereziak dira Laboratorio museoak antolatzen dituen udako jarduerak. Azken plazak betetzeke daude; izena emateko, lehenbailehen deitu behar da 943 76 90 03 telefono zenbakira.

Historiaurrean kokatutakoetatik

Sei tailer emango dituzte, doan. *Levanteko labar artea* izena jarri diote lehenari, ekainaren 28an egingo dena, 10:00etan eta 17:00etan –bi ordu baino gutxiago iraungo du–. Unibertsitateko historiaurreko ikerlariak gidatutako saioa da, 8 urtetik gorakoei zuzendua: "Historiaurrean gure arbasoek pintatzen zuten bezala pintatu nahi duzu? Zatoz propio egindako pareta batean zure markak uztera eta eskuak zikintzera".

Bigarren tailerra mikrometeoritoen ingurukoa izango da, ekainaren 29an (10:00), Aranzadiko astronomoen laguntzarekin: "Zergatik desagertu ziren dinosauroak? Zer dira ozar-izarrak? Zein da meteoritoen, meteoroen eta meteoroiden arteko aldea? Non aurkitu ditzakegu mikrometeoritoak? Galdera horiek eta gehiago erantzungo ditugu, unibertsoa ezezagun zaizkigun elementuaz osatuta dago eta".

Egungo ezagutza garatzera

Hirugarren tailerrari *Zientziaren sukaldearekin* jarri diote izena eta uztailaren 4rako eta 6rako antolatu dute, 8 eta 12 urte arteko umeendako. Laborategian sartuko dira: "Kimikako hainbat esperimenturekin gure ingurunean eta gure barnean gertatzen diren aldaketak ikasiko ditugu, zientzia egunerokotasunera hurbilduta. Umeek kimika ikasi eta une dibertigarria pasatuko dute, esperimentuekin harrituta geratuko dira-eta".

Laugarren ikastaroa ezaguna izango da zenbait herritarren-



Urpeko indusketa, *Uluburu* itsasontziaren erreplikari. JAGOBA DOMINGO

12 URTETIK GORAKOEK 3D-N DISEINATU AHALKO DUTE, CAMPUS TEKNOLOGIKOAN

dako, hainbat urtez antolatu izan dute-eta ilustrazio botanikoa lantzeko saioa: "Ezagutza behar da polinizazioak eta polinizatzaileek ingurumenean duten garrantziaz jabetzeko eta horiek babesteko jarrera aktiboa gartzeko. Marrazketa, gainera, tresna ezin hobea da horretarako. Gaztetxoak Errekaldeko lorategian ibiliko dira ikusten dutena marraztuz. Natura zientzialarien begietatik begiratuko dute". Ilustrazio botanikoaren saioa uztailaren 5ean izango da (10:00), eta 6 eta 12 urte artekoek dago zuzenduta.

Bosgarren tailerrean izena ematen duten familiek saguzarren deiak entzun ahal izango dituzte, uztailaren 7an (21:00). *Gure bizilagunak onena* izenarekin bataiatu dute tailer berezi hau: "Gau epelak hemen dauka dagoeneko. Zergatik ez apro-

betxatu? Bizidun batzuk behatzera joan gaitezke; adibidez, saguzarrak. Naturtzaindiko kideen eskutik egingo da, Mendiak Bizirik elkartearen laguntzarekin. Iluntzean, parte hartzaileek saguzarren deiak entzun ahal izango dituzte ultrasoinuen detektagailuak erabilita. Horri esker, bertan hegan dabilen saguzarren espezieak identifikatu ahal izango dituzte".

Doako seigarren tailerrean ur azpiko indusketa arkeologikoa egingo dute; Agorrosinen izango da, uztailaren 8an (09:00), 8 eta 12 urte artekoendako. Proposamen interesgarria da: "Duela ehunka urte hondoratu zen itsasontzi bat induskatu ahal izango duzu. Ur azpian dauden objektu eta bitxiak aurkitu eta berreskuratuko dituzu, ondoren aztertu eta sailkatzeko".

3D-n diseinatzen

Doakoa ez den ikastaro bakarra campus teknologikoarena da; ekaineko azken astean da, 12 urtetik gorakoentzat. 3D diseinuan lehen urratsak egingo dituzte eta eredu digitalak plastikozko pieza bihurtzeko beharrezko prozesuak ikasiko dituzte.

Otaba jaiak ere bueltan datoz, bertso afari, pentatloi eta guzti

Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariek girotuko dute afaria; pentatloian, 'Izeta' eta Zaldua aurrez aurre

J.B. BERGARA

Otaba jaiak ere bueltan datoz, hiru eguneko egitarauarekin. Bihar hasiko dira: Pol-Poleko iturburutik abiatuta uraren bidea egingo dute (09:30-14:00); herri bazkaria (14:30); mus txapelketa (16:30); triki-poteoa (19:00); eta bertso afaria Elur-Mendi elkartearen, Iban Urdangarinarekin eta Iker Zubeldiarekin (20:30).

Pentatloia: 'Izeta' eta Zaldua

Domekan, berriaz, honako hau izango da egitaraua: alebin mailako Bergarako eta Azkoitiko pilotarien arteko partidua (12:00); meza nagusia (13:00); erretiratuen bazkaria Elur-Mendi elkartearen (14:00); Andoni Iru-retagoiaren *Izeta* eta Xabier Zaldua lehiatuko dituen pentatloi proba (18:00); amaitzeko, erromeria izango dute. Jaiak astelehenean amaituko dira, Otaba



Donato Larrebxea, 2017ko jaietan. GOIENA

Txiki egunarekin: hildako auzotarren omenezko meza (11:30); luntxa (13:00); auzo bazkaria (15:00); ume, gazte eta zaharrentzat jolasak (17:30); triki-poteoa (19:00); auzo afaria eta erromeria (21:00); banderaren jaitsierarekin amaituko dira festak.

'Dolmenen ibilbidea': liburu bat aurkeztuko dute etzi, Karakaten

Aranzadi Zientzia Elkartek *Dolmenen ibilbidea*-ren gaineko argitalpen bat aurkeztuko du domekan, Karakateko aparkalekuan (11:00). Liburu hau Telesforo Aranzadi bilduman argitaratuko da, eta, besteak beste, Jesus Tapiarkeologoak idatzi du, azken urteotan dolmenen ibilbideko indusketen zuzendaria izan denak. Liburua 5 eurotan erosi ahal

da, Laboratorioaren, Elgoibarko Aita Agirre kultura-gunean eta Soraluzeko udaletxean. Ekitaldian, Bergarako, Soraluzeko eta Elgoibarko ordezkari politikoeak hartuko dute hitza, eta, ondoren, Tapiak liburuaz egingo du berba. 11:30ean, historiaurreari buruzko tailerrak izango dira umeendako, Hezur Museoko Jose Julian Marquezen eskutik. Azkenik, 12:30ean, salda eta txorizoa banatuko dute. Bertaratutakoek liburu bat eskuratu ahal dute, doan, agortu arte.

OHARRAK

San Martzial: mahaian eta aulkien alokairua

Uztailaren 3an egingo da San Martzialgo erromeria. Oraindik mahairik eta aulkirik balego, hurrengo aukera ekainaren 22an egongo da, Seminarixoko leihatilan, 18:00etatik 20:00etara. Prezioa 25 euro da, mahai bategatik eta zortzi aulkirengatik.

Euskaraldiak dinamizatzailea behar du

Gaur, ekainak 17, da izena emateko azken eguna. Uztailaren 1etik abenduaren 31ra, zortzi orduko lanaldia eskainiko dute. Izena emateko: jardun@topagunea.eus edo 605 71 24 99.

Ehundu: 'Finantza etiko eta burujabeak'

Hitzaldia UNEDen izango da; ekainaren 21ean, 18:30ean.



Jaialdiko une gorenetako bat bizi izan zen Arrasateko Des-kontrol taldearen *Duintasunez eutsi* abestian. EKANDA EKOIZPENAK

Bigarrena egiteko lehengaia badago

"Erabateko arrakasta" izan da Agorrosingo belar naturala agurtzeko modurik aproposena izan den Ekinez jaialdia; 4.200 bat lagun egubakoitzean eta 4.500 inguru zapatuan eta intzidentziarik gabe, antolatzaileak gogotsu daude bigarren baterako, ahal dela Bergaran

Jokin Bereziartua BERGARA

"Arrakasta" hitzak definitzen du Ekinez jaialdia. Arrakasta, zentzu guztietan; agertokian izan diren taldeen kontzertuak bakarrik izan dira, musikariak dena eman dute oholza gainean eta publikoaren erantzuna sekulakoa izan da. Uste dugu ekarri ditugun taldeekin bete-betean asmatu dugula eta artisten feedbacka espero genuena baino askoz hobea izan da; oso-oso pozik eta eskertuta utzi zuten Agorrosin". Hitz horiekin baloratu du Ekinez kultura elkarteak Julen Iñarrak Agorrosinen lehenengoz antolatu den jaialdi erraldoia.

Zapatuan, 4.500 ikusle inguru

Datuak ez dira gutxiagorako. Euskal Herriko punk-oi! mugimenduan "erreferente" diren 18 musika talde eta egubakoitzean

zein zapatuan 4.000 lagundik gora Agorrosingo futbol zelaian. "Egubakoitzean 4.200 ikusleren bueltan ibiliko ginen eta zapatuan 4.500 lagun inguru izan genituen; lehen edizio bat izateko eta izan ditugun baliabideetarako, datua izugarria da. Uste dugu horrek esan nahi duela orain arte bere lekua izan ez duen kaleko musika alternatiboaz gozatzeko sekulako interesa dagoela", deritzo Iñarrak. Beste ediziorik egingo den galdetuta, Iñarrak dio halako harrerak indar handia ematen diela bigarrenari begira lanean jartzeko: "Hasieratik esan izan dugu ez dugula nahi Ekinez izeneko aventura jaialdi honekin amaitzea, eta lehen edizio honek indar handia ematen digu bigarrenari begira jartzeko. Balorazio bilerak egingo ditugu, baina oso gozoa da ahoan dugun zaporea".

Intzidentziarik ez apenas

Halako jendetza batuta ere, apenas egon da intzidentziarik: "Anbulantziek apenas izan dute lanik eta segurtasun aldetik ere ez da ezer aipagarrikerik gertatu". Taldeen arteko aldaketak "nahiko azkarrak" izan ziren eta zuzenekoetako giro beroa apur bat hoztu zen uneren batean, etenaldi motz batzuk izan ziren-eta argindarrarekin. Gainerakoan, "dena borobil" irten zen.

Agertokia izan bazen ere jaialdiaren bihotza, askotariko "marka alternatiboan" azokak "oso ondo" funtzionatu zuen, eta baita edariak eta jana saltzeko barrek ere. Eta, jende askorik erakarri ez bazuten ere, zuzeneko DJek ere giro ederra jarri zuten. Izan ere, Agorrosin horren espazioa zabala izatera, ikusleek aukera izan dute nahi zuten tokia hartzeko; zapatuan euri



Elorrioko Iheskide taldearen zuzenekoak, zapatuko seigarren taldea. EKANDA EKOIZPENAK



Askotariko "marka alternatiboan" azokak oso harrera ona izan zuen. IMANOL SORIANO

apur bat hasi zenean, esaterako, harmailak goraino bete ziren, futbol partidu baten sekula edo oso gutxitan ikusi den irudia utzita: "Eskerrak euriak ere ez zigun arazorik sortu..."

Udala ere, "eskertuta"

Udalaren partetik ere erantzun ona jaso dute antolatzaileak: "Eskertu egin digute halako jaialdi bat antolatu izana eta oso pozik geratu dira". Esker on mezua ere badute: "Barretan lanean aritu direnak, segurtasunaz arduratu direnak, azken orduko ezustekoei aurre egiten lagundu digutenak, hornitzaileak... Doakiela gure eskerrik beroena".

"BALORAZIO BILERAK EGITEKE, AHOAN OSO ZAPORE GOZOA DUGU"

"EKARRI DITUGUN TALDEEKIN ASMATU DUGU, BETE-BETEAN"

"LEHEN EDIZIO HONEK INDAR HANDIA EMAN DIGU HURRENGORAKO"

JULEN IÑARRA, EKINEZ ELKARTEA

Iragana, oraina eta etorkizuna

Iraganetik itzuli diren taldeak izan ziren; tartean, Aretxabale-tako Neallta Fola eta Ondarroako Jonny Gerriwelt. Bi talde horiek ez daude ohituta halako agertoki handietara –duela 15 urte ez zen halako jaialdirik antolatzen–, baina igarri zen, gorabeherak gorabehera, emanaldia ondo prestatu eta mimatu zutela. Publikoan talde horiek sekula ikasi bako gazte asko, eta gozatu ederra hartu zuten.

Bestalde, egun bogan dauden taldeek argi utzi zuten sasoiko daudela; egubakoitzean, Unidad Alavesa, Rotten XIII eta Kaleko Urdangak taldeenak izan ziren emanaldi jendetsuenak –Barne Gudaren azken kontzertuan ere jende askotxo egon zen–. Zapatuan, berriz, bereziki Des-kontrol eta Brigade Loco taldeek eragin zuten eromena publikoaren artean; *Brigade*-k era hunkigarrian itxi zuen jaialdia, Mikel Ugalderi eskainitako Frontkick-en *We are gonna be together* bertsoa jota. Eta, amaitzeko, talde gazteak ere izan ziren protagonista, antolakuntzak bereziki zaindu zuen-eta harrobia: No Limits, Pubic Enemy eta Alerta Gorria taldeek nekez ahaztuko dute Agorrosinen bizi izandakoa.



Jokalariak areto futbol partida jokatzen 2018ko Semicup lehiaketan. GOIENA

Dena prest daukate Semicup txapelketarako

Bi urteko geldialdiaren ondoren itzuliko da Semicup areto futbol txapelketa eta bihar lehiatuko dira hamabi talde aurrez aurre Bergarako Seminarixo aurrean. Parte hartzaile kopuruak ez du gora egin, baina giro ederra espero dute antolatzaileek

Beñat Alberdi Igartua BERGARA

Goizean goizetik hartuko du areto futbolak Seminarixo aurreko kantxa eta ez du lekua libratuko ia ilundu arte; arrazoia, Semicup lehiaketa. Ez dute antolatu azken bi urteetan, baina, behin pandemia garaia atzean utzita, hamabi talde lehiatuko dira txapelaren bila. Barra bat jarriko dute, ikusleen mesedetan.

"Orain artean, erdizka ibili baino nahiago izan dugu ezer ez antolatzea", azaldu du Andoni Bretainak, antolakuntzako kideak. Iaz mahai gainean izan zuten ahal zen moduan zerbait prestatzea; hala ere, maskarak eta egoera kontuan hartuta, aho batez onartu zuten antolatzaileek hobe dela urte bat itxarotea.

Pandemiaren aurkako neurriak kenduta beste itxura bat du aurtengoak. Ekainaren 8an itxi zuten parte hartzeko izena emateko epea, baina hamabi taldek eman dute izena lehiaketan, hamaika bergararrak eta bat

Elgetakoa, eta partiduetako ordutegiak jarrita dituzte, baita iraupena ere: 15 minutu. Jokatzeko zela bakarra izaki, bana-jokatuko dituzte partidak. Bi taldetan bereiziko dituzte lehiakideak, sei eta sei. Elkarren aurka behin jokatuko dute talde bereko ekipoek. Puntuazioa futboleant erabiltzen duten berdina izango da; hau da, irabazlearentzat hiru, berdinketa bada bana, eta huts galtzen dutenen kasuan. Fase honetarik talde bakoitzetik lau igaroko dira final laurdenetara.

Txapelaren bila azken fasea

08:30etik 15:45ak arte iraungo du lehenengo zatiak. Bazkaltzeko edo atseden hartzeko tartea

BARRA BAT JARRIKO DUTE EDARIENTZAKO ETA MUSIKA EGONGO DA BOZGORAILUETATIK, GIROA BEROTZEKO

izango dute ostean, 17:00etan hasiko baita azkenengo fasea. Sailkatu diren zortzi taldeek, sailkapenaren arabera, final laurdenak jokatuko dituzte, final erdiak irabazleek eta, hirugarren eta laugarren postuaren ondoren, finala. Hamabost minutukoak izaten jarraituko dute partidek. 19:00etan izan beharko luke sari banaketak.

Pandemia igaro eta gero gerta litekeena aurreikustea zaila dela aipatu badu ere, giro polita espero dutela nabarmendu du Bretainak. "Jokatu duten taldekideak hurrengo ikusten gelditzen dira, eta goizean hotz hasten da, baina giroa berotzen doa". Partidek irauten duten bitartean barra bat jarriko dute edarientzako eta musika egongo da bozgorailuetatik, giroa berotzeko.

"Arratsaldean giroa bestelakoa izaten da", gaineratu du antolatzaileak. Jendea kalera atera ahala Seminarixo aurrera joaten dela azaldu du Bretainak.



2019ko hiruko saskibalo lehiaketan partida bat abian. GOIENA

Eguenean bukatuko da hiruko txapelketan izena emateko epea

Hurrengo astebukaeran jokatuko den arren, datorren astera arte zabalik dago izen ematea, telematikoki

Beñat Alberdi BERGARA

Hamalau garrenez hartuko du hiruko saskibalo txapelketa San Martin Agirre plazak, ekainaren 25ean eta 26an, Bergarako Kirol Elkarteak antolatuta. Parte hartzeko bidea zabalik dago: Instagrameko @bergara_saskibaloia kontura idaztea.

Euskal Herriko herri guztietara dago zabalik gonbidapena eta San Martin Agirre plazan beharko luke, euria egin ezean. Euria bada, udal pilotalekura mugituko dute lehiaketa.

Sei mailatan banatu dute lehia. Zapatuan, goizez, infantilek eta

kadeteek jokatuko dute hiruk hiruren aurka. Sariak irabazleentzat 50 eta 75 euro dira, hurrenez hurren. Trofeoa eramanango dute bigarrenek bi kasuetan.

Arratsaldean, berriz, juniorrak eta seniorrak lehiatuko dira. 100 euro dute sari lehenek eta 120 euro metalikoan jasotzeaz gainera, afarirako bonua jasoko dute bigarrenek. Gazteenentzako erreserbatu dute domeka, alebinek eta benjaminen jokatuko baitute.

Kirol Elkarteak argitu du saskibaloia sustatzea daukatela helburu.

Ez zuen lortu Berrocalek txapela janztea egubakoitzeko finalean

Joan den ostiralean jokatuko zuten Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketaren finala Bergaran

Beñat Alberdi BERGARA

Etxean jokatuko zuten Maddi Berrocal pilotariak klubaren arteko finala, baina etxekotasuna ez zen aski izan lehian gailentzeko. Miren Arraiza donostiarra eraman zuen garaikurra, 13-22 irabazita.

Nagusi izan zen bergararra partidaren lehen zatian. Pilota ondo astintzen eta tantoak bukatzen aritu zela aitortu du Berrocalek. Partida, edozelan ere, luze joan zen eta markagailuari buelta ematen jakin zuen antiguarrak. Sakearekin

jakin zuen Arraizak jokoa desorekatzen.

"Pena izan da nire herrian ez irabaztea", argitu du Berrocalek. "Baina partida asko jokatzeak aukera daukat eta espero dut hurrengo irabaztea". Horrez gainera, partida gehienetan ondo jokatutako duela eta maila ona eman duela uste du pilotariak.

Txapelketan neska askok parte hartzen dutela eta, maila ona dutenez gero, lehia gogorra izaten dutela nabarmendu du Berrocalek. Udan ere lehiatzen jarraitzeko asmotan da.

Musika elektronikoaz blai kartzela zaharra bihar

Bergarako Elektronika Topaketa egingo da bihar, arratsaldeko bostetan hasita, kartzela zaharrean; Euskal Herriko eta Espainiako bederatzi talderen emanaldiek osatzen dute kartela eta sarrerak zazpi eurotan egongo dira salgai egunean bertan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Bi urteko geldia ostean, Bergarako Elektronika Topaketaren (BET) seigarren edizioak Bergarako, Euskal Herriko eta Espainiako artista esanguratsuak bilduko ditu bihar kartzela zaharrean. Hamahiru orduz etengabeko musikaz gozatzeko aukera izango dute. Halaber, kartzela zaharra 22. urteurrena ari da ospatzen, eta urteurrenaren baitan kokatu dute aurten topaketa.

Elektronika gustuko duten bospasei lagunek osatutako talde batek antolatu zuen jaialdia 2013an aurreneko aldiz. Asier Balzategi da horietako bat, eta, adierazi duenez, hainbat elektronika diziplina –DJak eta VJak– lantzen dituzten lagun talde bat dira, eta denen artean antolatzen dute. Bederatzi urtean sei edizio antolatu dituzte, eta orain, seigarrenaren prestaketa lanen azken txanpan daude murgilduta antolatzaileak.

Urteroko formula bera

Zuzenekoak eta DJak izango dira protagonista, eta horiek txandakatzen joango dira, arratsaldeko bostetatik aurrera. Bi gunetan jarriko dute musika: batetik, aretoan; eta bestetik, tabernako oholza txikian: "Dena



2019an ospatu zuten azkenengoz Bergarako Elektronika Topaketa. IMANOL SORIANO

jarraian izango da. Bi eszenatoki dauzkagu, eta, beraz, alternatzen joango dira. Batean musika dagoen bitartean, bestea prestatuko dugu hurrengo emanaldirako". Halaber, pandemiaren ostean, jendea gauzak egiteko eta disfrutatzeko gogoz dagoela nabarmendu du.

Bederatzi artistaren emanaldiek osatzen dute kartela. Zuzenekoak dagokienez, Compütah ekoizle bartzelonarrak White Solar Dog proiektua aurkeztuko du. Alayn Carazo eta Jokin Guridi ere izango dira, Eyharts

proiektuarekin. Iñigo Medina legazpiarra M4rekin izango da, eta Abrego anaiak eta Drake hirukotea -Gailurekin. Musika jartzeaz, berriz, Sarah Rasines burgostarria, DJ Bihotza eta DJ BET arduratuko dira, besteak beste.

Sarrerak, egunean bertan

Sarrera zazpi euro da, eta egunean bertan erosi ahal izango dira. Edukiera mugatua da, eta 350 txartel jarriko dituzte salgai. Antolakuntzatik azpimarratu dutenez, sarrera guztiak saltzea espero

dute, baina uste dute "poliki-poliki" izango dela: "Normalean, jendea ez da hasieratik etortzen, arratsaldean hasi eta berandu arte irauten duen festibala delako, jendea banandu egiten da". Alderantzizkoa ere gertatu ohi da: "Jendea hasieran etortzen da, baina, gero, gauean ez".

Irabazi asmorik gabe

2013an hasi ziren topaketa elektronikoa egiten. Azken urteetan kartzela zaharrean egin den arren, ez da beti hala izan: "2013an, Bergarako Udalaren laguntza izan genuen, eta ekitaldi nagusia Seminarioko karpan izan zen". Urteren batean Zabalotegiko aretoan ere egin izan da. Pare bat urte ezer antolatu gabe egon ziren: "Eta berriz ekimena muntatzen hasi ginenean, gaztetxean zentratu ginen".

Hasierako urteetan helburu "zehatzik" ez zutela dio Balzategi: "Guk ondo pasatzeko eta lagun artean festa bat egiteko antolatzen hasi ginen. Urte haietan, musika elektronikoa ez zen hain popularra eta gure beste helburuetako bat giro popularragoetan aurkeztea zen. Seminariora eramanez, esaterako, jende guztiarentzat zabalik dagoen festibala bezala".

Elektronikak indarra hartu du eta asko zabaldu da. Balzategiren hitzetan, "elektronikaz hitz egiteak zentzua galdu du, ze elektronika ia musika estilo guztietan dago. Gure asmoa elektronika duten talde eta egitasmoak aurkeztea da".

Urtean zehar sei pertsonako taldea ibiltzen da: "Kontuan izan behar da, ordea, egunean bertan boluntarioek hartzen dutela parte eta kartzela zaharrean egiten diren ekitaldiak irabazi asmorik gabekoak direla".

Etenik ez duen topaketaren egitaraua

Arratsaldeko bostetan hasi eta goizeko ordu txikiak arte iraungo du Bergarako Elektronika Topaketak. Hamar emanalditan banatu dute programa; batzuk tabernako eszenatoki txikian izango dira eta beste batzuk aretoan.

Taberna

- 17:00-18:00 BET.
- 19:00-21:00 Sarah Rasines.
- 22:00-00:00 Odd Signals.
- 01:00-02:00 M4.

Aretoa

- 18:00-19:00 L'Espoir Underground.
- 21:00-22:00 -Gailu.
- 00:00-01:00 White Solar Dog.
- 02:00-03:00 Eyharts.
- 03:00-04:00 BET.
- 04:00-06:00 Bihotza.

Sarrerak zapatuan erosi ahal izango dira, zazpi euroren truke, eta 350 txartel jarriko dituzte salgai. Sarrerak agortu egingo direla aurreikusten dute antolatzaileek.

KARTZELA ZAHARREKO TABERNAN ETA ARETOAN IZANGO DIRA EMANALDIK, TARTEKATUTA

Koldo Eleizalde sariak, bueltan

Zapatuan eman zituzten Koldo Eleizalde literatura lehiaketaren 37. edizioko sariak. Guztira, 460 lan jaso dituzte, eta haur nahiz gazteek askotariko generoak landu dituzte. Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuburu Estepan Plazaolak antzerki eta interpretazio arloko parte hartzea nabarmendu du. Lan sarituak Bergarako Udalaren webgunean argitaratuko dituzte.



IMANOL SORIANO

'Armiarma' obra ikusgai gaur gauean kartzela zaharrean

Kartzela zaharra 22. urteurrena ari da ospatzen, eta, antolatu duen egitarau zabalaren barruan, Katuska antzerki taldeak *Armiarma* antzezlanaren egingo du gaur, 22:30ean. Sarrerek bost euro balio dute. Idoia Gereñu da lanaren zuzendaria, eta Idoia Bengoetxea, Olatz Godoy, Xabi Gomez eta Ander Malbadi igoko dira oholtzara.



Malgutasunetik, ohiko ereduak hausten dituen unibertsitate publikoa

Barrenkalean gora, atari eta etxe-hormen arteko estuasunetik argigunera igarotzen dira herritarrak San Martin Agirre plazara iristean. Ezkerretara, banketxearen aterpetik atzeman liteke plazari entitatea ematen dion lehen eraikina: Bergarako udaletxea. Joan-etorrien eraginez zurigune gutxi dituen zebra-bidera iristean, eskumatera, ageri da bigarren eraikin esanguratsua.

Hamaika dira urteetan izan dituen erabilerak. Egun, baina, hezkuntzaren alorrean estuasunetik argigunera eramateko bidea eskaintzen duen erakunde batek du bertan egoitza: UNEDek.

Malgutasuna

Mende erdira bidean da unibertsitate publikoaren bailarako jarduna. "Tokiko eragileei esker, haien eraginez, eta haien eskutik", hezkuntza zentroko arduradunen hitzetan. Izan ere, Bergarako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxa Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak babesten dute herri, eskualde, Espainia zein nazioarte mailan eragiten diharduen erakundea.

Sorreratik, malgutasuna da UNEDen nortasun eta bide-orri nagusia. Jakintza-arlo zabalean goi-mailako irakaskuntza



Bergarako egoitzan egiten dituzte saio presentzialak irakaskuntza-ereduak hala eskatzen duenean.

eskaintzen dute; humanitate zein zientzietan, ikasketa ofizialak, berezko tituluak edota formakuntzak dituzte aukeran ikasleek. "Prestakuntza zabala, gaurkotua eta kalitatezkoa", irakaskuntza-eredu erdi-presentziala baliatuz.

Bertakoak
Euskararekin zein gizartearekin duten "lotura indartu eta errazteko" eman dute Goiena Komunikazio Taldearekin elkarlanean hasteko urratsa; ingurunearekin "harremanak sendotzeko", alegia. Ikasketa



San Martin Agirre Plaza 4, Bergara
943 76 90 33
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca.bergara

ofizialetan bertako hizkuntzak presentziarik ez duen arren, eguneroko errealitatean eta programazio propioan euskarari dagokion espazioa eskaintzen diote. Udazkenean, esaterako, euskara hutsean izango diren sei ikastaro eskainiko dituzte, zuzenbidea, komunikazioa, historia, zinema, dantza eta musika oinarri hartuta.

Aurrera begira
Udako atsedeneren atarian, jarriak dira 2022-2023ko ikasturteari begira. Datorren eguaztenean, ekainak 22, aurkeztuko dute, Donostiako Koldo Mitxelena (19:00), esku artean izango duten eskaintza; egun berean irekiko dute matrikulazio epea. Zenbakitan, Bergarako hezkuntza zentroan 30 gradu, 11 gradu bikoitz, 80 master, 20 doktoretza programa, 12 mikrogradu eta mikromaster bat kudeatuko dituzte. Bi beritasun nagusirekin: Haur Hezkuntzako eta Energiaren Ingeniaritzako graduak. Formakuntza propio zein jarraituak ere izango dira aukeran.

"Eredu desberdinetan emandako prestakuntza integrala" baitute izatearen oinarri, eta urratutako bideari eutsi eta hobetzea baitute xede. Hala nahi duenak, badu non aukeratu.

GRUPO ORTUIBAR

Gertuko harremanak eta harremanetatik eraikitzen

Adjektibo bat darabilte eraikuntza enpresa bergararreko kideek ahoan: *gertukoa*. 1987a ezkerreko arreta pertsonalizatua izan baitute bide-orri eta helburu; harreman zuzena, proiektuen hastapenetatik, giltzak eskura emateraino. Enpresa txikia izatea lagun dute horretarako.

Baita bertakoak izatea ere. Bailaran dituzte egoitzak, eta bertan egiten dituzte promozio gehienak. Horren adibide, uneotan Aretxabaletan eta Antzuolan martxan dituztenak. Zero kilometro dira, beraz, Grupo Ortuibar, Goiena eta herritarrak batzen dituen distantzia.



Ibargarai 36, Bergara
943 76 11 18
info@grupoortuibar.com
www.grupoortuibar.com



120 giltza emanda, seigarren fasean da Aretxabaletako promozioa.

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Dantzariak, San Migel eta apostoluak Corpus Eguneo prozesioan. GOIENA

Eguraldia da baldintza prozesioa ateratzeko

Oñatiko Corpus kofradiak dena du prest domeka eguerdian prozesioa egiteko herriko kaleetan barrena. Hamabost irudi aterako dituzte San Migel eta apostoluez gain. Nola janzten dituzten ikusteko bisita bereziak egingo dituzte goizean Santa Anan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

2019an egin zen, azkenengoz, Corpus prozesioa Oñatiko kaleetan. Azken bi urteetan apalago ospatu da, pandemiagatik: 2020an telebistaz eskaini zuen meza Goienak eta iazkoa parroikia barruan ospatu zen jende kopuru mugatuarekin. Aurten, baina, herriko kaleetan egitea da Oñatiko Corpus kofradiako kideen nahia, eguraldiak baimentzen badie. Dena dute prest.

Zazpi erreberentzia

Hamabost irudi aterako dituzte prozesioan, San Migel eta hamabi apostoluez gain. Horiekin batera, irudien andariak, jaunartzea egin duten azken umeak, dantzariak, txistulariak, elizgizonak eta kofradiako kideak, besteak beste. 300 bat lagunek hartzen dute parte, modu batera edo bestera, Corpuseko prozesioan.

Meza nagusia 11:00etan izango da eta ostean izango da ordubete inguru iraungo duen prozesioa,

12:00etan. Tarte horretan jantziko dituzte San Migel eta apostoluak Santa Anan, mojek zaindutako arropa eta osagarriekin; bisita gidatuak egingo dituzte prestaketak ikusteko. Kaleak ere apainduko dituzte Corpuseko propioarekin, eta aldareak jarriko ohiko tokietan. Kale Zaharrean, Kale Barrian eta plazan egingo ditu *bueltak* edo erreberentziak San Migelek, eta dantzariak, berriz, lau, betiko moduan: parroikia aurrean prozesioa ateraz bat, Kale Zaharrean, Atzeko kalean eta plazan.

Eguraldi ona egitea eta prozesioa kalean egitea da kofradiakoen nahia, baina badute *B plana* ere prestatuta. Eguraldia hasieratik txarra bada, meza

**300 BAT LAGUNEK
HARTZEN DUTE PARTE
CORPUSEKO
PROZESIOAN, MODU
BATERA EDO BESTERA**

barruan egingo dute: parroikian izango dira apostoluak, irudi batzuk, umeak, dantzariak eta kofradiako kideak. San Migelek parrokiako pasilloan egingo du erreberentzia.

'Sebastian' erraldoia

Domeka eguerdian da prozesioa, baina Corpus ospakizunak gaur, egubakoitza, hasiko dituzte, Oñatzeko dantzariak herriko ikastetxeetan eta hainbat auzogunetan egingo dituzten dantzeekin. Domeka arratsaldean ere ohiko Corpus dantzak egingo dituzte herriko plazan.

Bezperan, zapatuan, Xabier Mendizabal Vitoriano artista oñatiarrak berak egindako erraldoia aurkeztuko dute. *Sebastian* du izena eta gainerako erraldoiekin batera ibiliko da kaleetan, Santa Anatik abiatuta, 19:00etan. Aurretik, 17:00etan, gizakiaren eboluzioa kontatzen duen antzezlan egongo da haur eta gaztetxoendako Etxaluze plazan.

Erosketak egiteko 50 orga gorri zozketatuko ditu Txandak

Herrian erosteak herria bizirik egoteko duen garrantzia adierazi gura du kanpaina berri honekin

O.E.G. OÑATI

Txanda herriko dendarien elkarrekin *Oñatin erosiz, Oñatin bizi!* izeneko kanpaina du martxan, #NiTokikozale sentsibilizazio-kanpainatik abiatuta. Herrian erostera gonbidatu gura ditu herriarrak, "herrian erosteak sekulako indarra eta garrantzia duelako herri bizi baten". Lelo hori irakur daitekeen biniloak jarri dituzte komertzioetan.

Orgak eta opariak

Kanpaina honetan, Oñatiko dendetan kontsumitzen duten he-

rritarren artean 50 erosketa-orga –Txandako kideak adina– gorri zozkatuko ditu herriko dendarien elkarteak. Sari banaketa uztailaren 2an, zapatua, egingo dute, 13:00etan, Errementari Plazan. Sarituak izan direnek dei bat jasoko dute ekainaren 30a aurretik. "Orgen zozketaz gain, Tokikozale zaretenez guztiok ere oparixoa izango duzue zuen erosketak egiterakoan", adierazi dute Txandako kideek. Dendari bakoitzak neuruko du oparien banaketa nola egin.



Kanpainaren aurkezpena egiten. O.E.

Argia kenduko dute Errekalden eguazten arratsaldean

Ekainaren 22an, eguaztena, argia kenduko dute, bi orduz, Errekaldeko transformazio zentroan behe tentsioko koadro baten instalaziorako eta Errekalde 17-19-21-23 etxe blokeetan 400 voltera tentsio aldaketa egiteko. Horregatik, 17:00etatik 19:00etara argia kenduko dute Errekaldeko, Moiuako eta Mendiko kaleko hainbat ataritan.

Uztalean bazkaria egingo dute 1977an jaio zirenek

Aurten 45 urte beteko dituzten kintada-bazkaria antolatu dute uztailaren 9rako. Etxe Aundi jatetxean izango da bazkaria eta ondorengo dantzaldia; 12:30ean Boga tabernan elkartuko dira poteorako. Prezioa 55 euro da eta hilaren 24a aurretik sartu behar da dirua kontu korrante zenbaki honetan: ES19 3035 0005 32 0050084791.

Gaurko pintxo-poteko dirua 'Aita Mari'-ri emango diote

Gaurko, egubakoitza, elkarta-sunezko pintxo-potea antolatu du Hotz Oñatik. Foruen plazan izango da, 19:00etan hasita. Bertan jasotzen den dirua, oso-osorik, Salvamento Maritimo Humanitario elkarteak *Aita Mari* erreskate ontzirako izango da, Mediterraneoan bizi den krisi humanitarioari erantzuteko lanean ari den proiekturako.

Irailaren hasieran egingo dute 50 urte dituztenen kintada

Aurten 50 urte beteko dituzte 1972an jaio zirenek, eta, urteurren borobila ospatzeko, kintada egingo dute irailaren 10ean. Kostaldera joango dira autobusean, Zarautzen bazkalduko dute. Joan gura duenak 100 euro sartu beharko ditu ES66 3035 0170 51 1701044834 kontu korrontean. Ordainketa egiteko azken eguna ekainaren 30a da.



Antixena gaztetxearen 10. urteurrena antolatzen ari diren gazteetako batzuk. 'KONTZEJUPETIK'

Gaztetxe mugimenduak 40 urte, 10 Antixenak

40 urte dira aurren orduko gazteek Olaitturriko eraikina okupatu zutela, gaztetxeen mugimenduari hasiera emanez. Hamar betetzen ditu Antixenak, eta, urteurren biak batera ospatzeko egitarauaren barruan, zapatua izango da egun handia

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Abenduan betetzen ditu urteak Antixena gaztetxeak, eta orduan ziren ospatzekoak hamargarren urteurrena ere, baina, Oñatin gaztetxeen mugimendua hasi zela aurren 40 urte betetzen direla jabetuta, urteurren biak batera ospatzeko erabaki dute. Aste osoan askotariko ekintzak egin dituzte ospakizunen barruan, eta zaturako, biharko, antolatu dute egun osoko egitaraua.

'Sebastian'-ekin adostuta

Urteurren guztietan egin duten moduan hasiko dute eguna zapatuan, zuhaitz landaketa eginez Antixena parkean. Sarreran

dagoen egurrezko taila ere aldatu egingo dute; handiagoa den beste bat jarriko dute. Iluntzeko kalejira elektrotxarangarekin batera egingo dute. *Sebastian* erraldoiaren kalejiraren ordu berean izango da, eta, topo ez egiteko, adostu egin dute bataren eta bestearen ibilbidea.

Domeka eguerdiko kontzertuak emango dio amaiera aste osoko ospakizunari. Abenduan, baina, beste keinu bat egingo diote urteurrenari eta 40 urte hauetan gaztetxeen mugimenduak herrian eman duena ere jaso eta kalerratu gura dute. Historia jasoko duen erakusketa bat egitea dute buruan, esaterako, abendura bitartean egiteko asmoz.

Egonkortasunaren sasoia

Gaztetxeen mugimenduak sasoi ezberdinak bizi izan dituela garbi ikusten dute egungo Gazte Asanbladako kideek, eta aurreko belaunaldietako gazteek egindako lana eskertu gura dute. "1982an egin zuten lehen okupazioa orduko gazteek Olaitturriko eraikina hartuz. Gauzak apurtzeko eta dauden aukerak ikustarazteko mezua zabaldu zuten haiek, indarra. Lau bat urteren buruan itxi zuten, eta, urte asko gaztetxe barik egon ostean, Kasablanka okupatu zuten 2005ean, berderatzi atera bota zutena. San Martingoa hartu arte jardun zuten orduko gazteek eta haien borroka eredu garria izan da.

Prestatutako egitaraua

Zapatuan

- **10:30** Zuhaitz landaketa eta gaztetxe sarrerako tailaren aldaketa.
- **11:00** Gaztetxearen aldeko topa. Jarraian, bizikleta-poteoa, lau geldialdi eginez.
- **14:30** Bazkaria Irunberri plazan. Ondoren, jolasak.
- **19:00** Elektrokela elektrotxaranga kaleetan.
- **22:30** Kontzertuak Irunberri plazan: Lukiek, Keike, Lizartxo eta Bereziko Djak.

Domekan

- **12:00** Kontzertua gaztetxean: Rukula

Beste geldialdi baten ondoren etorri zen Antixena, eta hamar urte hauetan egonkortasuna lortu dela uste dugu. Herriko beste eragile bat da, normalizatu dago haren erabilera. Askoren topagunea da. Adin eta interes askotariko jendea batzen da eta aberasgarria da hori. Edonor etor daiteke eta buruan duen ideia edo proiektua proposatu. Egubakoitzetan, 18:00etan, egiten ditugun asanbladak dira horretarako espazio egokiak, eta herriar guztiak animatu gura ditugu horretara", diote gaztetxe kideek.

Oñatin ez ezik Euskal Herrian ere Antixena gaztetxea erreferentziatzeko gune bihurtu dela gaineratu dute kideek. "Musikan arloan, adibidez, talde asko pasa dira hemendik eta askok izaten duten Antixenaren berri".

Trikitika Eguna egingo dute ekainaren 25ean

Trikitika Eguna: Trikitixa Eguna eta Hika Eguna. Biak batera ospatzeko dituzte, Lizargarate trikitizale elkartearen eta Ingo Xonau! taldearen ekimenez. Egun osoko festa izango da, San Juan egunaren biharamunean. Eguerdian, Oñatiko trikitilariak giro-tutako triki-hika-poteoa egongo da; gero, hika-bertsu-bazkaria; eta arratsaldean, Eingo txarangak alaitutako triki-hika-poteoa, dantzarako aukera ere emango duena. Hika-bertsu-bazkarian hiru bertsolarik hartuko dute parte: Oihana Iguaran, Amets Arzallus eta Eli Pagola arituko dira bertsotan. Txartelak Txokolatexan daude salgai, 20 eurotan, ekainaren 21a arte.

Aurren ere ez da San Juan surik egingo herriko plazan

Udalak deialdia egin zuen ekitaldia antolatzeko boluntarioak bilatzeko, baina inork ez du interesik agertu eta ez da San Juan surik egingo. 2018an egin zen azkenengoz San Juan sua plazan; 2019an Corpus ospakizunak San Juan egunez egin ziren eta ezinezkoa egin zitzaizen bezperan txondorra egitea plazan. 2020an eta 2021ean pandemiagatik ez zen egin.

Arantzazun, orde, sanjuanak ospatzeko erabaki dute hango auzo etxeak eta auzo batzordeak. Afaria eta San Juan sua egingo dituzte bezperan, hilaren 23an, eta lore-sorten bedeinkapena San Juan egunean.

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasosores.com • www.gualbiasosores.com



Hiru gaztetxo saskibaloian jokatzen martitzen iluntzean Olakuako kirolgunean. A.T.

Hiruko saskibaloitxapelketa Olakuan

Saskibaloizalea den herritar baten ideari kasu eginda, helduendako zein gaztetxoendako hiruko txapelketa (3x3) ari dira antolatzen hurrengo astebururako. Ekainaren 25ean izango da, goizez, Olakuako kirolgunean, hain zuzen ere

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran antolatu izan dituzte hiruko saskibaloitxapelketak. Eta Oñatin ere egongo da aurtan. Hain zuzen, ekainaren 25ean izango da, goizean, Olakua auzoko kirolgunean.

Saskibaloizaleak

Saskibaloizale amorratua den Jorge Salinasi bururatu zitzaion antolatzea. Kirol hori gustuko duten beste herritar batzuekin ideia komentatu, hizketan hasi, eta horrela antolatu dute hileko azken zapatuan jokatuko den hiruko saskibaloitxapelketa, Aloña Mendikoen laguntzarekin. "Gabonetan urte askotan jokatu da saskibaloitxapelketa. Azken bi urteetan ez, pandemiagatik, eta ideia hau askoren gustukoa izan da, jendea lagun artean jokatze gogoz dago eta", diote Salinasekin batera txapelketa antolatzen ari diren taldeko ordezkariak. Helduen eta gaztetxo

txapelketa mistoa izango da eta goizez jokatuko da.

Helduak eta gaztetxoak

Kategoria bakoitzean hamabi talde lehiatzea da antolatzaileen nahia. Helduenean bete dute kopurua: hamabi taldek emanda dute izena dagoeneko. Gaztetxo taldeak gutxiago dira, oraingoz, eta antolatzaileek deialdi berezia egin gura dute, gaztetxoak parte hartzerari animatuz. 10 eta 15 urte artekoak sartzen dira kategorian horretan. "Olakuako kirolgunean dauden lau saskiek erregelamenduzko neurriak dituzte eta gazteagoek zaila dute, altueragatik, baloia saskiratzea". Izena emateko, telefono zenbaki honetara deitu

HELDUEN 12 TALDEK EMAN DUTE IZENA ETA GAZTETXOAK ANIMATU GURA DITUZTE PARTE HARTZERA

edo bidali behar da mezua: 688 78 57 54. Bestalde, Instagram bidez jarraitu ahal dira txapelketaren inguruko xehetasunak: @3x3olakua.

Hiruko saskiratze lehiaketa

Txapelketa 09:00etatik 14:00etara bitartean jokatuko dute. Hamar minutuko partiduak izango dira eta parte-hartzaileen artean banatuko dituzte epaile lanak. Taldeetako faseak jokatuko dituzte lehenengo, final laurdenak gero, eta final aurrekoak eta finalak azkenik. Izena eman duten taldeetan badira Aloña Mendiko saskibaloitxapelketa jokatuko eta izandako beste batzuk, eta horiek, esaterako, epaituko dituzte finalak. Categoria bakoitzarako bi sari egongo dira, bi talde onenentzat.

Hiruko saskiratze lehiaketa ere egongo da, gainera, txapelketa honen barruan. Atsedendia batean egingo dute hori, eta nahi duen taldekide orok parte hartu ahal izango du.

Corpusetako eskubaloitxapelketa ere bueltatu da

Infantil mailako selekzioek zapatuan dituzte partiduak; Miren Bermejo oñatiarrak Gipuzkoakoan jokatuko du

O.E.G. OÑATI

Pandemiagatik bi urtez jokatu barik egon eta gero, aurtan berriaz egingo da Corpusetako eskubaloitxapelketa Zubikoa kiroldegian. Aloña Mendik antolatuta, Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako infantil mailako selekzioak etorriko dira eta egun osoko torneo izango da.

Miren Bermejo oñatiarra

Gipuzkoako eta Arabako nesken selekzioen arteko partidua izango da txapelketako lehenengoa, 09:30ean. Lau jokatuko dituzte goizean eta bazkalostean jokatuko dira 3. eta 4. postuak erabakiko dituzten partiduak, neskena eta mutilena, eta finalak.

Aurretik jokatu diren Corpusetako torneo gehienetan egon da Aloña Mendiko jokalariren bat, eta aurtan ere bai. Miren Bermejo



Jokalaria bat baloia jaurtitzen.

oñatiarrak Gipuzkoako selekzioarekin jokatuko du. Beste kategorian batzuetako txapelketak ere antolatu dituzte aurtan beste herri batzuetan eta horiek guztiak jokatzeke etxeko jokalariren bat dago Gipuzkoako selekzio taldean.

Uztaileko taldekako fitness ekintzetan izena eman daiteke

Askotariko taldekako fitness ekintzetan parte hartzeko aukera izango da uztailean zehar Zubikoa kiroldegian. Besteak beste, hauek daude aukeran: pilatesa, senior gimnasia, TRX, body tonua, crossfita, aero yoga eta kore stretcha.

Hainbat ordutegi aukera dade, eta, beraz, interesa dutenek Zubikoako harreraren galdetu

beharko dute edo bertara deitu, 943 71 63 75 telefonora.

Bestetik, igerilekuan haurrentzako igeriketa ikastaroak eskainiko dituzte, ekainaren 27tik uztailearen 22ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera. Hiru talde egongo dira; 09:15etatik 10:00etara 2017-2016an jaiotakoena, 10:45etik 11:30era 2015-2014an jaiotakoena eta 12:15etik 13:00etara 2018an jaiotakoena. Plazak mugatuak dira eta izena eman ahala banatuko dituzte.

Izaro Allende futbol jokalaria jaso du gol onenaren saria

Gipuzkoako futboleko nesken denboraldiko gol onenaren saria jaso du Aloña Mendiko kadete mailako Izaro Allende Odriozola oñatiarrak. Lehen aldiz antolatu diren Gipuzkoako Futbol Sariaren ekitaldian izan da. Azkoagainen, Legazpiko Ilintxaren aurka jokatutako partiduan sartutako golagatik eman diote sari hori.

Herriko pilota txapelketa martxan da, 39 bikoterekin

Txapelketan parte hartuko duten gizonezkoen kopurua ia mantendu egin da aurreko urteko datuekin alderatuta, eta 33 bikotek hartuko dute parte; emakumezkoetan, berriz, sei bikotek hartuko dute parte, iaz baino bederatzi gutxiagok. Guztira, 95 partida inguru jokatuko dituzte eta irailaren 30ean izango da final egun handia.

Lehen aldiz grabatu dute pantaila handirako

Paul Urkijoren 'Irati' pelikularen soinu-bandako ahotsak grabatu dituzte Ganbara Abesbatzakoek. Asteburuan egin dituzte grabazioak, Donostiako Elkar estudioan, eta ordu bat eta hoge minutu iraungo duen filmari 25 minutuz jarri diote ahotsa

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Iazko abenduan jaso zuen Oñatiko Ganbara Abesbatzak Paul Urkijo zinema zuzendari gasteiztarraren *Irati* filmeko soinu-bandari ahotsa jartzeko proposamena. Musika konpositoreak Maite Arroitauregi eta Aranzazu Calleja dira, hain justu ere, *Akelarre* filmaren jatorrizko musika onenaren Goya saria irabazi zutenak, eta Ganbara Abesbatzako zuzendari Aitor Biainek ilusio handiz jaso zuen proiektu berrirako proposamena: "Arroitauregik deitu zidan esanaz *Irati* filmean guk abestea nahi zutela; gure abesbatza eta gure soinua gustatzen zitzaioela eta gogoia zuela jende gaztearekin lan egiteko".

Grabazioa, Elkar estudioan

Aurreko zapatuan egin zituzten grabazioak, Donostiako Elkar estudioan. 09:30etik 17:00ak bitartean, abesbatzako kide guztiak izan ziren kantuan, eta 17:00etatik 20:30era bitartean emaku-

mezkoak bakarrik. Ordu bat eta hoge minutu iraungo duen pelikulari 25 minutuz jarri diote ahotsa Ganbarakoek: "Hasieran ez zeukan dimentsioa hartu du, azkenean, gure parte-hartzeak. Oso interesgarria izan da; musika etnikoa, Erdi Aroko musika grabatu dugu... Oso fantastikoa baita ere. Soinu-efektuak ere egin ditugu kontsonanteekin".

Bi partitura berri ere jaso zituzten egunean bertan, eta, hara joan aurretik, hiru entsegu egin zituzten soinu bandarako obrak prestatzeko. "Pelikularen momentu batean gudu edo bataila bat dago eta horrek irauten duen bitartean obra beraren zortzi ahots kapa grabatu genituen, adibidez. Hori guztia muntatu-

ta, potentzial oso handia hartuko du", gaineratu du Biainek.

Grabazio momentua ere berezia izan zela dio: "Ahotsak grabatzen genituen bitartean nik pantailan pelikulako irudiak ere ikusten nituen, eta nola geldituko den ideia egiteko oso magikoa izan zen".

Esperientzia positiboa

Abeslariendako ere esperientzia "oso aberatsa" izan dela adierazi du Biainek: "Teknikariek esan ziguten oso jarrera onarekin egon ginela eta ematen zuela gure eguneroko lana zela. Esperientzia desberdina izan da".

Arrikrutz kobak iruditzen

Oñatiren presentzia beste modu batean ere izango du filmak. Izan ere, iazko azaroan, Arrikrutz kobetan izan ziren grabatzen. 30-40 profesionalak hartu zuten parte grabazioetan eta aktoreen artean daude, besteak beste, Itziar Ituño, Eneko Sagardoy, Ramon Agirre eta Kepa Errasti.



Beita websaileko zortzi parte-hartzaile oñatiarrak. OIER YANIZ

Hasi dituzte 'Beita' websaila egiteko lehenengo grabazioak

Diru-bilketa kanpaina jasotako babesari esker, atzo, eguena, hasi ziren grabazioetan Xup! antzerki taldekoak

A.T.G. OÑATI

Oñatiko Xup! antzerki taldeak *Beita* izeneko antzezlanaren aurkezten duen iaz, eta orain, ohol-tatik pantailara eramango dute proiektua, websaila grabatzen hasi dira eta. Hori aurrera eramanez ahal izateko, *crowdfunding* kanpaina jarri zuten martxan eta zehaztu zuten gutxienezko kopurua baino gehiago jasotzea ere lortu zuten: 7.000 euro.

Zortzi gazte oñatiarren proiektua da; hauek osatzen dute: Izar Mendiola, Malen Perez de Aranzak, Sara Arregik, Ander Murillok, Aitor Gomezek, Paula Polok, Danel Teranek eta Maddi Altolagirrek. Behin proiektua garatzeko babesak jasota, askotariko aurreproduktio lanak egiten ibili dira orain artean; kanpoko eta barruko lokalizazioak bilatu, arropak zehaztu, atrezzoak finkatu, makillajeak nolakoak izango diren pentsatu...

Orain, grabazioak

Atzo, eguena, hasi zituzten grabazioak eta astebetez jardungo dute ekainean. Uztailean beste astebetez egingo dituzte grabaketak. Barruko hainbat lokalizaziotan grabatzeaz gain, kanpokoak bailarako hainbat herritan egingo dituzte; Oñatin bertan, Elgetan eta Aretxabaletan. Taldekideekin batera izango dira beste hainbat profesional gazte lanean, baina protagonistendako lehenengo grabazioak izango dira. "Gogoz gaude, gutako inork ez du aurrez horrelako errodaje batean parte hartu eta ilusio handiarekin gaude", adierazi du Sara Arregi taldekideak.

Hilaren 21ean, Gasteizko Oihanderren aurkeztuko dute *teaser*-a eta poliki-poliki *crowdfunding*-ean parte hartu zuten guztiei dagozkien opariak banatzen ere hasiko dira.

'Maixabel' eta 'Canta' izan dira filmik ikusienak

Nagusiendako film emanaldietan *Maixabel* eta haurrenetan *Canta* izan dira filma ikusienak Oñatiko azken zinema denboraldian, zerbitzua daraman Hirutek enpresako Joxi Alonsok emandako datuen arabera. Ikusleen kopuruari begiratuta, berriz, urtetik urtera txikiagoa dela adierazi du. Alonsoren esanetan, pandemiak kalte egin dio zinema are-

toetara joateko ohiturari, eta hori berreskuratzea zaila ari da izaten. Herri baten baino gehiagotan baieztatu duen errealitatea da hori, haren esanetan, baita Oñatin ere. Hemen, 2018an, adibidez, 10.000 lagun joan ziren zinemara aretoa, 2019an 15.000 eta 2020an, pandemian, 8.800. "Joan den urteko datuak ez dira askoz hobeak eta azken hiru hilabetekoak oso txarrak. Oñatin ez da gertatu, baina beste herriren batean bai saio batean ikuslerik ez egotea", gaineratu du.



Abesbatzako kideak, musika konpositoreak eta teknikariak, grabazioak egin dituzten Donostiako Elkar estudioan. GANBARA

"Ziklismoak uste baino gehiago harrapatu gaitu"

ITXASO ASKASIBAR, EDURNE ORMAETXEA ETA ITXASO PLAZA TXIRRINDULARIAK
ZIKLISMOA Bolintxo Okindegia-Lana taldean diharduten hiru ziklistek egutegi bete dute ekainean; euren zaletasunaren gainean berba egiteko tarte hartu dute

Xabier Urtzelai Arrasate

Itxaso Plaza (Arrasate, 15 urte), Itxaso Askasibar (Elgeta, 14 urte) eta Edurne Ormaetxea (Aramaio, 14 urte) lasterketetan buru-belarri dabilta. Valladoliden izan dira asteburuan, Plazak Gipuzkoako Txapelketako erlojupekoa izan du aste barruan Aizarnazabalen, eta asteburuan Valentzian izango dira, Espainiako Kopan. Maillot, kulot eta kasko barik, bizikletak garajearen gordeta, tarte hartu dute GOIE-Narekin berba egiteko. Ziklismoak harrapatu dituen hiru neska hauek gertuagotik ezagutzea da helburua.

Zergatik aukeratu zenuten txirrindularitza?

Itxaso Plaza: Imajinatzen dut etxean ikusi dugunak eragina izan duela. Aitari betidanik gustatu izan zaio txirrindularitza, baina lehenago igeriketa eta atletismoa ere egiten nituen, eta triatloia egitera animatu nintzen. Aitak ikusi zuen, baina, bizikleta gainean ordu gehiago egin behar nituela, eta halaxe hasi nintzen txirrindularitzan. Itxaso Askasibar: Ni umetatik ibili izan naiz bizikletan, eta, duela sei urte inguru, mendiko bizikleta talde batean hasi nintzen. Errepidera pasa nintzen gero, Lokatzan.



Itxaso Askasibar, Edurne Ormaetxea eta Itxaso Plaza. GOIENA

Edurne Ormaetxea: Nire kasuan ere, aita betidanik ibili izan da bizikletan, eta gure etxean ama ere ibiltzen zen. Eta beti izan dut har hori barruan. Txirrindularitzan hasi nahi nuen, baina, beste kirol jarduera batzuetan ere banenbilenez, etxean ezetz esaten zidaten, aukeratu beharra zegoela. Halako batean, esan zidaten ziklismoa probatzeko, eta halaxe hasi nintzen.

Behin probatuta, aurreikuspenak bete egin ziren?

E.O.: Aurreikuspenak gainditu egin ziren.

Gogoan duzue lehen lasterketa?

I.P.: Nire lehenengo lasterketa Zuatzon izan zen, Donostian. Erlojupeko bat izan zen, eta erori egin nintzen. Edozelan ere, nahiko lasterketa ona egin nuen eta horrek motibatu egin ninduen.

I.A.: Nik mendiko bizikletarekin egin nuen lehenengo lasterketa, Leioan, eta asko gustatu zitzaidan esperientzia, oso oroitzapen ona dut.

E.O.: Nire lehenengo lasterketa Markuleten izan zen, Arrasateko industrialdean. Berez,

aniak zeukan lasterketa, eta ni ere parte hartzera animatu ninduten. Egun hartan, emakumezko bakarra nintzen, eta azkeneko postuan iritsi nintzen, baina gustura ibili nintzen, eta hurrengo urtean errepikatu egin nuen.

Beti esan ohi da garrantzitsua dela goiko mailetan erreferenteak izatea. Gurean badaude batzuk: Xubane Garai, Garazi Estevez, Olatz Gabi-londo... Laboral Kutxan dabilta horiek.

I.P.: Bai, lagungarri da, bereziki ikusten dugulako neskak ere badabilta txirrindularitzan. Eta gertukoak badira hobeto, noski. Olatz, esaterako, duela gutxira arte gurekin izan da Lokatzan, eta oso lagungarria da.

Zer kontatzen dizue?

E.O.: Bada, goian maila handia dagoela; azken batean, mundu

mailako txapelketetan egotea ere egokitu zaio, eta ziklista oso onak daude, baina gustura dabil.

Segituan izango zarete zuek gazteagoendako erreferente.


I.P.: Nik ikusten dudana, Dorletako Aman, esaterako, neska koadrila polita dabil bizikletan. Egia da kosta egiten dela kategoria txikietatik saltoa ematea, adin batetik aurrera konpromiso apur bat eskatzen duelako, eta hain justu, adin horietan kalean egon nahi duzu lagunekin. Baina jarraitzea animatuko nituzke.

"SEGURUENIK, ETXEAN IKUSI DUGUNAK ERAGINA IZAN DU TXIRRINDULARITZA AUKERATZERAKOAN"

Xubane Garai, Gervaisen onena

Laboral Kutxako Xubane Garai aretxabaletarrak jantzi zuen txapela martitzenean, Aizarnazabalen egindako erlojuaren kontrako Gipuzkoako Txapelketan –Gervais memoriala–. Ziklistek ia 15 kilometroko ibilbideari egin behar izan zioten aurre, eta elite eta 23 urtez azpikoen kategorian, Garaik 22 minutu eta 45 segundotan geratu zuen erlojua. Aretxabaletakoarekin batera bigarren sailkatu zen Bolintxo Okindegia-Lana taldeko Eneritz Urrutia (23.47), eta gazte mailan Itxaso Plaza hirugarren izan zen (23.34).

Gizonezkoen elite eta 23 urtez azpikoen kategorian, Mikel Mujikak (Telco.m) nagusitasunez irabazi zuen (26.39). Maila horretan 21 kilometroko ibilbidea izan zuten. Eta podiumean izan zen Asier Azkarate arrasatearra (Eulen), hirugarren postuan.



Xubane Garai, eskuman. LABORAL KT

Oihana Kortazarren eta Malen Osaren arteko lehia Nurian

MENDI LASTERKETAK Elgetakoa izan zen azkarrena, Salomon taldera sartu berri den Oñatikoaren aurretik

X.U. ARRASATE

Golden Trail National Seriesen baitako l'Olla de Nuria lasterketan (Girona), emakumezkoen kategorian bi debagoiendar zein baino zein gehiago izan ziren lasterketa irabazteko lehian.

Elgetakoa izan zen azkarrena (2.42.11), nahiz eta eroriko baten ondorioz denbora dezente galdu zuen eta Osa gain-gainera etorri zitzaion; elgetarrak azken zatian arriskatu egin zuen, eta lasterketa irabaztea lortu. Nabarmen-

du behar da gaueko lasterketan Intza Osa hirugarren izan zela.

Osa, Salomon-era

Hain zuzen, hori da asteko albisteetako bat; alegia, Malen Osak bigarren postu batekin ospatu duela Salomon etxeko gazteen taldeak fitxatu duela. Inguruko lasterketetan eta, bereziki, Espainiako Txapelketan nabarmendu izana lagungarria izan da traileko arropa eta zapatila etxe ezaguneko kide izatera pasatzeko.



Kortazar, aldapan gora. L'OLLA DE NURIA

Gabez Takarraran bihar, 80 parte-hartzailerekin

MENDI LASTERKETA 40 lagun abiatuko dira 20:00etan oinez, eta beste horrenbestek hasiko dute korrikako lasterketa 22:00etan: "Oinez egiteko aukera emanda mendian gauez ibiltzea demokratizatu dugu", dio, umorez, Gartxot Zubizarretak

Xabier Urtelai ESKORITZA

Urtero gainditu beharreko zailtasuna da Gabez Takarraraneak; alegia, lasterketa gauez dela. Askorendako hor dago xarma, eta beste batzuekako oztipoa da. Hala, antolatzaileek korrikalari askoren partetik behin eta berririo entzun behar izaten duten gauza bat da. "Askok ez dute gauez mendian ibili nahi, ez oinez eta ez korrika, eta halaxe aitortzen digute. Badakigu egunez egingo bagenu jende gehiago etorriko litzatekeela. Baina Gabez Takarraran gauez da", dio antolaketa taldeko kide Gartxot Zubizarretak. "Bestalde, oinezko kopurua korrikakoaren



Lasterketaren irteera, 2019an. IMANOL SORIANO

pare dago aurten ere: "Oinezkoen modalitatearekin mendian gauez ibiltzea demokratizatu dugu", dio, barrez. Hori bai, aurten ere ohi baino ordubete lehenago hasiko dute korrikako lasterketa: "Oinezkoek 20:00etan hasiko dute proba [25 kilometro, 1.200 metroko desnibel positiboa] eta korrikakoak 23:00etan irten beharrean 22:00etan irtena dira. Azken edizioan ere halaxe egin genuen, eta antolaketa lanak asko errazten ditu horrek, bestela, goizaldean oraindik lanean jarraitzen genuen-eta, dena batzen".

Hala, aurten ere 100 lagun izango dira, besteak beste, bigurutzak zaintzen: "Jende asko egoten da egun horretan lanean, eta korrikalariak eskertu egiten du hori. Bai, gauez da lasterketa, baina jende asko dago ibilbidean laguntzen".

Gauez egiteak badu beste abantaila bat, astebururako oso tenperatura altuak iragarri dituzte eta gauean giro hobea egingo du kirola egiteko: "Ekaitzak ere aurreikusi dituzte, baina urteroko kontua da. Seguru plazan giro ederra egongo dela".

HOCKEYA Espainiako Txapelketa jokatu dute Bergaran

Lineako hockeyko 20 urtez azpiko emakumezkoen Espainiako Txapelketa jokatu dute Bergaran, Labegarietako kiroldegian, ekainaren 24an, 25ean eta 26an. Guztira, zortzi talde lehiatuko dira: CPLV (Valladolid), Tucans (Bartzelona), Vila-Real (Castellón), Aranda de Duero (Burgos), Skulls (Valentzia) eta Madrilgo Tres Cantos eta Fenix taldeak izango dira etxeko Burdinola taldearekin batera. Hain zuzen, Burdinolako lagunak hartu dute txapelketa antolatze-ko ardura.

Astelehenean, prentsaurrekoa egin zuten txapelketa aurkezteko, eta Burdinola irristaketa elkarte-ko ordezkari Agustin Oyangueren azaldu zuen 2017tik orain arte klubak ze ibilbide izan duen, eta gaineratu zuen euren helburua dela lerroko patin gaineko irristaketa eta hockeya sustatzea. Hala, Espainiako Txapelketa Bergaran antolatzea urrats bat gehiago dela azpimarratu zuen.



Telebista



Profesionalekin



Sare sozialak



Euskaraz



Podcastak



Fotokazetaritza



Kamera aurrekoak

Komunikazio

Campusa

2022

Noiz: uztailaren 4tik 8ra. **Taldeak:** gehienez ere, 15 lagun.
Non: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan, eta Goienan, Arrasaten.
Ordutegia: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).
Norendako: DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.
Izen ematea: Martxoaren 18tik ekainaren 17ra. **Prezioa:** 125 euro.

IZEN EMATEA ZABALIK:
www.labur.eus/komunikaziocampusa

Informazio gehiago:

600 02 27 20

komunikaziocampusa@mondragon.edu



Anima zaitetz eta eman izena!

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

"Emozio aldetik zoramena dira txapelketaren biharamunak"

PERU ABARRATEGI SARRIONAINDIA BERTSOLARIA

Zapatuan Gasteizen jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako finalean zeuden sei bertsolaritik lau aramaioarrak izan ziren eta gazteenak, Peru Abarrategik, irabazi zuen



Abarrategi, Arabako bertsolari txapelduna, Goienan, martitzenean. ENEKO AZKARATE

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO

Buruz burukoan haren irakasle izan den Manex Agirrerekin aritu ostean, Abarrategik esku-ratu zuen txapel preziatua.

Zorionak! Non duzu txapela?

Etxean ondo zainduta. Jasoaz bat Aramaiora bidali nuen azkar; Gasteizen geratu ginen ospakizunetan gu, eta neure burua eta ingurukoak ondo ezagututa, etxera bidaltzea erabaki ona izan zela uste dut.

Nolakoak ari dira izaten txapela jantzi osteko egunak?

Jendeak sorpresaz hartu duela uste dut, eta, tartean, nik ere bai, neure buruarengan sinisten nuen arren. Emozio aldetik zoramena ari dira izaten biharamun egunak, kudeatzeko egoera berri bat da niretzako. Bi momentu aipatzearren, Gasteizen lagunekin ospakizunak ederrak izan ziren eta domekan Aramaiora bueltatzean oso maitatua sentitu nintzen. Askok eskertzen dut jasotako mezu mordoia.

Bertso eskolak ematen dituzun Gasteizko Tokieder ikastolan astelehenean egin zizuten harrera ere ez zen nolanahikoa izan, ezta?

Oso hunkigarria izan zen, bai; ondo disimulatu zuten, gainera. Lehenengo bi klaseak bertsoa entzun eta halakoak egin genituen, baina atsedenaldira helterakoan ikasle guztiak gelatik atera eta barruan utzi nindutenean konturatu nintzen zer bait

zeturrela. Patiora joan eta han zeuden ikasleak eta irakasleak txaloka eta oihuka.

Finaleko lehiakideen artean gazteena zinen eta lehen txapela lortu zenuen. Horrek zer esan nahi du zuretzat etorkizunera begira?

Pertsonalki ez naiz etorkizun bati begira jartzen, momentu honetaz disfrutatzen saiatzen ari naiz, baina kolektibotasunetik esango nuke probintzia guztietan ari direla finalerara gazte asko heltzen; horrek Euskal Herriko bertsolaritzaz asko adierazten du. Esaterako, jarraitkortasuna izango duela. Eta bestetik, jendeak ez daki zelako harreman ona eta estua dugun oholtzaren gainean egon ginen sei bertsolariok; hortaz, gazteena izan arren, bat gehiago naiz. **Buruz burukoan Manex Agirrek 602 puntu lortu zituen eta zuk 608; non egon dira txapela irabazteko gakoak, zure ustez?**

Buruz burukora bakarrik eramanez gero, oso erreza zen nire papera, ez nuen-eta galtzeko ezer; beraz, kontzentratuta jarraitzen saiatu nintzen eta ondo atera zitzaidan.

Emozio aldetik zelan joan zitzaizun?

"MIMO HANDIZ PRESTATU DUGU; EZ DA KASUALITATEA FINALEAN LAU ARAMAIOAR IZATEA"

Momentu ezberdinak izan ziren. Batzuk konturatuko ziren lehenengo agurra kantatu baino lehen praka bakeroak nituela soinean, baina bat-batean apurtu egin zitzaizkidan eta hala kantatu behar izan nuen; hala ere, telebistako kamerak zeudela banekien eta alde horretatik ez nengoen oso lasai. Beraz, publikoan zegoen anaiari prakak aldatu nizkion saio erdian, deskuiduan buruz burukora pasatuz gero txukun samar egoteko. Horrek guztiak urduri jarri ninduen, baina jakin nuen nahiko ondo kudeatzen.

Lau aramaioar zeundeten finalean. Zer adierazten du horrek?

Gutxietsi barik finaleratik kanpo geratu direnak, badaudelako meritu latzak egin dituztenak, gure eskolan mimo handiz prestatu dugu txapelketa. Kopuruz eskola indartsua da Aramaiokoa eta Arrasatetik eta Otxandiotik ere goi mailako bertsolariak etorri zaizkigu. Prestakuntzak oso onak izan dira, asko entrenatu dugu, eta esango nuke ez dela kasualitatea lau aramaioar finalean izatea.

Irailean izango den Euskal Herrikoako txartela duzue Agirrek eta biok. Ze aurreikuspen duzu?

Zorte handia izan dut Euskal Herriko aurtun delako, eta badakit ardura puntu bat izango dudala, foku gehiagok begiratu ko nautelako, baina gozatzea gustatuko litzaidake.



Manex Agirre, Paula Amilburu eta Xabi Igoa bertsolariak. MIREIA BIKUÑA

Lehiaren gainetik, adiskidetasuna

Bertso eskola berekoak, plaza askotan bertso-kideak eta parrandetarako eta negarretarako lagunak dira zapatuan Gasteizko Europa Biltzar Jauregian jokatu zuten finalean jardun zuten lau aramaioarrak; horregatik, bada, "pozik" daude denak Abarrategik txapela irabazita. "Bertsolari moduan bonba hutsa da. Sekulako gaitasuna du gaiei espero ez duzun leku batetik heldu eta horrekin distira egiteko, eta umoretik egiten du hori askotan. Hori da haren gaitasun bat, eta finalean etekin handia ateratzen; eta, bestetik, oso bertsolari zuzena da, apenas egiten du akatsik", dio Manex Agirrek, eta zera gaineratu du Paula Amilburuk: "Oso ona da eta, nire ustez, presentzia berezia du; informal samarra dirudi, akaso, kanpotik, baina atzean lan handia dago. Ahalmene berezia du umorea egiteko eta jendearengana heltzeko, asko transmitituz".

Abarrategi txiki-txikitatik ezagutzen duen Xabi Igoak ere txalotu egin du haren bertsokera. "Askok maite dut, ez naiz objektiboa. Umoretik jarduteko gaitasuna azpimarratuko nuke nik ere, baina, aldi berean, bertsolari oso erregularra dela goraiatuta. Akatsik egiten ez duen tipo bat dela iruditzen zait eta zapatuko saioa izan zen, duda barik, horren erakusle argia".



Seminarixoa ere, Gariren ibilbidearen lekuko

Lazkaoko, Bilboko eta Getxoko kontzertuak eskainita, gaur, egubakoitza, 20:00etan, Bergaran egingo duen emanaldiarekin borobilduko ditu Garik, Maldanbera taldea lagun duela, zuzeneko diskoaren grabaketak; sarrera gutxi batzuk geratzen dira

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Hertzainak taldea bertan behera utzi zutenean abiatu zuen taldeko abeslariak bakarkako ibilbidea; harrezkero, bederatzi lan argitaratu ditu, eta Durangoko Azokan aurkezteko asmoa du, Elkarren eskutik, haren ibilbidea laburbiltzen duen zuzeneko lana. "Bira txiki bat antolatatu dugu eta pozik gaude zaleek egin diguten harrerarekin. Gogotsu gaude gaurko emanadira, nireztako berezia, jaioteritik gertu izango naiz eta gertuko lagunekin biltzeko aukera izango dut", dio Garik.

Bergaran zuzeneko bat grabatzen duen bigarren aldia da Garirentzako, 1991n Txibisto aretoan Hertzainak taldearekin jasotakoa gogoan hartuta. "Beste garai batzuk ziren. Teknikoki alderatuta, adibidez, ikaragarri aldatu dira gauzak. Gogoan dut Txibistoko grabaketarako unitate mugikor bat ekarri genuela. Aurrekontua eta, orokorrean, ekoizpena ikaragarriak

ziren eta gaur egun errazagoa da, baliabideek ahalbidetzen dute bira txiki bat egin eta kontzertu guztiak grabatzea, eta horrek musikariorik beste ikuspegi bat eta lan egiteko beste lasaitasun bat ematen digu".

70 minutu inguruko bilduma

1995ean argitaratu zuen *Gari*, bakarkako lehen lana, eta hurrezkeroko sortutako lan guztietatik aukeraketa eginda osatu dute lan berriaren zerrenda. "Disko guztietatik aukeratu ditugu kantak. Ibilbidearen argazki bat ateratzen saiatu gara. Zerrenda konposaketa ez da erraza izan, urte asko izan dira eta etapa ezberdinak egon dira. Aldaketa ikaragarriak izan dira

**ELKARREN ESKUTIK
DURANGOKO AZOKAN
AURKEZTUKO DUEN
ZUZENEKO DISKOA
GRABATUKO DU GAUR**

sonoritate aldetik, kantuen egitura aldetik, kolaboratzaileei eta taldekideei begiratuta ere bai. Gutxi gorabehera, 70 minutuko iraupena izango du bildumak, 26 kantu ingururekin osatuko duguna".

Maldanbera lagunekin

